

TERESA LISIEUX-KOAREN MEZUA BERE BIZITZAN ERROTUTA

Askotan eskatu dauste Teresa Lisieuxkoari buruz berba egiteko edo idazteko. Ta ia beti ohartxo hau ezarriz: "Teresaren mezuari buruz bakarrik ta ez galdu denporarik bere historia kontatzen". Niretzat ezinezkoa da hori. Teresaren kasuan, ez doaz bizitza alde batetik eta mezua bestetik. Teresarengan ezin leitekez banatu bere bizitza eta bere mezua. Teresaren mezurik ederrena bere bizitza dogu eta. Teresaren mezua bere bizitzako kimua baino ez da. Bere bizitzako gorabeheretan sortzen dira bere intuizio jatorrenak.

Teresa Lisieuxkoa ez da lainoetan dabilen teorilari bat. Gitxiago oraindino, gazte txatxala barritsu bat. Bere mezua berbera dogu. Bere mezua bere bizitzan murgilduta daukagu. "Pentsamendurik ederrenak ez dira ezer egiterik gabe" (C Esk., 19^l) idatziko dau. Hil zan egunean bertan, guzurak lekurik ez daukon momentu larri ta ikaragarri horretan be, behin eta barriro errepikatuko dau: "Bai, egia besterik ez dot neure bizitza guztian bilatu" (KH 30, 9). Hil zorian, azkenengo egunean, esandako berbak ditugu.

Teresaren bizitza era askotara banatu leiteke. Nik neuk hiru zatitan banatuko dot. Zati bakotxa bera bizi izan zan hiru lekutan kokatuta ikusten saiatuko naz. Hau da, Alençonen (1873-1877), Buissonnetsen (1877-1888) eta Karmengo Ordenan (1888-1897) Honela errezago egingo jaku bere bizitzako hari eroaleari jarraitzea. Zati bakotxean, Teresaren bizitzako momenturik behinenak azalduko ditut. Esaterako, lehenengo zatian, ezin dogu aurrera jo, bere familiaren eragina eta amaren heriotza aipatu barik. Bigarren zatian, gauzarik apartekoenak beste honeek ditugu: bederatzi-hamar urtekin jasango dauan une larria. Ta gero hamabi-hamafau bitartean izango dituan barruko kezka. Ta hirugarren zatian, ostera, lekaine bizitzan ezagutuko dituan gorabehera seinafagarrienak. Eta holan, distiratsu dihardun Teresaren mezu zoragarria bere bizitzan errotuta daukagula ikusiko dogu. Azkenean, gehigarri bezela, Teresaren bilondoko itzala eta eragina Elcizaren eta kristaunon bizitzan gogoratuko ditut.

Lantxo hau amaitu ondoren, baleiteke Teresa gazteak bere lagun bihotz-bihotzeko bateri esan eutsona, neuri be irribarretsu eta umorez gogoratzea: "Ez nozu ezagutzen

benetan nazan moduan" (TG 224) Ta egia izango da. Baina badakit bera izango dala lehenen parkatzen daustana. Maitasuna besterik ez daukalako bere bihotz garbi-garbian. Teresaren bihotzak maitatzen baino ez daki. Horigaitik, maitasunak hegan jarriko dau Teresa, eta, beldurrak, ostera, lurra jota (ik. Esk. A, i).

1

Lehenengo zatia (Alençon-en, 1873-1877)

Nahizta, Teresatxo deunak, munduan zehar, Lisieuxko herriaren fama zabaldu, ez zan bertan jaio. Alençonengo alaba dogu jaiotez. Hementxe munduratuko da 1873.eko



Teresaren etxea Alençon-en

urtarrilaren hiruan. Jaio ta hurrengo egunean, bertako Notre-Dame parrokian, Maria Frantzizka Teresa izenagaz bateatua izango da. Baina bai familian eta bai gero Karmengo Ordenan, Teresa izenagaz bakarrik deituko dautsoe. Ama besoetako bere ahizta zaharrenak egingo dau. Eta aita besoetako, Paul Boulek. Eta Normandiako hogeita hamar inguru biztanle dituan herritxo honetan biziko ditu lehenengo lau urteak, ama hil arte.

1. 1 Gurasoen eragina

Teresa ez da zerutik datorkun ain-gerutxo. Ez da berez sortzen. Bere gurasoak, Luis Martin (1823-1894) eta Zelia Guerin (1831-1877) ditugu. Biok Alençonengoak, nahizta Luis Bordelen jaio, bere aita Frantziako tropakin Espainian gerran ebilen bitartean.

Itzelezko eragina izango dabe Luis-ek eta Zeliak Teresaren izatean. Aita-gandik bihozberatasuna eta eder-zaletasuna hartuko ditu, baita natur zaletasuna ere. Beste kualitate guztien gainetik aipatzekoa da bere sentiberatasun fina. Influentzia galanta izango dau berezkotasun honek Teresaren bihotzean. Bai sufritzeko orduan eta bai, bereziki, maitatzeko orduan. Aitagandik ikasiko dau "maitasunez jokatzeko eta ez bildurrez" (Esk. A, 83¹). Aita hil ondoren, bere omenez egindako olerkian, otoitz hau urteno dautso Teresari bihotz barnetik: "Oroi zaitetz lurre-

an gu maite izatea zela zure zorion betea" (TO 8). "Matxista" deritxon kultura horrek, ez dauko zer ikusirik Luisen portaeraz. Ume gitxik izan dabe Teresaren aitaren antzeko aita bat izateko zoriona!

Amagandik, ostera, buru argia eta bizitzari aurre emoteko adorea ta kemena hartuko ditu. Makina bat oztopo aurkituko ditu Teresak bere bizitza laburrean. Ta momentu guztietan agertuko dau paregabeko barne-indarra eragozpenak gainditzeko. Baita idazteko daukon erreztasuna be amagandik hartuko dau. Zelia eta Teresaren estiloa antzekoa da. Bion kartak konparatzea baino ez daukagu.

Hori bai, gurasoengandik barru-barruko sinismen sendoa eta pertsonala hartuko dau. Teresarentzat ez da izango hain zaila, Jaungoikoa errukia ta maitasuna besterik ez dala sentitzea. Bere gurasoengan horixe besterik ez dau ikusi. Eurengandik somatuko ditu Jaungoikoaren samurtasuna eta bihozberatasuna.

Esperientzia sakon honeri esker, aurre emongo dautso Teresak jansenismoz kutsaturiko espiritualitate latzari. Nahizta krisi gogarrak jasan, azkenean gurasoengandik artutako Jaungoikoak markauko dau Teresaren bizitza. Edonon, bere idatzietan agertzen da gurasoen eragina Jaungoikoa nolakoa dan somatzean. Bere gurasoengandik hartutako esperientziak baliatuko da Jaungoikoaren errukia eta maitasuna ezagutzeko.

Ze ederto erretratutzen dituan Teresak bere gurasoak parabola bi honectan. Bellière abadegai gaztea bildurrez jota bizi da Jaungoikoaren aurrean. Ta Teresak ezin dau hori inondik inora onartu. Beste esperientzia bat dau berak-eta. Ta karta zoragarri baten, beste gauza eder askoren artean dinotso: "Konparazio erraz baten bidez, ulertarazi nahi nizuke Jesusek beregan uste osoa duten arimak maite dituela, baita inperfektuak badira ere. Egin dezagun aita batek bi seme esantzarreko eta bihurri dituela, eta hauek zigortzerakoan, seme bat dardarka hasi eta beregandik urruntzen ikusten duela, bihotzaren sakonean benetan zigortua izatea merezi duela agertaraziz; haren anaia, ordea, aitaren besoartera hurbildu eta honi atsekabe emateaz damutzen dela diotso, maite duela eta hori horrela dela agertzeko, aurrerantzean ona izango dela. Seme honek aitari musu bat eman ez zigortzeko eskatzen badio, ez dut uste zorioneko aita horren bihotza haren seme-konfiantzaren aurrean bigunduko ez denik, haren zintzotasun eta maitasuna ezagutzen baititu. Ez du ahaztuko, hala ere, bere semeak behin eta berriro huts berberak egingo dituenik, baina beti barkatzeko prest egongo da, semeak bihotza irabazten baldin badio... Lehenengo semeaz ez diotsut ezer, ene neba maitea, ulertuko duzu aitak bigarrena bezain maite izango duela eta erruki berberaz tratatuko duela" (TG 258).

Ia-ia konparazino berbera dakar bere ahizta Leoni errukarriari zuzendutako karta baten be. Kasu honetan aita izan beharrean ama dator. Eta seme bi barik, seme bat erreazio desbardinaz amaren aurrean. Hau da, konfiantzaz edo mesfidantzaz. (ik. TG 191).



Teresaren bataioko jantzia eta bateatu izan zen bataiarria



Teresaren gurasoak

Holako parabolak erraz asmatzen ditu Teresak. Bihotz barneko esperientzia ederrak baino ez dira. Teresak, Jaungoikoaren maitasuna azaltzeko, behin eta berrin bere gurasoen jokabidea jarten dau begien aurrean: "Jainko onak atsegin izan du neure bizitza osoan ni *maitasunez* inguratzea. Nire lehen oroitzapenak irribarre eta txera samurren azterna gordetzen dute... Baina Hark nire inguruan *maitasun* ugari jarri bazuen, nire bihoztxoan ere izaera amoltsu eta sentibera jarri zuen. Nik ere maite-maite nituen aita eta ama, eta era askotara agertzen nien, oso irekia bainintzen" (A Esk., 4¹).

Jaungoikoaren aztarnak bere gurasoengan nabaritzen ditu lehenen Teresak. Pare bat hilabete hil aurretik, otoitz eder honetan *laburbilduko* dau bere bizitza osoa: "Zure maitasunak aurea hartu dit haurtzarotik, nirekin batera hazi da, eta orain haren sakona neurtu ezin dudan hondalea da. Maitasunak maitasuna erakartzen du: horregatik, ene Jesus, nire maitasuna zureganantz amiltzen da: erakartzen duen hondalea bete nahi luke, baina ai!, ez da itsasoan galdutako ihintz-tanta bat bera ere... Zuk maitatzen nauzun bezala maitatzeko, zeure maitasuna bera eskatu beharko nizuke maileguz. Orduantxe soilik gelditzen naiz lasai.

Oi, ene Jesus! Beharbada, begitazioa izango da, baina uste dut ezin duzula maitasunez gehiago bete arima bat nirea bete duzuna baino. Horregatik, niri eman dizkidazunak ni maitatu nauzun bezala maita ditzazula eskatzera ausartzen naiz. Egunen batean, Zeruan, ni baino gehiago maitatu dituzula ikusiko banu, poztu egingo nintzateke, orain-txerik aitortuz arima hauek nireak baino askoz gehiago merezi dutela zure maitasuna. Baina hemen behean ezin dut buruan sartu maitasun-neurrigabetasun handiagorik zuk niri dohainik, nire aldetiko inolako meriturik gabe, ematea nahi izan duzuna baino". (Esk C, 35^a).

1. 2 Natur-zaletasuna

Badau Teresak aitagandik hartutako beste kualitate bat be. Hau da, natur-zaletasuna. Umetatik naturaren edertasunaz aho zabalik geratuko da. Bada Teresaren natur-zaletasuna kualitate hau garatuten lagunduko dautson beste gauza bat be. Jaio ta bi hilabetera gaixorik daukagu. Zelia bere ama minbiziaz jota dagoanez ezin dautso bularrrik emon. Ta medikuaren kontsejuz Semalleko baserritxo batera daroa umetxoa. Bertako etxekoandrea izango da urte bete pasau Teresaren inude. Beronen izena Rose Taillé. Hantxe biziko da oilo ta abere artean. Bertan ditu ortu ta landa ederrak. Eguenetan Rosagaz jaitsiko da Alençonera. Ta domeketan bere gurasoak eta ahiztak igongo dabe baserrira etxeko txikiaz eguna pasetako. Etxera itzuli ondoren, aitak sarritan eroango dau bere alaba txikia Pavillon deritxon etxedorrera ta hantxe pasetan dau eguna lora eta txoritxoan artean jolasten.



Rose, Teresaren inudea

Umetan hartutako natur-zaletasuna gehitzen doa. Atsegin jako aitagaz erreka edo itsaso ertzetan bere kanaberatxuaz arrantzan jardutea edo loratxoak hartzea. Umetako inpresioak honela azalduko ditu hogeita bi urte daukazala: "Nire errege maiteak berekin arrantzatzera eramaten niduen egunak bai ederrak niretzat! Hain gogoko nituen landa, loreak eta txoriak! Batzuetan neure kanabera txikiaz arrantzatzeari nekion. Baina belar loretsuaren gainean *bakarrrik* esertzea nuen nahia-go. Nire pentsamenduak, orduan, sakon-sakonak ohi ziren, eta gogoeta egitea zer zen jakin gabe, nire arima benetako otoitzean murgiltzen zen... Urrutiko hotsak entzuten nituen... Haizearen zurrumuruak eta soldaduen zehazgabeko soinuak berak ere, nireganaino iritsirik, goibeltasun gozoz betetzen zuten nire bihotza... (...) Hodeiak direla-eta, oroitzen naiz nola landa zabaleko zeru urdin ederra ilundu zen, eta nola ekaitza lehertu zen; tximistek



Semalleko baserritxoa

hodei ilun artetik ildoak urratzen zituzten, eta tarte txikira oinaztarria erortzen ikusi nuen. Ez nintzen izutu ez, poz-etzitan nengoen. Jainko Ona [15^a] niregandik hurbil zela neritzon!... Aita ez zegoen bere erreginatxo bezain pozik; ez ekaitzaren beldur zelako, belarra eta bitxilore erraldoiak (neu baino handiago zirenak) harribitxiz diz-diz egiten zutelako” (Esk A, 14¹-15^a).

Itsasoaren zirraraz txunditurik daukagu Teresatxo. Sei urte ez ditu lehenengoz itsaso ikusten dauanean. Oporretan dago bere etxekoekin Normandiako kostaldean. Trouvilleko herritxo zoragarriaren hondartzetan. Hamasei urte geroago, honela gogoratzen ditu bere inpresioak: “Sekula ez naiz ahaztuko itsasoak egin zidan zirraraz. Ezin nion neure buruari cragotzi etengabe begira eta begira egotea. Haren gurentasuna, olatuen orroa,



Teresa 3 urte 1/2 zituela

Jainko Onaren handitasunaz eta ahalmenez hitz egiten zion guztiak nire arimari. (...) Ilunabarrean eguzkia, ildo argitsu bat ondoren utziz, olatuen handitasunean bainatzen zela zirudienean, *Paulinarekin* bakarrik joan nintzen harkaitz baten gainean esertzera... Orduan ‘*Urrezko ildo*’ deritzon ipuin hunkigarriaz oroitu nintzen!... Luzaro egon nintzen ildo argitsu hura behatzen; bela zuridun untzitxo txairoak ibili behar duen bidea argitzen duen *graziaren irudia*” (Esk A, 21¹-22^a).

Hamalau urtekin, bere ahizta Zelinagaz, orduak eta orduak emongo ditu, etxeko ikustokitik, iluntze-gauaren edertasuna miresten: “Bai gozoak zirela begiralekuan izaten genituen solasaldiak! Begirada urrutian galdurik, ilargi zuria zuhaitzen atzetik emeki jaikiz ikusten genuen..., lotan zen izadiaren gainean isurtzen zituen zilarezko printzak..., izar distiratsuak urdin sakonean niriñirka..., arratseko haizetxoaren bafada arina elur-hodeei kulunka eraginez. Guztiak goratzen zituen gure arimak zerura, oraindik

‘*alderantzi garbia*’ baizik ikusten ez genion zeru ederrera... Ez dakit oker nagoen, baina gure arimen asaskaldia Santa Monikak bere semearekinzuenaren antzekoa zen, Ostiako portuan biak Kreatzailearen gauza miresgarrien aurrean liluraturik gelditzen zirenean...” (Esk A, 48^a).

Erromara egindako bidaiaren be, naturaren edertasunaz zoratuta geratuko da Teresa. Bere deskribapenetan olerkari bihurtzen jaku: “Gure erromesaldiaren jomuga zen Erromako hirira iritsi orduko, gauza harrigarri asko ikusteko era izan genuen. Lehenengo Suitza izan zen, bere mendiekin, haien *gailurra* hodei artean galtzen zela, ura mila eratarata turrustatzen duten bere urjauzi iritsuekin, iratze erraldoi eta txilar arrosa kolorekoz beteriko bere haran sakonekin. Ai, ene Ama maite! Zenbat on egin zuten nire ariman *goritasunez* isuritako izadiaren edertasun haiek! (...).

Batzuetan mendi baten gailurrean aurkitzen ginen; geure oinpean, begiek haztatu ezineko sakonera zuten amildegiak, gu irensteko prest zeudela zirudielarik... Edota herrixka zoragarri bat zen, bere etxetxo txanbelin eta bere kanpandorrearekin, haren gainean hodeiak zuriaren zuriz diz-dizka leunki higitzen zirelarik... Urrutiago, eguzkiaren azken izpiek urrez jantzitako aintzira zabal bat ageri zen. Haren ur bare eta gardenek, ilunabarreko su-erlantzetan nahasten zen zeruaren margo urdina ispilatuz, inork pentsa dezakeen ikuskizunik poetiko eta liluragarriena agertzen zuten gure begi zurtz eginen aurrera. Ortzemuga zabalaren ertzean mendiak ageri ziren; haien inguru zehazgabeak bistatik galdu egingo zitzaizkigun, beraien gailur elurtsuek, eguzkiak distiratsu bihurtzen zituenak, oraindik edertasun berri bat gehitu ez baliote liluratzten gintuen aintzira ederrari... Edertasun hauek guztiak ikusiz, nire ariman gogoeta oso sakonak sortzen ziren” (Esk A, 57¹-58^a).

Teresak bere parabola eta sinbolo asko naturatik hartzen ditu. Bere olerkietan naturaren edertasuna, askotan, kantauko da. Esaterako, “Zelinaren kanta” (ik. TO 18) Frantziako Asiskoaren “Anaia eguzkiaren eresia” dirudi. Naturaren errailetan, azken baten, Jaungoikoaren presentzia somatzen dau Teresak.

Bada naturaren edertasunean zerbait liluratzten dauana. Edurra oso atsegin jako! Txiki-txikitatik dautso maitasun berezia. “Txiki-txikia nintzela, zoragarri iruditzen zitzaidan haren zuritasuna; nire atseginik handienetarikoa elur-matazapean ibiltzea izan ohi zen. Nondik ote zetorkidan niri elurzaletasun hau?... Behar bada, ni *neguko loretxo* bat izanik, nire begiek ikusi zuten izadiaren lehenengo apaingarria haren mantu zuria izango zen...” (Esk A, 72^a).

1. 3 Ama hiltzen jako

Zelia Guerin aspalditik aurkitzen da gaixorik. Bularreko minbiziaz jota hilgo da 1877ko, abuztuaren 28an. Hunkigariak amaren azkenengo egunak eta heriotza (ik. Esk A, 12^a-12¹). Teresak lau urte eta zortzi hilabete besterik ez ditu. Eta bere ahiztak, 17 Mariak, Paulinak 16, Leonik 14 eta Zelinak 8. Ahizta bakotzak bere eragina izango dau Teresaren bizitzan. Ezin da Teresaren bizitza pentsau be egin, eurok barik.

Batez be Paulinaren eskua ikusten da. Umetatik Paulina hartuko dau bere eredutzat. Paulina izango da bere ideala. “Beti neure *eredutzat* izanik, ene Ama maite hori, zure antzeko izan nahi nuen gauza guztietan” idatziko dautso (ik. Esk A, 81^a). Horigaitik, ama hil ondoren, Paulina aukeratuko dau bere amatzat (ik. Esk A, 13^a), Paulina izango Teresaren bigarren “amatxo”.

Bere heldutasunean esango dautso: “Batzuetan neure buruari galdetzen diot nola jakin duzun ni hain *maitasun* handiz, hain *samurtasun* handiz hezitzen, egi-egia baita ez zenidala pasatzen uzten akats bat bera ere. Ez zenidan sekula ere haserre egiten arrazoi gabe, baina erabaki bat hartzen zenuenean ez zenuen *sekula ere* atzera egiten” (Esk A, 18¹). Gurasoen ondoren, Teresarengan eragin gehien izan dauan pertsona, bere ahizta Paulina izango da. “Oi, ene Ama maite, zuk irakatsi zenidan kantatzen!... Zurea izan zen hautzarotik liluratu ninduen ahotsa, eta orain zure antzekoa naizela esaten entzuteko

poza dut" (Esk A, 53¹). Pare bat hilabete hil aurretik, Teresak honeia ikusten dau bere ahizta "amatxo": "Oi ene Ama, zein ederra den dagokizun zatia!... Benetan zure duin da, gure familiako hautatu zaren horren duin; bere laguntaldearen buru ikusten den enara txiki horren antzera eta erreinu berrira gidatu behar dituen bidea airean taxutzen duenaren antzera, bidea erakusten diguzun horren duin" (TG 216). "Zeruan bakarrik jakingo duzu zer zaren niretzat... Niretzat lira bat, kantu bat zara..., musika-kutxa bat baino askozaz gehiago; tira! hori ezer esaten ez didazun uneetan ere bai" (KH 11.9.2). "Ez dago zu bezelako besterik lurtean. O!, zenbateraino maite zaitudan!" (KH 18.9.1).

Teresaren bihotzean amaren hutsunea ederto beteko dau Paulinak. Horretarako esku berezia dauko euki be Paulinak. Amaren antzik gehien daukona be bera dogu. Bai fisiko-ki ta bai arimaz, Zelia Guerin berbera dirudi. Teresaren ama aipatzean, Paulina beragaz bat eginda ikusi behar da. Paulina bai izango dala, bere amaren irudi bizia eta antzekoa. Ezin da larregi bapikatu amaren heriotzaren eragina Tereresarengan, Paulinagan bere ama berreskuratuten daualako. Gainera, ama hil eta bi hilabete r'erdira, Luis bere alabe-kin Lisieuxera doa bizitzen. Aldakuntza honek amaren heriotzaren zartada urrundu egiten dau bere bihotzetik. Ondo datorko bai berari eta bai beste etxeko guztiei be, amaren hutsunea ahaztuteko ta bihotzeko zauriak osatzeko.

Gogoratu daiguzan Teresaren berba honeek: "Nik ez nuen inolako nahigaberik izan Alençon uztean; haurrek gogoko dute aldatzea, eta pozik etorri nintzen Lisieux-era" (Esk A, 13¹).

1.4 Alde eta aurka

Teresaren gurasoak miresle asko eta haundiak izan dabez. Kronologiko aipatu ezke-ro, hona hemen euron izen eta liburuak. Baita ze orritan agertzen diran Luisen eta Zeliaren alabantzak be. Zerrenda honetan ez dira agertuko inportanteenak baino: A. Laveille, (*Sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus*, Lisieux 1925, 6-59), H. Petitot (*Sainte Thérèse de Lisieux*, Paris-Tournai-Rome 1925, 39-105), H. Gheon (*Sainte Thérèse de Lisieux*, Paris 1934, 28-63), M.M. Philippon (*Sainte Thérèse de Lisieux, une voi toute nouvelle*, Paris 1946, 18-21), E. J. Piat (*Historia de una familia*, Monte Carmelo, Burgos 1950), L. André Delastre (*Azélie Martin*, Lyon 1951), L. Chaigne (*Sainte Thérèse de Lisieux*, Paris 1953, 9-33), A. Latreille-R. Remond (*Histoire du Catholicisme en France, III, La Période Contemporaine*, Paris 1962, 445-446), D. Rops (*Histoire de l'Eglise, VI, L'Eglise des Révolutions*, Paris 1963, 865-866), R. Laurentin, (*Thérèse de Lisieux, mythes et réalités*, Paris 1973), Dr. R. Cadéot (*Louis Martin*, V.A.L., Paris 1985), H. U. von Balthasar, (*Teresa de Lisieux, Historia de una misión*, Tercera edición, Herder, Barcelona 1989, p. 117-145), Dr. R. Cadéot (*Zélie Martin*, V.A.L., Paris 1990).

Ez bakarrik laudorioak, baita egurra be emon dautsee Teresaren gurasoei. Beste guztien gainetik autore honeek nabarmentzen dira: Ubald d'Alençon (*Sainte Térèse -sic- de l'Enfant Jésus comme je la connais*, en *Estudis franciscans*, any XX, vol XXXVII, 1926, num. 220, 14-28, Barcelona-Sarriá), Pierre Mabilie (*Thérèse de Lisieux*, 1937 Paris), Louise André-Delastre, *Azélie Martin*, Lyon, 1951), J. F. Six (*La verdadera infan-*

cia de Teresa de Lisieux, Studium, 1976 Madrid), Ida Magli (*Santa Teresa di Lisieux. Una romantica ragazza dell'ottocento*, Rizzoli, 1984 Milan).

Teresaren gurasoen aldekoen eta kontrakoen zerrenda honetan, lan berbera agertzen da. Hau da, L. André-Delastreren "Azélie Martin" liburua. Autore honek zeruraino jasoten dau Teresaren ama. Aita, ostera, bigarren mailan, jarten dau. Zeliaren alde garra dario baina ez Luisen alde. Horigaitik ipini izan dot André-Delastre aldekoen eta kontrakoen zerrendan. Aldekoen tartean famatuena E. J. Piat eta H. U. von Balthasar ditugu. Kontrakoan artean, ostera, Ubald d'Alençon eta J. F. Six izango dira.

Eztabaida honek itzel lagundu izan dabe Zeliaren eta Luisen nortasuna eta ingurua ezagutzeko. Gaur egunean, eskerrak lan haundi eta sakon bira, Teresaren gurasoak hobeto ezagutzen ditugu. Bata, zortzi tomatan (Nouvelle Edition du Centenaire, Cerf-DDB, 1992 Paris) eta bestea, bi tomo mardul-marduletan (Canonizationis Servorum Dei, Ludovici Martin et Mariae Azeliae Guérin, Positio super virtutibus, Roma 1991) Teresaren gurasoak eta familia diz-diz agertzen jakuz historiaren aurrean. Ikaragarritzko lan haundi biok maki-na bat ahobero eta gibeljale ixilduko ditue. Zeliaren eta Luisen eragina oso positiboa eta sekulakoa izan da Teresaren bizitzan. Egiak, azkenean, beti be garaile urteten dau.

2


Bigarren zatia (Buissonnets-en, 1877-1888)

Bere emaztea hil ondoren, Luis bere alabakaz Lisieuxera aldatuko da bizitzen. Zer-gaitik hartzen dau Luisek erabaki haundi hori? Bere emazteak, hil zorian, olako boron-datea agertu dautsolako. Holan Lisieuxko bere koinatu-koinataren ondoan biziko da.

Bere alabentzako pre-minazko ikusten dau bere koinataren babesa. Alaba zaharrenak 17 urte besterik ez ditu. Ta Luisek ondo ezagutzen ditu Isidoro Guerinen emaztearen zuhurtasuna eta fintasuna. Bada-go beste arrazoi bat be. Luisek bere hiru alaba txikientzako ez dauko Alençonen mojen kolejiorik. Ta ez ditu



Teresaren osaba Isidor eta izeba Zelina



Teresa, 3 urte zituenetik 15 egin arte, bizi izan zen "Buissonnets" etxea

nahi Le Mansera bidaltzerik bere alaba nagusiek bezela. Alde batetik urrin geratzen dalako. Ta bestetik, bere koinata mojea be hilda egoalako.

Badago Lisieuxen, ostera, moja beneditarren kolejio famatu bat. Ta Luis bere alabentzako edozer sakrifizio egiteko gertu dago. Nahizta Alençonen laga behar bere ama alarguna eta bihotzeko adiskideak eta "Pavillon" bere dorretxe kutuna. Bere alaba nagusi bien guraria be horixe da. Luisek ez ditu egiten ez buru eta ez belarri barik. Familiko erabakiak alkarrizketaren bidez hartzen izan ditu eta aurrerantzean be holan egingo dau.

Ama hil ta laster, 1877.eko azaroaren erdirantza, aldatzen da Luisen familia Lisieuxera. "Buissonnets" deritxon txalet dotorean biziko da hamar urte pasau Teresa. Pozarren daukagu bertan. "Nire bizitza bare eta zoriontsu zihoan. *Buissonnets*-en neure burua maitasunez inguratua ikusteak haziarazten ninduen" (A Esk., 22^a).

Bere etxean egingo ditu Teresak bere lehenengo ikasketak. Zortzi urte t'erdirarte ez da joango eskolara. Bere ahizta nagusi biak, Maria eta Paulina, izango dira bere andereñoak. "Nire amabitxi maitea arduratu zen idazten irakasteaz, eta zu, ene Ama, gainerako guztiaz. Ez nuen erraztasun handirik ikasteko, baina bai oroimen ona. Dotrina eta batez ere kondaira santua nituen gogokoën; pozik ikasten nituen, baina gramatikak maiz isurazi zizkidan malkoak" (A Esk., 13^a).


Arratsaldetan aitagaz urtengo dau ibilaldia egiten. Ez dira etxeratuko Gure Jaunari ikustaldi bat egin barik. Ezta bidean aurkitzen dabean txiroei eskupekoa emon barik ere.

2. 1 Teresa gaixorik

Teresaren bizitzan ez dira krisialdiak faltako. Pare bat hilabete hil aurretik, dinotso komentuko nagusia dan Maria Gonzagarenari: "Ama maitea, ongi dakizu Jainko Onak aintzat izan duela nire arima proba mota askotatik pasaraztea; lurrean nagoenez gero asko sufritu dut" (C Esk., 4¹). Olako krisialdi gogor bat jasango dau bederatzi-hamar urtekin. Krisialdi horren azpian kausa ezberdinak daukaguz. Urte t'erdiren barruan, hainbat buruhauste sufrituko ditu. Esaterako, mojen ikastetxeko arazoak, Paulina bere ahiztea Karnengo Ordenan lekaime sartzea, ta batez be, Juana Arkorekin aurkitzea. Badira beste arazo batzuk be. Horra hor, lehenengo Komuninoa atzeratzea edo amamaren heriotza eta abar. Merezki dabe problema honeek zerbait aztertzea, Teresaren bizitza eta mezua nahi baditugu ulertu.

2.1a Teresa Abat-etxean

1881.eko urriaren 3an Beneditar mojen ikastetxera doa. Ordu-ra arte bere etxean egin ditu lehenengo ikasketak Mariaren eta Paulinaren ardurapean. Hain ondo preparauta dagoenez, bera baino hiru-lau urte zaharrago diran neskabilen gelan ipiniko dabe Teresa-txo. Edade horretarako diferentzia haundiegia. Zuzendaritzaren erru galanta izango da hau. Gaur egun ez litzake holakorik egingo. Nahizta gazteena izan, Teresa dogu eskolako lehena. Mojak lilurata dagoz beragaz. Ez bakarrik argiena, baita dotoreen janzten dana



Teresaren Abat-etxea edo eskola



Teresar 8 urte zituela

be, bera da. Gainera, beste bere eskolako lagunak ikastetxe barruan gau ta egun bizi dira. Teresa, ostera, arratsaldeko klaseak amaitu ondoren bere etxera bihurtzen da. Betikoak ditugu “barrukoen eta kanpokoan” arteko tirabirak.

Gauza honek bere lagun batzuen amorrua sutan jarten dabe. Ezin dabez neskato gangar horreek Teresaren “pribilegioak” iruntsi. Inbidiz erreta dagozanez, eurokandik makina bat diabrukeria jasan beharko ditu neskatxo errukarriak! Ta holantxe urte bat etorri eta urte bat joan. Ez gaitue harritzen Teresan berba honeek: “Maiz entzun izan dut esaten ikastetxean igarotako denbora dela onena eta bizitzako zorionsuena; baina niretzat ez zen hala izan. Han eman nituen bost urteak nire bizitzako tristenak izan ziren. Zelina maitea lagun izan ezik, ezin izango nuen iraun han hilabete ere, gaixotu gabe... *Lur hautatuan*, berarentzat beren-beregi egindakoan erro hauskorrak sartzen ohitu zuten loretxo gaixoa. Horregatik oso gogor egin zitzaion bere burua ikustea era guztitako loreen artean, askotan batere sustrai samurrik ez zutenen artean, eta *guztientzako zen lurrean* bizi izateko beharrezko zukua aurkitu beharrez!...” (A Esk., 22^a).

2.1b Paulina karmeldar

Bat-batean erabagiten dau Paulinak karmeldar izatea. Aurreko urtean, bere lagun kutun bat karmeldar izateko asmotan egoana, hiltzen da. Beronen alde meza santua entzuten dagoala, karmeldar lekaima nahi dau izan. Bere lagunak hartuko eban izen berbera hartuko dau Karmengo Ordenan, hau da, Jesusen Agnes. Bidean aurkitzen dituan oztopoak gairiditurik, hor daukagu Paulina 1882.ko urriaren 2an Lisieuxeko Karmengo komentuan.



*Teresaren ahtzpa Paulina
(ama Aines)*

Teresarentzat zartada galanta izango da. “Neure Paulina maitearen joatea apurka-apurka jakin izan banu, agian, ez nuen hainbesteko sufrimendurik izango; baina bat-batean jakinez, hori ezpata bat nire bihotzean jostea bezala izan zen” (A Esk., 25¹-26^a).

Paulina maitasunez saiatuko da Teresaren bihotzeko zauri hori osatzen. Ardura haundiz saiatuko da, Karmengo Ordenaren bizi modua azaltzen. Hortxe sortzen da Teresaren karmeldar izateko gogo bizia. “Nik Karmelera joan nahi nuen, ez *Paulinagatik*, *Jesusegatik* bakarrik baizik... Gauza asko pentsatu nituen, hitzez adierazi ezinakoak, baina nire ariman bake handia utzi zutenak” (A Esk., 26^a). Eremura joateko amesa, Karmengo Ordenan beteko dau. Segurantz honek, Teresaren bihotz barnean, poza eta trankiltasuna sortuko ditu. Baina bisitaldietan ezin dau berak nahi eban beste denpora Paulinagaz jardun. Bi-hiru minutu besterik ez daukoz bere bigarren “amatxogaz” egoteko. “Galdu dot Paulina!!!” behin baino gehiagotan pentsauko dau bere barruan.

2.1c Joana Ark-ekoarekin aurkitzea

Bederatzi - hamar urtekin Joana Ark-ekoaren bizitza irakusten dau. Izugarrizko eragina izango dau Juana de Arkoren bizitza paregabekoak Teresaren bihotz samur garbian. Maiteminduta geratuko da beragaz bizitza guztirako. Orleanseko neskatilak beste mundu barri baten aurrean jarten dau Teresa. “Frantziako emakume heroien balentriak irakurriz, bereziki JOANA ARK-eko *agurgarriarenak*, haiek imitatzeke irrikitan nengoen. Neure baitan haiek izan zuten gar bera, zerutar amasa bera somatzen nuela iruditzen zitzaidan” (A Esk., 32^a).

Bost hilabete hil aurretik, Teresak bere lagun kutun bateri idatzitako karta baten argi erakusten dau Joana Ark-ekoaren eragina bere bizitza laburrean: “Barre eragin dizut, ene neba maitea, “Nire armak” kantatzean; bada, berriro barre eragingo dizut, umetan gudu-zelaietan borrokatuko nuela amets egiten nuela esanez. Frantziako historia ikasten hasi nintzenean, Juana de Arco-ren balentriek entusiasmatu egiten ninduten, nire bihotzean Joana Ark-eko imitatzeke nahia eta kemena somatzen nuen, eta Jaunak ni ere gauza handietarako izango ninduela uste nuen. Ez nembilen oker, baina gudura dei egiten zidan zerutiko ahotsa entzun beharrean, neure arimaren sakonean ahots eztiago bat entzun nuen, beste ekintza gogoagari batzuetara eta konkista aintzatsuetara dei egiten zidan ahots indartsuagoa, birjinen senarrarena; eta Karmelgo bakartadean ulertu dut nire helburua ez zela errege hilkor bat koroaraztea, zeruko Erregea maitaraztea eta hari bihotzen erreinua menderaraztea baizik” (TG 224).



Teresa, Joana Ark-ekoa antzezten

Testu honetan makina bat negar eta pozaldiko esperientzia eder badira barnean. Baina ibilaldi luze horretan zenbat sufrimendu eta pena. Gure neskatxaren bidea ez da izango larrosaz eta liliz beterikoa.

“Aintzarako jaioa!”. Hortarako bide barriak bilatu beharrean daukagu. Holako buruhausterik ez dau inoiz orain arte izan! Ez da denpora asko, Paulinagaz klausurako karmeldar lekaime izatea erabaki izan dau. Ta orain “aintzarako jaioa” sentitzen dau bere burua, Joanaren antzera jokatu. Gauza miresgarriak eginez.

Neskatxaren bihotz barnea arnasarik hartu ezinda daukagu. Goitik behera zatituta. Alde batetik Karmengo Ordenan sartzeko deia sentitzen dau. Bestetik Joanaren egintza heroikoak beteteko deia. Zelan buztartu hain dei desberdin honeek?

Bidegurutze honetan haustuta geratzen jaku Teresa txikia. Ezin dau inondiko urtenbiderik aurkitu. Holako “stressaz” lehertuta dauko bihotz barnea. Horixe da Teresaren

gaixotasunaren kausarik importanteena. Ez da izango gaixotasuna kausa bakarra baina bai garrantzitsuena.

Halako baten, lurpe horretan, argi printzak dizdiz ari dirala, dirudi. Bere ahizta Paulina "amatxogandik" datorkoz argi horren lehen txirrintak. Posible da Karmengo Ordenaren arresietan "aintzazko koroia" lortzea. Gauza txikietan fin jokatu, "santa haundi" bat izan leiteke. Argi honen bidez, Teresaren barnea baretzen doa. "Garai hartan neure bizitzan izan dudarik eta handienetakotzat beti izan dudan grazia bat jaso nuen, adin hartan ez bainuen izaten *goi-argitasunik* orain bezala, orain haiek gainez eginik ikusten dudalarik neure burua. Nik uste nuen *aintzarako* jaiotzen nintzela, eta harako bide bila nabilela, Jainko Onak idatzi berri ditudan sentipenak jarri zizkidan gogoan. Nire aintza ez dela agertuko izaki hilkorren begietan ere ulertarazi zidan, *santa* handi bat izatean datzala aintza hori" (A Esk., 32^a).

Deabruari leporatzen dautso Teresak bere gaixotasunaren errua. Andra Mariaren irribarre goxoari, ordea, bere osasuna. Gauzak bestela dira. Ezta ezinezkoa, Joanaren antzera famatua izatea. Egundoko gloriaz eta omen lore usaintsuz lurinduko ditu inguruko bazterrak, gauza txikietan santa haundi bat izanez. Horixe da Tereren bihotza argitu dauan argi izpitxo.

Hamar urteko neskatxa honek amesten dauan santutasuna, dudarik bago, nahiko berekoa dogu orañdik. Famea eta ospea lortzeko bide bat besterik ez dala diradi momentuz santa izateko gurari bizi hori. Edade horretan ezin leiteke asko gehiago itxaron. Beste krisialdi gogor batzuk jasan beharko ditu Teresak bere bizitza parebakoan, santutasuna Jaungoikoagandik eta Jaungoikoagan dastatzeko. Oraingo, behintzat, bere lehenengo krisialdia gañditu dau. Ta Teresa txikiaren bihotz barnean, barriro ere, poza, zoriona eta irribarre goxoa jaioten hasiko dira.

2. 2 Lehenengo Jaunartzea eta Sendotza

Krisialdi latz hau garaitu ondoren, pare bat urte bete-beteak ezagutuko ditu Teresak. "Lainorik bako" urte baretsu honeetako gertakizunik aipagarriena, bere lehenengo Jaunartzea izango dau. Ez dira Eleizaren historian asko izango, hain ederto pretauta aldare-mai santura hurreratu diranak. Bere ahizta nagusi biak izango ditu bere katekista. Maria etxean eta Paulina komentutik saiatuko dira Teresa gertatzen. Ta ikastetxean Domin abadearen ardurapean. Teresak ez eban parroko katekesirik egin. Jaunartzea be ez dau egingo parrokan, kolejoan baino.

Behin eta barriro gogoratuko dautso Mariak: "Gero *santa* izatera iristeko bidea erakusten zidan, gauzarik txikienetan zintzoa izanez" (A Esk., 33^a). Paulinak astero-astero kartatxo baten bidez erakutsiko dautso Jesusen bidea. Baita emongo dautso koadernotxo bat be, sakrifizioak eta buru-ukapenak eta bihotz-jasotzeak seinalatuteko.

Jaunartzeko aurreko egunetan, Abat-etxean bertan egingo dau erretiroa bere lagun-txoekin. Abadearen irakatsiak gogoz entzun eta koadernoan laburpen bat idatziko dau. Egun horretan konturatuko da, gitxi dirala bera bezain maitatuak, amarik bako neskato-

en artean, batez be... "Maria eta Leonia egunero zetozkidan ikustera aitarekin, honek xeraz betetzen ninduelarik. Horregatik, ez nuen familiaren falta edo urruntzerik jasan, eta ez zen ezer etorri nire bakarraldiko zeru ederra iluntzera" (A Esk., 34^a).

Ez dauko berbarik, Jaunartzeko egun ederra azaltzeko. 1884. maiatzaren 8a. Egun horretako esperientzia sakona honela saiaturik da argitzen: "Gauza batzuek, haizetara ateratzean beren usain ona galdu ohi dute. *Arimaren pentsamendu* batzuk ezin daitezke lurreko hizkuntzez adieraz, beren barne eta zerutiar esanahia galdu gabe; garaileari eman-go zaion Harri zuri hau bezala da, bertan, hartzen duen *hark* izan ezik beste inork *ezagutzen* ez duen izen bat idatzirik dagoelarik'. Ai, bai gozoa izan zela Jesusen lehenengo musua nire arimari!...

Maitasunezko musua ezin zen, *maitatua ikusten nuen* neure burua, eta neuk ere esaten nuen: 'Maite zaiut, zuri eskaintzen dizut neure burua betiko'. Ez zen ez eskabiderik, ez borrokarik, ez sakrifiziorekin izan. Jesussek eta Teresa gaixoak antzinarik *begiratu zioten* elkarri eta ulertu zuten elkar... Egun hartakoa ez zen *begirada bat*, biek *bat egitea* baizik. Honezkero ez ziren bi. Teresa galdua zen, ur-tanta bat itsaso handiaren golkoan galtzen den bezala. Jesus bakarrik gelditzen zen, hura zen maisua, Erregea" (A Esk., 35^a).

Handik hilabetera, ekainaren 14an, hartuko dau Sendotzako sakramentua Hugonin gotzainaren eskutik. "Ai, zein zoriontsu zen nire arima! Apostoluen antzera, poz-pozik itxaroten nuen Espiritu Santuaren bisita... Zoriontsu egiten ninduen laster kristau oso-osoia izango nintzela pentsatzeak, eta batez ere, apezpikuak sakramentua ematean markatzen duen gurutze misteriozua neure bekokian betikotasun osoan izateak... Azkenez iritsi zen une zoriontsua; nik ez nuen somatu haize indartsurik Espiritu Santua pausatzen zenean, bere zurrumurrua Elias profetak Horeb mendian entzun zuen *haizetxo leun* hau baizik... Egun honetan *sufritzeko* sendotasuna hartu nuen, laster nire arimaren martiritza hasiko baitzen" (A Esk., 36^b).

2. 3 Teresaren gaztetxo-aldiko kezka

Ia hamabi urte t'erdi bete ditu Teresak. Frantzian ohitura ei denez, Teresa Jaunartze nagusia egiteko erretiroan daukagu. Domin abadearen hitzaldiak lurra jota izten dabe gure neskatila ule hori eta beturdin polita. Domin jauna bere betiko sermoiekin dabilgu gora ta behera: pekatu mortala, sakrilejiozko Jaunartzea, azken epaiketa gogorra, infernu gorria eta abar. Egia esan, Domin abadeak gai berberak ibili zituan Teresaren lehenengo Jaunartzeko eta Sendotzako erretiroan be. Baina orain, gai horreek, Teresa neska gaztetxo eginda dagoanez, beste musika bat jotzen dabe. Ezin dau holako Jaungoiko kontu-hartzaile eta epaile zorrotza iruntsi. Arima kezka betetik dauko. Ilunaldi espantagarri baten barruan aurkitzen da.

"Neure bigarren Jaunartzearen bakarraldian izan zen eskrupuluen gaixotasun ikaragarriak jota neure burua ikusi nuena... Martiritza honetatik igaro beharra dago ongi ulertzeko. Ezin esan daiteke nik zer sufritu dudan *urtebete t'erdian*... Neure pentsamendu eta ekintzarik xumeenak kezkabide bihurtzen zitzaizkidan" (A Esk., 39^a). Eskrupuloz josita daukagu goitik beera.


Pekatuaren erpetan ikusten dau bere burua. Ez dau hain itxaropentsu ikusten etorkizuna. Gauza txikietan fin jokatuz, santa haundi bat izateko asmoak pikutara doaz! Gauzak ez ditu, urte bi lehenago bezain, argi ikusten.

Eskerrak ahizta nagusiari, bestela Teresaren martiritza bildurgaria bihurtuko zan. Beste inok ez ekian bere kezken barri. Ezta Paulinak berak ere! Teresa neskatoren uste-tan, "nire begietarako *nire Paulina* maitea lurreko gauzetan zerikusirik izan behar ez zuen santa bat bihurtu zen; eta bere Teresa gaixoaren mixeriak, ezagutu izan balitu, harriturik utziko zuten eta hain maite izateko oztopo gertatuko zitzaizkion..." (A Esk., 41¹).

Edade honetako Teresaren eritzia oso inportantea dogu. Paulina moja danez, beste barik santa bat da. Eta santa danez ez ditu ulertuko bere barruko kezkek. Opinio hau guztiz aldatuko dau Teresak, moja egiten danean. Komentuan sartuaz batera ez da inortxo santa bihurtzen. Ta batez be konturatuko da, ez dagoala beste inor, santuak baino hobeto ulertzen dabenik, gizon-emakumeen mixeriak. Baina esperientzia hau izan aurretik, maki-na bat pauso emon beharko ditu gure neska gaztetxoak.

Krisialdi latz honetan, ahizta nagusia izango da Teresaren sostengu bakarra. "egiaz Maria baizik ez nuen nik; hura, nolabait esateko, ezinbestekoa zen niretzat. Nik ez nizkion hari baizik beste inori esaten neure eskrupuluak; eta hain esanekoa nintzen, non nire aitor-entzuleak ez baitzuen sekula jakin nire gaixotasun itsusiaren berri. Nik Mariak aitortzen uzten zidan bekatu-kopurua agertzen nion zehazki, bat ere ez gehiago (...). Mariak, bada, bazekien nire ariman zer gertatzen zen" (A Esk., 41¹).

Baina ez da pentsau behar, Teresa eguneroko hogeita lau ordutan kezkatu bizi danik. Baditu bere egun zoragarriak. Esaterako, Trouville itsasertzean igaroteko oporrak!



Trouville-ko etxea, Teresak marraztua

Konfesino bezperetan izaten ziran arazoak! Orduan bai, barneko penak eta urradurak...

Barruko kezka honeek sexualitatearen inguruan mogitzen dirala, dirudi. Bere ahiztak eta lehengusinak be jasango dabez hola-ko barruko kezkek. Aldi haretan gai horretaz, dotrina zorrotza erakusten zan eta pekatuan

jausteko arriskua urrean. Dana dala, handik geroago, bere lehengusina Maria Guerin horretaz kezkatuta dagoanian, Teresak bere esperientzia dakar gogora. Jakituriz beteriko kartak zuzenduko dautsoz. (ik. GT 92, 93).

2. 3a Leoni eta Maria moja doaz

Inori ezer esan barik, Leoni Alençonengo Klarisen komentuan sartzen da. Familia osoa bigarren ez Alençonera joandako ibilaldian gertatu zan. Etxeko danak aho-zabalik geratuko dira. Teresa bera be bai. Zer esanik ez, aita eta ahizta zaharrena. “Ni nahigabeturik nengoen haren *ustekabeko* sartzeaz, maite-maite bainuen eta irten aurretik ez bainuen hura besarkatzerik izan. (...). Aitari, guri bezala, oso harrigarri iruditu ziztaion hura, baina ez zuen ezer esaterik nahi, Maria hain nahigabetua ikusiz” (A Esk., 43¹).

Eta aste bete barru, Santa Teresaren egunian, Maria ahizta zaharrena be moja sartuko da, Lisieuxko Karmel komentuan. Hau bai, samina! Ez daki nogana jo bere barruko kezka arintzeko. Aita be lurra jota geratuko da Mariaren erabakiaz. Ia berbarik be ez dautso urtetan. Bera bai zan Buissonnets-eko etxekoandrea!

Isidoro Guerin harrituta geratuko da bere koinatuaren sinismenaz eta bihotz-haunditasunaz. Holako berbak dirautsoz bere lobeari: “Abrahan barri baten aurrean gagoz! Zelako sinismena! Zelako bihotz-haunditasuna! Gizon honen ondoan, tximino errukarri batzuk baino ez gara!” (*Manuscrits autobiographiques*, Cer/DDB, Nouvelle Edition du Centenaire, 1992, 124).



Teresaren ahizpa Leonia

Bitartean, Buissonnets erdi hutsik geratzen da. “Benetako bazar bat zen, deboziozko gauzak eta bitxiak, lorategi eta txoritokia... (...) Egia esan, teilatondo hau niretzat mundu bat zen, eta Maistre jaunak bezala, liburu bat idatz nezakeen izenburu honekin: ‘Ibilaldia neure gelaren inguruan’. Gogoko nuen ordu luzeak gela honetan bakarrik ematea, ikasteko eta nire begien aurrean agertzen zen ikuspegi zoragarriaz gogoetak egiteko...” (A Esk., 43¹-44^a).

Baina egoera barri honek ondoren onak be badakaz. Alde batetik, bere kontzientziako gauza zailtan, Teresak berak hartu beharko ditu erabakiak. Ta ez Mariak edo Paulinak! Beste alde batetik, bere etxeko hainbat zereginetan lagundu beharko dautso Zelinari. Ohea egiten, etxea garbitzen, eskatzekoa eta abar. Ordura arte ez eutsoen izten bere ahizta nagusiak holako beharrik egiten.

Gainera bere erara antolatuko dau etxeko beste gela bat be. Paulinaren gela izandakoa, gainera. Han ez zan bere gogoko ezer falta! “Benetako bazar bat zen, deboziozko gauzak eta bitxiak, lorategi eta txoritokia... (...) Egia esan, teilatondo hau niretzat mundu bat zen, eta Maistre jaunak bezala, liburu bat idatz nezakeen izenburu honekin: ‘Ibilaldia neure gelaren inguruan’. Gogoko nuen ordu luzeak gela honetan bakarrik ematea, ikasteko eta nire begien aurrean agertzen zen ikuspegi zoragarriaz gogoetak egiteko...” (A Esk., 42¹-43^a). Edade honetan ondo baino hobeto datorkiez gatzetxoei euren nortasunaz jabetzeko holako aukerak.

Bere barneko penak gaintzeko, bere zeruko neba-arreba txikiengana jotan dau. Berehalaxe datorko bere arimako bakea. Eta hor ikusten dau, ez bakarrik lurtean, baita



Teresa 13 urte zituela

zeruan be maitatua dala. Lurrean maite ebena argi dauko. Baina, zeruan? Hor dago kokka! Ta hori ikusten dauanian, Teresa barruko zimikoetatik osatuta daukagu. Maitasunak, azken baten, osatzen dau gure gaztetxoak! "lurrean maitatua banintzen zeruan ere banintzela" (A Esk., 44^a) sentitzea, barneko esperientzia ederra izango da Teresa gaztetxoarentzat.

2. 3b Erraldoi-karrera

Igarri barik, Teresa bere nortasunaren heldutasuna lortzen doa. Bera be konturatzen da: "Egia da 'neure egintzen gain nagusitasun oso-osoia izateko, haien jaun eta jabe eta ez haien menpeko izateko' grazia lortzeko gogoia nuela. (...). Ni inoren borondatea besterik ez nuen haur bat baizik ez nintzen" (A Esk., 43^a-43^l).

Aldatzen doa gure Teresa. Bere gaztetxo-aldiaz oso gogor egiten dauku berba: "Benetan, jasezineko egiten ninduen neure sentiberatasun gehiegizkoak. Honela, nahi ez dudala, maite nuen pertsonaren bati nahigabe txikiren bat ematen banion, neure buruari kontra egin eta *negarvari* eutsi beharrean, negar batean hasten nintzen Madalena bat bezala, horrek nire akatsa txikitu ordeztatu egiten zuelarik, eta gertatutakoaz asaskatzen hasten nintzenean, *negar egin nuelako* egiten nuen negar... Alferrik ziren argudio guztiak, eta ez nuen akats itsusi hau gainditzea lortzen. Ez dakit nola merezi nezakeen Karmelen sartzeko pentsamendua, oraindik *hautzaroko oihaletan* egonik" (A Esk., 44^l).

Inok ez dautso Teresari azaldu gaztetxo aldiko krisia. "Sentikortasun edo sentsibilitate larregi" hori, normala izaten da edade horretan. Baita gorabera haundiak eukitea be. Baina or, 13-14 urtekin beste gauza inportante bat be gertatzen ari da. Teresa geroago eta gehiago ulertzen doa, bere problematxoak alde batera itzi eta besteen serbitzuan bere burua jarrean dagoala bere santutasun bidea. Batez be Jaunaren eta Eleizaren serbitzuan. Momentuz pekatari haundiengan jarriko ditu bere gogo eta asmoak. Horra or Pranziniren kasua. "*Arimen* arrantzale egin ninduen. Bekatarien konbertsioan lan egiteko gogo bizia izan nuen, hain biziki inoiz izan ez dudun bezalako gogoia... Hitz batean, neure bihotzean *karitatea* somatu nuen, neure buruaz ahaztu beharra besteek poza ematearen. Harrezkero zorientsu izan nintzen!..." (A Esk., 45^l).

Teresaren gaztetxo aldiko krisia barruko kezkekin nahastuta daukagunez, minberatsua egingo jako. Barruko kezka horreek zeruan be maitatua dala jakiteak uxatzen

dautsoz. Ta gaztetxo aldiko krisia, Jaunaren eta besteen serbitzuan bihotza jarriaz, gaindituko dau. "Iruditzen zitzaidan Samaritar emakumeari bezala esaten entzuten niola Jesusi: "Emaidazu edaten!" Benetako maitasun-trukea zen: Arimek nik ematen nien Jesusen *odola*, eta Jesusi arima hauexek eskaintzen nizkion *jainko-ihintzez* hezeturik, eta honela egarria kentzen niola neritzon. Eta nik zenbat eta gehiago eman *edaten*, hainbat biziagoa egiten zen nire arimatxo gaixoaren egarria; eta hark bere maitasunaren edaririk atsegingarriena bezala ematen zidan egarri gartsu hau...

Denbora gutxian jakin zuen Jainko Onak ni ateratzen, nola irten ez nekiela, bira eta bira nembilen biribil estu hartatik. Eginarazi zidan bidea ikusita, handia da nire eskerrona. Baina aitortu beharra dut urratsik nagusiena emanik bazegoen ere, oraindik gauza asko neuzkala uzteko" (A Esk., 46¹).

Eboluzio itzela Teresaren bihotz barnean gertatu dana! Bihotza zabalik dauko Jaunaren eta lagun hurkoaren onerako. Santutasuna ez da bere fama lortzeko bide bat. Santutasunak Jaunarentzako koro edo bat bilatzea dirudi. Santutasunari, momentu honetan, opari edo baten eskeintza deritxo. Jaunarentzat garaikurrik baliotsuena lez ikusten dau Teresak bere santutasuna. Hori bai, inondik inora zimeldu bako lorekin egindako loraxorta oparia nahi dautso Jaunari eskeini!

1886ko Gabon gabeen gertatu zan ezusteak erakutsiko dautso Teresari bere bihotz barnean izandako eboluzio galanta. Barruko aldakuntza hori ez da ezustearen ondorioa, aldakuntza horren erradiografia besterik ez da. Erradiografia horretan ikusten dau bere bizitzan emondako pauso garrantzitsua Jaunaren eta arimen alde. Ez da gertatu gau santu horretan holako "konbersiorik", nahizta Teresak horrela pentsatu. Konturatu besterik ez da egiten bere bizitzako heldutasunaz eta eboluzio ederraz. Ez darabilgu bere buruari begira. Argi ikusten dau bere bizitza Jaunaren eta arimen serbitzuan igaro behar dauala. Hor datza Teresaren erraldoi-karrera paregabekoa. Gau santu horretako ezusteak bere barneko eboluzioa begien aurrean ipinten dautso. Urte bat lehenago, ez eutsen zirkinik be egingo! Beste horrenbeste gertatu jakon Domin abadearen hitzaldiekin be. Sermoi eta gai bardinek ez eutsen olako kezkarik sortuko Lehenengo Gure jaunartzean, bai osterera, handik bi urtera, Jaunartze Nagusian. Barneko egoerak oihartzun diferenteak izaten dabez antzeko gertakizunen aurrean. Horixe da gertatuko jakona Teresari 1886ko Gabon gauan.

2. 4 Karmelera begira!

Teresak bere santutasuna lortzeko biderik egokiena Karmengo Ordenan ikusten dau. Aspalditik dauko asmo hori. Momentu honetan, albat arinen nahi dau komentuan sartu. Baina alde guztietatik oztipoa besterik ez dau aurkitzen bidean. Bere aita eta bere ahizta Paulina izan ezik, mundu guztia dauko aurka. Baina Teresa, behin erabaki bat hartu ondoren, ez da atzera egiten dauan neska txatxala bat. "Jainkoaren deia hain berantezina izanik, *sugar arietik igaro* behar banu ere, hala egingo nukkeen Jesusekin leial izatearren" (A Esk., 49^a).



Teresa 15 urte zituela

murgildurik uzten zuten nire arima...(...) Pasarte batzuk kopiatu nituen (...). Etengabe errepikatzen nituen nik neure bihotza kiskali zuten maitasun-hitzak..." (A Esk., 47¹).

Astero lau bider Gure Jauna hartzeko baimena lortuko dau. Garai hartan, ez egoan gaur bezelako erreztasunik. Pozaren pozez, negar-malko gozoak eriozala daukagu Teresa. Baekian, bai, "Jesus ez da *egunero* jaisten zerutik urrezko kopoian gelditzeko, lehengoa baino askoz ere maiteago duen beste zeru bat aurkitzeko baizik: gure arimako zerua, bere

Proba gorriak jasan beharko ditu komentuan sartzeko. Trabak nonahi. Aipatzekotan, horra hor, bere ahizta nagusiaren eta Isidoro osabearen ezetza. Eragozpenik gogorrena, Delatroette jaunarengandik datorko. Eleizbarrutiko mojen arduradun nagusia denez, ezin aurrera jo bere baimen barik. "Guztietan gaindiezinena" esango dau Teresak (A Esk., 52^a). Gotzainaren ordezkoa baino ez zanez Delatroette jauna, Teresak zuzen-zuzenean Gotzainarengana joko dau bere aitagaz. Bayeuxko Hugonin gotzainak maitekor hartuko ditu. Baina erantzun garbirik ez dautso emongo. Bere ordezkariak alkar-ikuste bat euki behar ebala eta bialduko dautsola erantzuna. "Ezin nezakeen entzun nik nahigabe handiagoa emango zidanik, gure Aita nagusiaren ezezko zehatza banekien-eta" (A Esk., 54¹ jar.). "Ai, bai ondo kostata egin nuela bidaia hau! Jainko Onak grazia bereziberezia eman behar izan zidan nik neure lotsa handia gaindi nezan... (...). Jesusenganako maitasuna izan zen soilik zailtasun hauek eta gero etorriko zirenak gainditzeko ahalbidea emango zidana" (A Esk., 53¹).

Bitartean beste esperientzia eder batzuk be izango ditu. Charles Arminjonen liburuak aparteko eragina izango dau Teresaren fede heziketan. "Mundu honen azkenaz eta geroko bizitzaren misterioez" *deritxon* liburu horrek kristau fedearen gai nagusiak aztertzen ditu. Hona hemen Teresaren berbak: "Irakurtze hau ere neure bizitzan hartu dudan *grazia* handietariko bat izan da. Liburua neure ikasteko gelako leiho ondoan irakurri nuen, eta izan dudan barnezirrara gozoegia da nik adierazi ahal izateko... Erlijioko egia handi guztiek, betikotasuneko misterioek lur honetakoa ez den zorion batean

irudira egina, Hirutasun gurgarriaren eliza bizia!” (A Esk., 48¹).

Hain asko maite dau Jesus, ez daki zer asmatu bere omenez. Hurrengo testu honek argi itziko dauskuz Teresaren maitasunaren mugarik eza. Baita Jaungoikoak ez dauala geure zoriona besterik gura be. Azpimarratzekoak ziurtasunez beteriko sentimentu ederrok: “Gau batean, Jesusi nola adierazi ez nekien maite nuela eta bera alde guztietan maitatua eta goretsia izatea biziki nahi nuela, eta saminez pentsatzen nuen infernutik ez zuela hark sekula hartuko maitasun-egintza bat bera ere. Orduan, Jainko Ona poztearren esan nion, gogo onez utziko nuela neure burua han hondoratzen, biratoki honetan betiko *maitatua* izan zedin... Nik banekien honek ez zuela goretsi ahal izango, gure zoriona baizik ez baitu nahi, baina norbait maite dugunean makina bat zorakeria esan beharra izaten dugu” (A Esk., 52^a-52¹).



Teresaren ahizpa Zelina

Ezin daikegu aipatu barik itzi, garai hartako, beste esperientzia polit hau be. Ume-txoen arimea hurretik ikusteko poza. Ez etxean eta ez kolejoian ez eban izan Teresak bera baino ume txikiagoekin bizitzeko zorionik. Hiru seme-alabatxo dituan ama gazte bat gaxorik dago. Ta bi alabatxo txikiak, Buissonnetsen hartuko dabez. Hori baitzan Luisen desioa eta Zelinaren eta Teresaren ametsa. Esperientzia honen ondorena benetan galanta: “Errugabeko arima hauek hurbiletik ikusiz, ulertu nuen zein zorigaitz handia den arimak esnatzen direnetik ongi ez hezitzea, bertutearen nahiz bekatuaren inpresioa bertan utz daitkeen argizari bigunaren antzekoak direnean... Jesusek ebanjelioan esan zuenaz jabetu nintzen: Txiki hauetarikoren bat galbidean jartzen duenak hobe luke itsas hondora amilduko balute. Ai! Zenbat arima iritsiko liratekeen santutasunera, ongi zuzenduak balira!... (...). Gogoratzen naiz neure txoritxoaren artean zoragarri kantatzen zuen kanario bat nuela; *ama* bezalako arduraz zaintzen nuen txoka txiki bat ere banuen, bere askatasunaren alaitasuna dastatu ahal izan baino lehen hartu nuelarik. Giltzapeko txiki dohakabe honek ez zuen kantatzen irakasteko gurasorik. Baina bere lagunari, kanarioari, goizetik gauera txorrotzio alaiak egiten entzunik, haren antzera egin nahi izan zuen... *Txoka* batentzat lan zaila, horrela asko kosta zitzaion bere hots leuna bere musikako maisuaren hots zoliaren tonura egokitzea. Polita zen gaixoa ahaleginak egiten ikustea. Baina azkenean lortu zuen ondorio ona, haren kantua leunago mantendurik ere, kanarioaren berdin-berdina izatera etorri zen” (A Esk., 53^a).

2. 5 Erromako osterea

Teresaren burua eta bihotza eta asmoak Karmengo Ordenan dagoz. Bere buruhaustea karmeldar lekaike izatea! Zergatik hain gazterik horrenbeste larrialdi eta burukomin? Teresak santa haundi bat nahi dau izan Jaunaren eta arimen alde zintzo jokatzuz. Ta horretarako lekurik aproposena, bere ustetan, Ama Santa Teresaren Ordena. Baina eragozpenak gainditu behar. Oztopotik haundiena amabost urte besterik ez eukitea! Ta Erromara abiatzen da Aita Santu berberari baimena eskatzera. Egia esan, Teresa eta Zelina euron aitagaz Erromara joateko erabakia hartuta cuken Coutancesko Germain gotzainak antolatutako peleginazioan. Karmengo Ordenan sartzeko baimena euki izan balcu be, Teresa eta bere etxeokak Erromara joan-etorria egingo oben. Nabizta, une honetan, Teresaren asmorik nagusiena, Aita Santuagandik karmeldar izateko baietza lortzea izan.

Ehun eta larogeita hamazazpi erromesek hartzen dabe parte. Eta eurotatik hirurogeita hamabost abade. Eta besteak, gehienak behintzat, haundikiak. Aita Santuaren abadetza-ko urrezko ezteguak ospatzeko asmotan edo. Teresarentzat erromesaldi oso aberasgarria izango da. "Ai, hura zen bidaia hura!... Berak bakarrik ikasketa-urte luzeek baino gehiago irakatsi zidan. Iheskor den oro huskeria dela erakutsi zidan, eta eguzpian guztia dela bihotz-nahigabea... Hala ere, gauza oso ederrak ikusi nituen. Artearen eta erlijioaren gauza miresgarri guztiak begietsi. Batez ere apostolu santuek zapaldu zuten lur berbera zapaldu nuen, martirien odolak bustitako lurra. Eta nire arima hazi egin zen gauza santuen ukituaz" (A Esk., 55¹). Erromako bidaian hainbat esperientzi izango ditu. Abadien makaltasunaz konturatzen da.

2. 5a Peregrinaziozko esperientzia batzuk

Joan etorri honetan, Teresak esperientzia asko izango ditu. "Laster egin genuen eza-gupidea gainerako erromesen artean. Ni hain lotsorra, ia hitz egiten ere ausartzen ez nintzena, akats nekagarri honetatik erabat askaturik aurkitu nintzen. Neuk ere uste ez nuela, zabal-zabal hitz egiten nuen andre handikiekin, apaizekin, eta baita Coutances-ko apezpi-kuarekin ere. Beti ingurumari hartan bizi izan nintzela neritzon. Guztien artean maitatuak ginela uste dut, eta aita harro agertzen zen bere bi alabekin. Baina hura gurekin harro bazegoen, gu ez gutxiago berarekin, erromes-talde osoan ez baitzegoen nire errege maitea bezain jaun dotore eta adeitsurik" (A Esk., 57^a-57¹).

Merezi dau Teresaren ostera honetako esperientzia batzuk aipatzea. Lehenengo eta behin, haundikien ergelkeria: "Mundu haundian sekula bizi gabe, handi-mandien artean ikusi genuen geure burua Zelina eta biok, erromes-taldea ia soilik horrelako jendez osatua baitzen. Ai! Liluratu beharrean, titulu haiek guztiak eta kopta haiek ke-laino iruditzen zitzaizkigun... Urrunetik, hark noizbait begiak itsutuko zizkigun pixka bat, baina hurbiletik 'distira duen guztia ez dela urrea' ikusi nuen, (...). Benetako handitasuna *ariman* datzala ulertu nuen eta ez *izenean* (...). Zeruan jakingo dugu, ba, zeintzuk diren gure handiki-tituluak. Orduan bakoitzak merezi duen goraldia jasoko du Jainkoagandik; eta lurtean Jesusen maitasunagatik pobreena, ahaztuena izan nahi dezana, hura izango da lehenengo, *nobleena* eta *aberatsena!*" (A Esk., 55¹-56^a).

Berehalaxe konturatzen da Teresa gaztea, zorionaren sustraia ez dagoala tituluak eta gauzak eukitean, norberaren barneko izatean baino. "Bidaia osoan zehar printze-hoteletan izan genuen ostatu. Sekula ez nuen neure burua ikusi hainbesteko luxuz inguratirik. Aberastasunak ez dakarrela zoriona esateko unea da benetan hau, askoz ere pozago egongo bainintzen lastozko aterpe batean Karmelerako itxaropenez, urrezko moldura, marmol zurizko eskailera, zetazko tapiz artean bihotzean samintasuna dudala baino... Ai! Ongi ulertu dut; zoriona ez datza inguruan ditugun gauzetan; hura arimaren muin-muinean datza; berdin izan gintezke haren jabe kartzelan nahiz jauregian" (A Esk., 65^a).

Beste esperientzia eraginkor bat, abadeen makaltasuna. Ez dira, ez, aingeruak! Ordurarte euron ministeritzan, Kristoren ordezkari, ikusten ebazan bakarrik. Ibilaldi honetan, hilabete inguru, eurokin bizi behar dau, bai trenean, bai hoteletan eta bai beste hainbat tokitan. Solasaldietan gordinkeriaz beteriko berbetea darabile. Leconte jauna, 29 urteko Katedraleko parroko gaztea be, Zelinaren atzetik itsu-itsuan ikusten dau. Eta beste holako hainbat kasu.

Teresa gazteak, gauza guztiak berez positiboki ikusteko jaioa danez, abadeen alde bere bizitza eskeinduko dau. Orduntxe ulertuko dau Ama Teresaren mojen helburu nagusia. "Bekatarien alde otoitz egiteak lilurutzen ninduen; baina kristala baino gardenagotzat nituen apaizen arimen alde otoitz egitea harrigarri iruditzen zitzaidan!... Ai! *Italian* ulertu nuen *neure bokazioa*. Ez zen urrutiegi joatea, hain ezagutza mesedegarria izanik... (...) Oi, Ama maite, zein ederra den arimentzako gatza *kontserbatzea* helburutzat duen bokazioa! Hauxe da Karmelgo bokazioa, gure otoitz eta sakrifizioen helburu bakarra *apostoluen apostolu* izatea baita, haien alde otoitz eginez, haiek euren hitzez eta batez ere egite onez arimak ebanjelizatzen dituzten bitartean..." (A Esk., 56^a).

Baita Erromako osterean konturatuko da Teresa emakumeen marjinazinoaz be. Euron gizarteko egoera larriaz egiten dausku berba. Teresaren gogoetan, emakumeak gizonetako baino zintzoagoak eta ausartiagoak dira fede mailan. Ta emakumeen zoria Jesusena dirudi. "Ai, emakume gaixoak! Zein mesprezatuak diren!... Hala ere haietatik Jainkoa askoz ere gehiagok maite dute gizonen artefik baino, eta gure Jaunaren nekaldian emakumeek adore handiagoa izan zuten apostoluek baino, soldaduen irainei aurre egitrik, Jesusen Aurpegi gurgarria txukatzeraz ausartu baitziren... Ziur aski Jaunak nahi izan du lurtean mesprezua haien ondare izan dadin, bere buruarentzat horixe hautatu zuelako... Zeruan jakingo du erakusten argi eta garbi bere pentsamenduak ez direla gizonenak bezalakoak, orduan *azkenak lehenen* izango baitira" (A Esk., 66^a).

Azpimarratu behar da Teresaren beste esperientzia eder hau be: Erromako osterean jasotako gorabehera zoritarrekoetan ez ditu galtzen barne-barneko bakea ta ditxa. Ezta Aita Santuaren aurrean izan dauan frakasuaz be. "Ai, nire bidaia amaitua zen jadanik; ez zuen inolako erakargarritasunik nire begietan, haren helburu nagusiak huts egin baitzuen" (A Esk., 64^a). Ez behar honetatik aurrera, nahizta inondiko momentu larrienak jasan, ez dau barruko bake hori galduko. Bere bizitzako ezaugarri berezi bat horixe izango da. Azken baten, esperientzia hori beste erabaki honen ondorena baino ez da. Jaungoikoari gorabehera guztietan Jaungoiko izaten itzi. Esperientzia sakon eta eraginkor hau azaltzeko umetxoak eurak be ulertzeko sinbolo hunkiorrak dabiltz. Entzun daiogun berari: "Orain dela denbora pixka batez gero, Jesus Haurri eskaini nion neure burua haren *jos-*

*tailutxo*a izateko. Haurrek, ukitzen ausartu gabe, begiratu besterik egiten ez dioten jostailu garestitzat ez nintzala har esan nion, batere baliorik ez duen pilotatxotzat baizik; lurrera bota, ostikoaz jo, *zulatu*, bazter batean utzi, nahiz, hala nahi izanez gero, bihotzaren kontra estutzen den pilotatxotzat. Hitz batez, nik Jesustxok *ongi pasatzea* nahi nuen, hari poz ematea, haren *haur-mainerako* eskaini neure burua... Entzun zuen hark nire otoitza...

Erroman Jesusek *zulatu egin* zuen bere jostailutxoa. Barruan zer zeukan ikusi nahi zuen; eta barrua ikusi ondoren, bere aurkikuntzarekin pozik, lurrera erortzen utzi zuen bere pilotatxoa, eta loak hartu... Zer egin zuen bere lo gozo bitartean, eta zer gertatu zen bertan behera utzitako pilotatxoaekin?... Jesusek ametsetan egin zuen oraindik bere jostailuaekin *jolasten* ari zela, aldizka utzi eta hartu eginez. Eta gero biraka urrutira jaurti ondoren, bere bihotzaren kontra estutzen zuela, harrezkero sekula bere eskutxotik aldentzen utzi gabe" (A Esk., 64^a).



Leon XIII. Aita Santua

HonexEEK izango dira, seguruenik, Teresak Erromako joan-etorrian ezagutu ebazan esperientzia ederrenak eta eraginkorrenak. Beste esperientzia asko be izango ditu, Teresa ez da, bere bizitza guztian, inoiz ere ahaztuko Italiaren xarmantasunaz. Eta han jasotako gorabeherekin. Joan-etorri horretan, urte askotan baino gehiago ikasi izan eban (ik. A Esk., 67^a).

2. 6 Azken txanpa

Etxera itzulita, beste lau hilabete igaro beharko ditu, komentuan sartu orduko. Gozainaren baimena 1887.ko Gabonak pasau ondoren helduko jako. Ta gainera, Lisieuxko lekaiame karmeldarren nagusiai ez jako gogoko Teresari komentuko ateak zabaltzerik, garizuma osterarte. "Proba honek izaera berezia izan zuen niretzat. Munduarekiko nire *loturak hautsirik* ikusten nituen; eta oraingoan kutxa santua zen uso gaixoari sarrera ukatzen ziona" (A Esk., 68^a).

Ezbehar honen aurrean, izango dau bizitza nasaiago bat eroateko tentaldia. Berehalaxe erabakitzen dau bizimodu zintzoagoa eta mortifikatuagoa egitea. Ez dau nahi bere

“erraldi karreran” erretenetan porrot eginda geratu. Baina bere mortifikazioak ez dira izango beste mundukoak. Ez da hori Teresaren karisma. “Mortifikatua diodanean, ez da penitentziak egiten nituela sinestarazteko. Ai, *sekula ez nuen horrelakorik egin!* Txiki-txikitarik era guztitako mortifikazioak egin ohi zituzten arima eder haien antzeko izatetik urrun, nik ez nuen haien erakarpenik sentitzen. Beharbada, nire moteltasunagatik izango zen, Zelinak bezala nik ere hainbeste asmakizun bila nitzakeelako neure buruari sufriarazteko. Hori egin beharrean, bigunegi tratatzen utzi nuen neure burua eta penitentzia egin beharrik ez duen txoritxo bat bezala gizentzen... Nire sakrifizioa beti gaina hartzera zegoen nire borondatea haustea zen; erantzun gabe isiltzea; dohainik zerbitzu txikiak egitea; eserita nengoela bizkarra atzealdearen gainean ez ezartzea, etab., etab... *Gauzatxo ezerez hauek eginez prestatu nintzen Jesusen emaztegai izateko, eta ezin nezake esan zenbat oroitzapen gozo utzi zizkidan itxarote honek*” (A Esk., 68¹).


3

Hirugarren zatia (Karmengo Ordenan, 1888-1897)

Eragozpen guztiak gainditurik, 1888.ko udabarrian, 15 urtekin sartzen da Teresa Lisieuxko lekainme karmeldarren komentuan. Apirilaren 9an, goizetik meza santua entzun ondoren, komentuko ate aurrean, Teresa izan ezik, familia osoa negar malkoz eta zotinka dago. Etxeko eta senideak besarkatu ondoren, bere aitaren aurrean belaunikaturik, bedeinkapen eske daukagu hamabost urteko eta 1.62 m neskatilla argia.

Zazpi urte geroago, honela gogoratuko dausku Teresak hunkigarritzko momentu hori: “Malkorik isuri ez zuen bakarra neu nintzen, baina bihotzaren taupadak *hain biziki* sentitu nituen, non, komentuko aterantz hurbiltzeko esan zigutenean ezinezkoa iruditzen baitzitzaidan pausorik ematea. Harantz nindoan, nire bihotzaren taupada gogorregatik hülko ez ote nintzen neure buruari galdetuz... Ai, hura bai trantzea! Hortik pasatu beharra dago zer den jakiteko... Nire bihotz-zirrara ez zen kanporantz agertu. Neure familia maiteko pertsona guztiak besarkatu ondoren, neure aita berdingabearen aurrean belauniko jarri nintzen, bere bedeinkazioa eskatuz. Bedeinkazioa emateko *bera ere* belauniko jarri zen, eta negar artean bedeinkatu ninduen... Aingeruei iribarrea sortu behar zien ikuskizuna zen: gizon zahar hura, oraindik bizitzako udaberrian zen bere alaba Jaunari eskaintzen!...” (A Esk., 69⁴).

Santa haundi bat izateko beste asmorik ez daroa Teresak komentura. Pauso irmoa berea. “Hemen nago betiko, betiko” errepikatuko dau hasieratik. Nahizta bere “lehen urratsetan arantzak arrosak baino gehiago izan direna” (A Esk., 69¹) Kurutzea eta sufrimentua ez jakoz faltako Karmel Mendian. Horixe izango da bere bihotz barneko bidea komentuan. “Zenbat pertsona geldituko diren harriturik nirea nondik nora bideratua izan zen ikusirik!” esango dausku berak (A Esk., 70).



Listeux-ko Karmel

Sufrimentu horreek hiru lekutatik datorkoz bereziki, Bata, komentuko mojangandik. Bestea, komentuko izpiritualitatea jansenismoz kutsaturik dago. Ta hirugarrena, bere aitaren gaixoaldia. Mota desbardineko sufrimentu honeek ez datoz bata bestearen atzetik. Danak batera, anakz gora, jarriko dabez Teresak buruan daukazan santutasunerako eske-mak. Krisialdi larri honetan be, Teresak aurkituko dau urtenbidea. Baina ez itzel sufridu barik. Pare bat urte beharko ditu igaro, argi izpiak disdiz egin orduko.

3. 1a Komentuko mojak

Teresaren komentuan 26 moja karmeldar dagoz. Hamabost urteko lekaimagaiak barrutik ezagutzeko aukera dauko. Berrogeita hamalau urteko moja bat da nagusi. Bere izena, Maria Gonzaga. Emakume burutsua ta kanpoko jendeaz hartu-emon haundia daukona. Aldaera galantak ditu. Batean goian eta bestean lurra jota. Badaki beraganatzen moja batzuk bereaz aurrera egiteko. Nagusi izatea lartxo gustatzen jako ta txarto pasetan eban bere mandatua amaitzen jakonian. Nagusi izatea ez eban ikusten besteen serbitzurako, bere serbitzurako baino.

Ama Maria Gonzagarena “oso gogorra” (A Esk., 70¹) izango da Teresa gazteaz. Hori bai, kanpoko jendearen aurrean, Teresari buruz ondo baino hobeto egiten eban berba. Bitsetan jarten zan Teresaren bertuteak goratzen. Baina komentu barruan, ez dautso ezer parkatuko. “Ezin nuen aurkitu hura lurrari mun egin gabe. Gauza bera gertatzen zen harekin nituen solasaldi izpiritual bakantetan ere” (A Esk., 70¹) Karmeldarren artean, faltaren bat nagusiak jakinazoten dautson lekaimiak belaunikatu ta lurrari mun emon behar dautso. Askotan, Maria Gonzagak egiten eban hori, Teresaren ahiztak lotsatzeko. Batez be, Paulina. Baekian, bai, Maria Gonzagak min emoten. “sufriarazten dizun edozerk zauritzen bainau ni ere!” esango dautso Paulinari (TG 114) “Ahizta bakotxaren martiritza guztiena egiten dala” dinosku arrazoiz Teresak (C Esk., 9^d).



Ama Maria Gonzagarena

Nobiziaduko Maria Aingeruena maistrez ezin dau bere barrua hustu. “Gure maistra *benetako santa* bat zen, antzinako karmeldar peto-peto haietari-koa. Nik egun osoa igarotzen nuen haren ondoan, lanean irakasten baitzidan. Nirekiko haren ontasunak ez zuen neurririk, eta hala ere nire arima ez zen zabaltzen... Askokostatzen zitzaidan arimako komunikazio berarekin. Ez nengoen neure arimaz hitz egitera ohituta; nik ez nekien nola adierazi han gertatzen zena” (A Esk., 70¹).

Badira Lisieuxko komentuan moja batzuk Teresa zirikatzen gozatzen dabenak. Gauzak ondo egiten dituanean, ondo egiten ditualako. Eta txarto egiten dituanean, txarto egiten ditualako. Eztenkada zorrotzenak Ahizta San Bizente Paulegandik datorkoz. “Sorbonako Doktore” izengoitiaz deitzen dautsoe komentuko mojak. Edozer arazotan, azken berbea emotea atsegin jakolako. Bere komentuko eskubeharra, mojen abarketak egitea izango da. Ez dautso inoiz ere sinpatirik izango Teresari esku lanetarako holako trebetasunik ikusten ez dautsolako. Komunitatean bai Teresak eta bai bere ahiztak, artista fama daukee. Horigaitik, Ahizta Amadak ez dau nahiko Zelina komentuan sartzerik. Bere argumentu bakarra hau izango da: “Komentuak ez dauko artisten preminarik, ortulauen eta erizainen eta jostunena baino”

Teresaren akatsik nabariena, otoitzaldian eta meza ondoren ezkerak emokeran loak hartzea izango da (ik. A Esk., 75¹; 80^a). Beste hutsegite batzuk Orduen Liturgian egiten ditu. Eguneko salmoaren orde, hurrengo eguneko hasi. Koru erdira urten behar danian,

bere jearlekuan geratu. Eta beste holakoxe huts txikiak. Orduen Liturgiak makina bat buruko min emongo dautsoz gure lekaiame gaztetxoari. Begibistako faltak diranez, aurpegi- gira botako dautsoez bai honek eta bai harek. Sarritan inbidiz eta amorruz.

Baegoan, bai, Lisieuxko komentuan, Teresagaz gogor izateko isileko agindu bat, "lekaimeen jostalu" bihurtu ez dadin. Asmoa ez zan txarra, baina moja asko lar "pasatu-ko" dira euren zirrikada garratzekin.

Irribarre goxo eta apala izango da Teresaren erantzuna mojen eztenkadei. Isilik lurrari mun emon eta mundu guztiari obeditzen ahalegindu. Ez bakarrik nagusiari, baita komentuko azkenengo lekaimcari be. Batez ere, garratzasuncz erreta dagozanei. Ez da ibiliko bere buruari bueltak emoten, moja horrek arrazoirik edo eskubiderik daukan agin- durik emoteko. Ta holantxe, igarri barik, irabaziko ditu moja errukarri honeen bihotz zau- rituak. Teresak bere burua ikusten dau kanaberatxo bigun baten antzera hara eta hona mojen eskuetan bihurturik (ik. TG 49). Edo pelota txikitxo baten antzera mojen orratzez guztiz zulaturik. Badinotso bere ahiztari: "Zuloz beterik dago eta zulo handi bakarra izan- da baino gehiago sufritzen du pilotatxoak!... (...). Pilota zizatzen duena lagun kutuna denean, sufrimendua ez da gozotasun baizik bilakatzen, *hain da leuna* haren esku!... Baina gizakiak!... Nire inguruan daudenak onak dira, baina badago hauengan zerbait gogait eragiten didana!... Ezin dizut zer den azaldu" (TG 74).



Ama Genobeba

Baina badira komunitatean lekaiame jatorrak. Guztien gaintik, komentu horretako fundatzailea. Bere izena, Ama Genobeba. Komentuan sartu zan egunetik, zerbait apartekoa ikusiko dau Teresak bihotz haundiko emakume horren- gan. "neure sarrera ondoren, korura eraman ninduten. Hau erdi itzalean zen, Gure Jauna agerian jarrita zegoelako, eta lehenen nire begirada erakarri zuena niri begira jarritako gure Ama Jenofa santuaren begiak izan ziren. Haren oinetan belauniko egon nintzen une batez, Jainko Onari santa bat ezagutzeko mesedea egin zidalako eskerrak emanez" (A Esk., 69¹).

Ama Genobebaren santutasuna izango jako maitagarri eta gogoko. Bere bertute ezkutu ta egunerokoak azpimarratuko ditu. "Ai! *Santutasun* honi *benetakoena* neritzon, *santue- na* eta hauxe da nik nahi nukeena,

hor ez baitago inolako ameskeriarik... (...) Hitz batez, Ama Jenofak nire bihotzean utzi duen oroitzapena usain gozozko oroitzapena da..." (A Esk., 78^a-78^l). Baten baino gehiagotan hartuko ditu beragandik hainbat aholku eta pozaldi eder.


3. 1b Izipiritualitate latza

Komentura hurreratzen diran eleizgizonak, jansenismoz kutsaturiko izpiritualitate gogorra eta bildurgarria iragarten dabe. Teresak bere gurasoengandik eta etxeoengandik hartutako Jaungoikoak ez dauko zer ikusirik komentuko Youf kapellauak eta gogojardunak emotera etorten ziran eleizgizonen Jaungoiko zorrotzaz eta asarrekoiaz. Etxekoengandik hartutako Jaungoikoa "ama bat baino samurragoa" jako (ik. A Esk., 80^l)

Teresari, berez, maitasunak besterik ez dautso zirkinik egiten. Hona hemen bere autortza: "Izan ere, halakoxea naiz ni: beldurrak atzera eragiten dit; *maitasunarekin*, ez aurrera egin bakarrik, *hegan egiten dut*" (A Esk., 80^l). Horregaitik, orduko eleizgizonen sermoiak eta gogojardunak larrituta izten eben. Egun horreetan txarto aurkitzen zan. Atseginagoak jakozan bakarrik egiten ebazan gogojardunak. Eleizgizonak zuzenduta egiten ebazanian, lurra jota, kolorea be joan egiten jakon. (ik. A Esk., 80^a).

Alexis Prou frantziskotarra ta Almire Pichon jesulaguna kendu ezker, beste eleizgizon guztiak ez dautsoe kalte baino egingo. Barriro be, barruko kezak eta eskrupuluak hor dabilza Teresaren barnea irunsi nahirik. Arimako sufrimentuak ez dautsoe bakean izten. Era desberdineko penak ditu. Ez dauko ziurtasunik Jaungoikoak maite dauan ala ez (A Esk., 78^a; TG 95, 114). Beste batzutan, zerurik dagoanik itaunka daukagu (ik. A Esk., 80^l). Arimako liortasunak eta ilunaldiak goibeltzen dabe Teresaren bihotz garbia. Liortasuna izango dau bere eguneroko ogia (A Esk., 73^l) "Deus ez Jesusen aldameanean, lehortea baizik!..." (TG 74).

Aienez beteriko galderak urteten dautse bihotz barnetik. Zelinari idatzitako kartan ageri da kexa lastimagarri hau: "Zein zaila gertatzen den lagunartea Jesus ez dagoenean! Baina holakoetan zer egiten du gure lagun maite honek, gure nahigabea eta zapaltzen gaituen pisua ikusita? Non dago eta zergatik ez dator gu poztera, beste lagunik ez dugu eta?" (TG 57) Eta bere "amatxori" mesede eske datorko: "Eska iezaiozu maitasuna eman diezadala. Ez dut sentitzen den maitasunik eskatzen, Jesusek bakarrik ezagutzen duena baizik. Enc! Jesus maitatzea eta



Alexis Prou frantziskotarra

Jesusi maitaraztea! Hura gozotasuna!... Jesus iraintzen jarraitzekotan, eskatu profesia-egunean bertan eraman nazala, nire bigarren bataioko estola zurian zikin bat bera gabe zeruratu nahi dut eta" (TG 114).

Lisieuxko komentuko izpiritualitatea ez jako batere atsegin. Bai bertara hurreratzen diran eleizgizonak ta bai bertan irakurtzen diran liburuak, Jaungoikoaren kopeta iluna besterik ez dabe azpimarratzen. Moja koitxauak Jaungoikoaren hasarrea ta ira desbidertzeko tximistorratz zirudien. Moja asko inpetuko oinazeen bildurrez bizi dira gau ta egun. Teresak ezin dau holako izpiritualitarik iruntsi ta noraezean larri ta kezkatuik daukagu. Bere bihotzak ezin dau onartu antzeko Jaungoikorik.

Berak ezagutu ebazan eleizgizonak eta orduko hainbat liburu irakurri ondoren, bere komentuko lehenengo krisialdi gogorra igarota gero, ez dau izango eragozpenik euron bideak eta dotrina latz eta korapilatsua umorez kritikatzeko. Arima-zuzendarion eta Jesusen bideen arteko desberdintasuna honela azaltzen dautso bere abizta Zelinari: "zuzendariek bertutezko ekintza asko ezarriz aurrerazten dute perfekzioan, eta horretan zuzen daude; baina nire zuzendaria den Jesussek ez dizkit ekintzak kontarazien. *Den-dena* maitasunagatik egiten, ezer ere ez ukatzen, eta maite dudala erakusteko uzten dizkidan auke-rengatik pozik egoten erakusten dit" (TG 142).

Ta Jaungoikoaren justiziarik eta errukiari buruzko kartarik famautuenean, beste kritika hau be agertzen da orduko liburuei buruz: "Batzuetan, obra izpiritualetan santutasuna mila zailtasun korapilatsuren bidez eta irudipen multzo batez inguraturik aurkezten dela irakurtzen dudanean, nire espiritu gaixoa berehala nekutzen da eta burua hausten eta bihotza lehortzen didan jakinduriatzko liburua itxi eta Eskritura Santua hartzen dut eskutian. Orduan, den-dena argitsua iruditzen zait, hitz bakar batek amaigabeko itsasertza agertzen dio nire arimari, santutasuna, erraza egiten zait; norbere ezereza onartu eta haurtxo baten antzera Jainko onaren besoetan burua uztea nahiko dela ikusten dut. Uler-tzen eta oraindik gutxiago praktikatu ezin ditudan liburu ederrak arima handientzat eta izpiritu handientzat utzirik, poztu egiten naiz txikia izanez, haurrak eta hauen antza dutenak bakarrik izango baitira onartuak zeruko otorduan. Benetan pozten naiz Jainkoaren erreinuan egonleku ugari delako, ulergaitz egiten zaidan bide eta azalpen horietakoa baizik ez balego, ni ezin izango bainintzateke han sartu" (TG 226).

3. *1c Aita gaixorik*

Bada beste sufrimentu bat hamabost urteko moja barriaren bihotz samurra jota izten dauana. Bere "paregabeko" aitaren gaixoaldia. Teresa komentuan sartu ta bi hilabetera, Luis Martinek iges egiten dau etxetik. Jendea marmarrean ari da. Batzuk burua galdu dauala, besteak alaben errua dala erdi bakarrik itzi dabelako. Batez be, Teresari leporatzen dautsoe Luisen etxetik igestea. Bere bihotzak ezin izan dauala sufridu hain samin haundia. Ezin leiteko ukatu Luisen hartzen dauan pena. Nahizta fede sakoneko gizona izan, itzel sentitzen dau bere alaben bidea. Sentsibilitate haundiko gizona dogu berau. Ez dau harrizko bihotzik. Bere "erreginatxoa" komentuan sartuta honela mintzo da karta baten: "Adiskide maiteok, Teresa, nire erreginatxoa, Karmelen sartu zen atzo!... Jainkoak bakarrik eska dezake honelako sakrifizioa" (A Esk., 71¹). Baina Luiseren gaixotasuna, buruko "arteriosklerosis" baino ez da. Horixe da medikuen diagnostikoa.



Teresaren aita gaixorik

Ezin leiteke ulertu be egin zelako sufrimentua daren bihotz barnean Teresak eta bere ahiztak. Batez be, Caengo zoroetxean aurkitzen danian. Hona Teresaren penaz beteriko berbak: "Nekaldi hau ez zen izan berarentzat bakarrik. Jesusen oinazeek, ezpata baten antzera, bere jainkozko Amaren bihotza zulatu zutenek, era berean sentitu zituzten gure bihotzek lurrean inor baino maiteago genuen haren oinazeak... Gogoan dut 1888ko ekaineko hilean, geure lehenengo atsekabeetan, nola esan nuen nik: "Asko sufritzen dut, baina oraindik sufrimendu handiagoak jasan ditzakeedala uste dut". Ez nuen orduan susmorik niretzat gorderik zeudenaz... Ez nekien otsailaren 12an, nire abitu-hartzetik hilabetera, gure aita maiteak kalizarik *garratzena*, guztietarik *lotsarizkoena* edan beharko zuenik... Ai! Egun hartan ez nuen esan ez oraindik gehiago sufri nezakeenik!!!... Hitzek ezin dituzte gure nahigabeak adierazi" (A Esk., 73^d).

Bere fetxarrik inportanteen zerrendan geratuko da 1889ko otsailaren 12a (ik. A Esk., 85^a) Ez dira faltako moja batzuen arteko txutxu-mutxuak Luisen gaixotasuna dala-

ia. Holako izki-mizkiak ez dabez, ez, arintzen Teresaren eta bere ahizten samina eta pena. Baliteke Luisen alaben artean, kanpotik behintzat, oinaze honetan frankilen Teresa bera egotea. *Ixuraz, beti be, oso baretsua da Teresa. Baina barrutik oso sentzibilitate haundikoa dogu karmeldar gazte hau. Ta aitaren penak bame-barneraino sartuko jakoz. "Gurutze horixe da nik sekula pentsa nezakeenik handiena"* idatziko dautso bere izekoari (TG 155).

Baditu Teresak egoera larri honetan, intuizio jatorrak. Apartekoena, aitaren oinazea Jesukristoren oinazealdiaz lotuta ikusten dau. Kristoren nekaldiko argitan ahaleginduko da ikusten bere aitaren sufrimentua. Abitua hartu eban egunean idatzitako kartatxoak, Aurpegi Santudun Ume Jesusen Teresa bezela izenpetuko dau. Adierazgarria sinadura honen bereizkuntza. Nahiko izango dira, Karmeloko lehenengo hilabetetako sufrimentuak, Jesusen haurtzaroaren eta nekaldiaren etenezinezko konexioa egiteko. Jesusen jaiotzak eta nekaldiak eta bere bizitza guztiko momentuak, Jaungoikoaren maitasunaren oihu eta garrasi besterik ez dira.

Beti ahaleginduko da Teresa gauzak positiboki ikusten. Baita sufrimentua bera be. Nahizta sufrimentuaren aurrean eboluzio galanta sentidu. Hori bai, sufrimentuaren erraiztan be Jaunaren maitasuna somatzen dau. Jaunaren presentzia maitekorra sentitzen dau bere aitaren gaixoaldian be. Beste ikuspegi batzuk be izango ditu sufrimentuari buruz. Baina beti ahaleginduko da izten Jaungoikoari Jaungoiko izaten. Horregaitik, gitxi izango dira santuen artean hain baiezko agertzen diranak. Ez ditu beti begi bardinekin ikusiko sufrimentuaren balioak. Hori bai, beti ahalegindu da sufrimentuaren aurrean, gauzak positiboki ikusten. Batean santu izateko bide egoki bezela, bestetan zerurako merituak irabazteko. *Edo Jaunaren nekaldiaren partaide lez.*

Teresaren senideak eta ahiztak, batez be Zelinak eta Mariak, ezin dabe inondik inora onartu aitaren gaixoaldia. Zelan permitidu leikez Jaungoikoak holako penak hain gizon on eta santu bateri? Bere alaba guztiak Jaungoikoari eskeini ondoren, zelan emon leikio orain Jaunak halako pagua? Edozein egoera mingorretako galdera garratzak ditugu honek. Jaungoikoaren zigorra eta gaztigua barik bere maitasuna oihukatzen dau Teresak. "Ez, Jesusen pentsamenduak ez dira gure pentsamenduak eta bere bideak ere ez gureak... (...). Jesusen emaztea izateko, haren antzekoa izan *behar* da. Jesus odola dariola dago, arantzaz koroatua!... (...).kanta dezagun geure bihotzean kantu ezti bat geure maitearentzat! ... (...). Jesus sutan dago gureganako maitasunez... Begira iezaiozu haren Aurpegi gurgarriari!... Begira haren begi itzal eta jausiei!... Begira haren zauriak!... Begira iezaiozu Aurpegi... Hantxe antzemango duzu zein maite gaituen" esango dautso aita zaintzen dagoan ahizta errukiari (TG 87).

Eta beste karta baten: "Oi, ahizpatxo maitea, Jesusek bidali digun gurutzeaz kexatetik urrun, ulertezina iruditzen zait gu horrela tratatzera eragin dion mugagabeko maitasuna nolakoa den pentsatzea... Gure aita asko maitatu behar du Jesusek nahitanahiez, horrela sufritzeko! Baina ez al duzu uste zauritzen duen zorigaitz hori, bere bizitza ederraren osagarri dela?... Uste dut, ene "betibizi-lilitxoa", erokeria hutsak esaten dizkizudala, baina ez du axola; Jesusen maitasunari buruz oraindik gauza gehiago pentsatzen dut, beharbada gogorragoak direnak..." (TG 82).

Ezin dau inondik inora onartu bere aitaren gaixoaldia Jaungoikoaren zigorra izan leikenik: "zartako ederra eman digu... baina maitasunezko zartakoa da. Jainkoa harrigarria eta batez ere maitagarria da. Maita dezagun, bada, eta maita dezagun berak nahi adina sufrizeko beste: arimaren nahigabeak, garraztasunak, atsekabeak, ustezko zabarke-riak... Bai, amodio handia da Jesus maitatzea, maitasun horren gozotasunik sentitu gabe... horra hor martiritza... Bada, *hil gaitezen martiri!*..." (TG 94) Bere amabesoetako eta ahizta nagusiari: "Jaunak zalantzarik gabe guk baino gehiago maite du aita, aita Jainkoaren semetxoa baita" (TG 91).

3. 2 Ohorerik gabeko martiritza

Teresa bere bizitzari eta komentuan hainbat urte bizi diran mojei begira daukagu. Bestetik jansenismoz kutsaturiko izpiritualitate latzari enpagua hartzen dautso. Ta aitaren gaixotasunak Jesusen nekaldiaren misterioa aurrez aurre jartzen dautso. Berehalaxe konturatzen da Teresa, amesten dauan "huts gabeko santutasuna" ezinezkoa dala. Olako santutasunaren bila jokatzea, ez dala zentzuzeko kristau bidea. Zerbait izatekotan, "kosmetika" garbia, baina ez egiazko kristau santutasuna. Norbere gloria eta aintza barik, Jaunaren aintza eta gloria bilatu behar dira. Hor dago santutasuna ta beste guztia harropuzkeria eta norberekeria baino ez dira.

Bere kartetan argi agertzen da Teresaren barneko eboluzio ederra. Zelinari idazten dautso: "Jesussek negar egiten du, eta gu... gu geure ondoezari begira gaude, geure senar-gaia kontsolatzen saiatu gabe!..." (TG 94). "Jesus baizik ez dago, ez dago beste ezer... Maita dezagun, beraz, zoramenerarte, arimak salba diezazkiogun. Ene Zelina! Jesussek arimak eta batez ere apaizen arimak eman ez bere egarria asetzeko eskatzen digula somatzen dut. (...). Ene ba, uler dezagun bere *begirada!* Hain dira gutxi begirada hori ulertzen dakitenak... (...). Gure bizitza izan dadila sakrifizio etengabe bat, Jesus pozteko maitasunezko martiritza. Jesussek ez du begirada edo hasperen bat baizik nahi (...). Gauez, *behin bakarrik* etorriko den gau honetan, gauza bat egin behar da bakarrik: maitatu, gure bihotzeko indar guztiz Jesus maitatu eta arimak salbatu *maitatua* izan dadin... Ene, Jesus maitarazi!" (TG 96).

Eta Paulinari: "Erregutu hondar-ale gaixoaren alde. Hondar-alea beti bere lekuan egon dadila, hau da, guztien oinpean. Inork ez dezala hondar aleaz pentsa, beste hitz batzuetan esanda, haren izatea ahaztua izan dadila... Hondar-aleak ez du *lotsarazia* izan nahi, lotsarazteko norbait hartaz kargutu beharko litzateke eta hori ere aintzagarriegia babilitzateke. Gauzatxo bat nahi du bakarrik: *AHAZTUA* izatea, beraz, *ezertarako* ez kontatzea!... (...). Ahal baldin balitz hondar-ale batek Jesus poztea eta Jesusen malakoak xukatzea, balegoke bat lan hori gustura egingo lukeena!..." (TG 95) "Hondar-aleak ezerezero bihurtua izan nahi du, gizakientzat ezezaguna izatea! Gaixoak ez du jadanik ezer nahi, *AHAZTEA* baizik ez!... Mesprezua ezezik, irainak ere nahi ditu... bestela, aintzatsuegia babilitzateke hondar-alearentzat. Gutxietsia ez balitz, igarri egingo litzateke. Baina *AHAZTURA!*... Bai, ahaztua izan nahi dut eta ez dut nahi gizakiek bakarrik ni ahaztea, nik neuk ere *neure burua* ahaztea nahi dut. Ezer irrikatu ahal izateko baino ezerezagora bihurtua izan nahi nuke... Neure Jesusen aintza, horra hor dena! Neure aintzari dagokio-

nez, Jesusi eskaintzen diot eta ahaztu egiten nauela badirudi, ongi dago, berak ahantz nazake, ni ez bainaiz neurea, harena baizik... Lehenago nekatuko da bera niri zain egonazten, ni haren zain egoten baino!..." (TG 103). Hona beste perla batzuk ere: "Jesusek ez dio denborari begiratzen, zeruan denborak ez baita. Maitasunaz baizik ez baita arduratzen. (...). Ene! Jesus maitatzea eta Jesusi maitaraztea! Hura gozotasuna!..." (TG 114).

Eta Maria Guerin bere lengusinari be dotrina berbera: "Zeure burua hain ezereza ikusten duzunean, zeure buruaz horrenbeste arduratzeari utzi eta zeure Maiteari bakarrik



Teresaren lehengusina Maria

begiratzen diozu... Nire Maritxo maitea, nik neuk ez dut ezagutzen perfekziora iristeko beste biderik, "maitasuna" izan ezik!... Maitatzea!... Zein ongi egina dagoen gure bihotza maitasunerako!... (...). Zeure izenak *diotsu* zein den zure eginbeharra: Jesus poztu, arimak *maitaraz* ditzan lortu... Jesus gaixorik dago jota dago eta kontuan izan behar da maitasun-gaixotasuna maitasunez bakarrik sendatzen dela... Maria, emaitza zeure bihotza Jesusi, Jesus egarri eta gose baita. Zure bihotza, horra hor berak nahi duena; zure bihotza lortzearen, gela ilun eta zikin batean geratzeak ere ez dio axola... Ene! Ez duzu, ba, maitatuko premia horretaraino makurtu den laguna? Nola ausartu berriro norbere pobretasunaz hitz egitera, Jesus bere emazte-gaiaren antzeko egiten denean?... Aberatsa izanik txiro bihurtu zen, bere pobretasuna Maria Sakramentu Santuarenaren pobretasunarekin bat egiteko... Maitasunaren misterio!..." (TG 109).

Teresaren santutasuna maitasun garbian datza. Bere erlijioso-profesio bezperetan:

"Nire arimak lurrazpian darrai baina zoriontsua da; bai, *zorionekoa* da inolako kontsolamendurik ez duelako; horrela, zera ikusten du, bere maitasuna ez dela lurreko bikoteek dutena bezalakoa, beti elkarren eskuetara begira, zein opari jasoko zain edo eta beti aurpegira begira, liluratuko duen maitasunezko irribarreraren bat noiz harrapatuko itxaroten... Jesusen emaztegai gaixoak, ordea, Jesus bera denagatik maite duela somatzen du eta ez dio bere senargaiaren aurpegiari begiratu nahi, *ezkutuko xarmaz* liluratzea lortu duen begietatik erortzen diren malkoak harrapatzeko ez bada!... Berak malko horietan jaso nahi ditu, malkoekin bere ezte-eguneko apaindura egiteko" (TG 115). Sasoi honetako bere barruko egoera konparazio eder honekin azaltzen dausku: "Irten aurretik, Senargaiak ea zein herrialdetara eta zein bide jarraitu nahi ote zuen galdetu ziola zirudien... Andre-gaitxoak zera erantzun zion, ez zuela *maitasunaren mendi* tontorrera iristea beste nahirik. Mendi tontor hartara iristeko bide asko eskaintzen zitzaizkion, ordea, eta bide haien arte-

an ezin hobeak ziruditenak hainbeste ziran-eta ez zekien zein hautatu. Orduan bere jainko-gidariari esan zion: 'Berorrek badaki nora iritsi nahi dudan, badaki *norengatik* igo nahi dudan mendi tontorrera, norengatik heldu nahi dudan azkeneraino, badaki nor maite dudan eta nor poztu nahi dudan bakarrik. Beragatik bakarrik noa egitera bidaia hau, gida nazala, beraz, Jesusek ibiltzea gogoko duen bide-zidorretan zehar. Jesus poztea lortzen dudan bitartean, zorionez gainezka izango naiz'. Orduan Jesusek eskutik heldu eta ez hotzik eta ez berorik egiten ez zuen lurrazpi batera sartu ninduen, eguzkirik-egiten ez zuen eta euririk ez haizerik heltzen ez zen tokira. Lurrazpi horretan ez nuen deus ikusten, argitasun erdi estaldu bat baizik, nire senargaiaren aurpegiko begi eroriek isurtzen zuten argitasuna... Nire Senargaiak ez diosta ezer eta nik ere ez diotsat ezer; *neure burua baino maiteago dudala* bakarrik. Eta nire bihotzaren barrenean hau egia dela somatzen dut, areago bainaiz harena, neurea baino!... Ez dakust mendi tontorrera goazenik, gure bidaia lurrazpian egitekoa delako; baina hala ere, mendi tontorrerantz goazela somatzen dut, nola jakin ez arren. Goazen bidexka ez da batere kontsolagarria niretzat eta hala ere poz guztiak dakarkizkit, Jesus delako bidea hautatu duena eta bera bakarrik kontsolatzea delako nire nahia. Bera bakarrik, bera bakarrik!..." (TG 110).

Esperientzia honetan azpimarratzekoa da Teresaren barneko eboluzioa. Momentu honetan, Jesus bere burua baino maiteago dau. "Areago bait naiz berea, nereka baino". Pare bat urtetan egiten dau aldaketa sakon eta eder hau. Jesusengandik, Jesugaitik Jesusentzat eta Jesusekin bizitzea izango da Teresaren asmorik haundiena. Profesa egunean bere bihotz gainean daroan idatzian garbi agertzen ditu Teresak bere jomuga eta gurariak: "Ez dezadala inoiz zeu baino ez bilatu ez aurkitu, izakiak ez daitezela niretzat ezer izan eta ni ez nadila haientzat ezer izan, zeu, Jesus, izan zaitezela *dena!*... (...). Jesus ez dizut bakea baino eskatzen, eta maitasuna ere bai, zeu baino beste mugarik ez duen maitasun azkengabea, ni barik zeu, nire Jesus, zaren maitasuna. Jesus, zugatik martiri hil nadila, bihotzeko zein gorputzeko martiritzaz, edo obeto biekin..." (Otoitza 2). Teresak emondako pausoa galanta eta itzela, benetan!

"Maitasunaren mendi puntara" daroan bide hau, Alexis Prou frantziskotarrak aseguratu eta onartuko dautso. Badauko Eleizaren ofizialtasuna. Horixe behar eban gure karmeldar gazteak ziurtasun osoz "maitasunaren bidetik" abiatan ibiltzeko. "*Nire hutsegiteek ez ziotela* Jainko Onari nahigaberik ematen esan zidan; *haren lekuan egonik, haren izenean* esaten zidala hura oso pozik zegoela nirekin... Oi, bai zoriontsu izan nintzela hitz pozgarri hauek entzutean!... (...). Nik neure bihotz barruan hau egia zela nabaritzen nuen, Jainko Ona ama bat baino samurragoa baita" (A Esk., 80¹). Eta "maitasunaren mendi" puntan dabilgu "Maitasun Errukitsuari egindako eskintza" aldian. Inoiz baino hobeto ulertuko dau 1895. ekainaren 9an, Trinitate Santuaren jaian, "Jesusek nola maitatua izan nahi duen" (ik. A Esk., 84^a). "O neure Jaungoikoa! Hirutasun Dohatsua, zu Maitatu nahi zaitut eta Maita erazi (...). Ez dut Zerurako meriturik pifatu nahi, zure Maitasunagatik bakarrik lan egin nahi dut, zuri atsegin eman, zure Bihotz Sakratua poztu eta betiko maitatuko zaituzten arimak salbatzeko asmo bakarraz (...). Ez dut, ez, nahi beste errege-aulki eta beste koroirik Zeu baino, o ene Maite-Maitea!... (...). Maitasun betearen egintza batean bizi nadin, osozko oparitzat eskaintzen nazaio zure Maitasun erukitsuari, eten gabe erre nazazula arren eskatuz" (Otoitza 6) Bihotz barnetik, pozaren pozez oihuka ari jaku:

“Oi, ene Ama maite, bai gozoa dela *maitasunaren* bidea!” (A Esk., 83^a). “Oi, zein gozoa den maitasun-bidea!... Nik bai nahi nukeela buru-uzterik osoenaz Jainko Onaren borondatea betetzen saiatzea!...” (A Esk., 84¹).

Maitasunezko bidea oso osorik onartzeko, Joan Kurutzekoagandik eta Ebanjelio Santutik makina bat sakada eder hartuko ditu: “Ai, zenbat argi egin didaten Gure Aita San Joan Gurutzekoaren lanek!... Hamazazpi edo hamazortzi urte nituenean ez neukan beste janari izpiritualik (...). Baina otoitzaldian eusten didana, gauza guztien gainetik, *Ebanjelioa* da; hor aurkitzen dut nire arimatxo gaixo honek behar duen guztia. Beti agertzen zaizkit argi berriak, esanahi ezkutua eta misterioitsuak” (A Esk., 83^a-83¹).

3.3 Teresa gaixoaren Jaungoikoa

A zelako eboluzioa gertatzen dan Teresaren barnean! Nobiziaduko lehenengo bi urteetan 190 graduko aldakuntza emongo dautsoz santu izateko asmo eta gurari haundiei. Santu izatea ez da fama eta entzutea eta ospea lortzeko aukera bat. Holan pentsetan eban 9-10 urtekin. Ezta Jaungoikoari eskeintzeko urte gorritzko garaikur eder bat be. Hau da, inondiko huts bako santutasuna. Holako ametsak izan ditu hamalau-hamabost urtekin. Baina laster konturatzen da gauzak ez dirala horrela. Santutasuna Jaungoikoarekin alkar maitasunean bat eginda bizitzea dala ulertuko dau komentur barruan. Ez da egongo beste kasu bat Eleizaren historian, hain denpora gitxitan, horrenbesteko pausoak emon dituanik santutasun bidean. Gauza guztien gainetik, bere aitaren gaixoaikiak zabalduko dautsoz begiak Jesusen bizitzaren eta nekaldiaren maitasun beteriko misterioak ikusteko. Santutasuna ez da “perfekzioa” hau da huts bako koroia bilatzea, santutasuna izango da Teresarentzat Jaungoikoaz maitasunez eta fedez alkartuta bizitzea.

“Teresa gaixoaren Jesus” (TG 160) gizon-emakumeekin alkar maitasunean bizitzeko gosez eta egarri daukagu. Horra hor Jesusen zoramena eta poza! “Teresa gaixoaren Jesus”, apa eta umil ageri da, gure bihotzetan sartu nahirik, eskeko bat lez ate joka. Haustuta geratzen da Teresa hain Jaungoiko umilaren aurrean. “Ezin naiz niretzat hain txikia egin den Jainkoaren beldur izan... nik maite dut!... Jainkoa maitasuna eta errukia besterik ez da eta” (TG 266).

Txundituta daukagu Teresa Jaunaren umiltasun beteriko maitasunaz. ‘Maitasunari beheratzea dagokionez’ (ik. A Esk., 2¹), ez da harririk Maria Madalenaren ausardiak: “Madalena, hainbeste gonbidaturen aurrean, lehenengo aldiz ikutzen dituen Maisu gurgariaren oinak malkoz bustitzeko aurreratzen dela ikusten dudanean, *haren bihotzak Jesusen Bihotzaren* errukia eta maitasunaren leizea ulertu dituela somatzen dut, eta bekataria den arren, maitasunezko Bihotz hori Madalenari barkatzeko ezezik, bere barruko jainkondasunak eskaintzeko eta kontentplazioaren gailurrik handienara igoarazteko prest dago” (TG 247).

“Maitasun-truke” hori, ze ederto abesten dauan Teresak bertso honetan:

“Zu Jainko Haundia, Zeru osoak gurtzen duena,
preso gau ta egua, nigan zara bizi;

orduero eske ta eske dut zure ahots leuna,
 esaten didazu: 'egarri naiz, maitasun egarri'!
 Neu ere banaiz zure presoa,
 eta nahi dizut nik ere errepika
 zure eskari gozo eta jainkozkoa:
 'Nire Maitea, nire neba,
 maitasun egarri naiz!' (TO 31).

"Teresa gaixoaren Jesus"ek, gizon-emakumeon intimitatean bizi nahi dau. Hunkitu-ta daukagu Teresa Jaunaren apaltasunez eta bere maitasunaren eskeintzaz. Ez daki zelan deitu be Jesusi. Batzutan, "Maitasunaren Jainko-Eskalea" (TG 172) deituko dautso. Bestetan, "Maitasunaren Jainko-Zalduna" (TG 183) eta "maitasunaren Jainko-Presoa" (TG 189) Maitasunaren maitasunez burutik eginda dirudi "Teresa gaixoaren Jesus"ek: "Hau poza *zoramenearino* maite gaitunarengatik sufritzea eta munduaren begietan erotzat hartuak izatea! Besteak geure buruz epaitzen ditugu, eta mundua zentzugabea denez gero, gu geu garela zentzugabeak uste du!... Baina azken batez, gu ez gara lichenengoak! Herodes-ek Jesusi leporatu zion krimen bakarra *zoraturik* egotearena izan zen... eta nik ere hark bezala pentsatzen dut!... Bai, *zoraturik* zegoen; haren eromena, errege-*aulki* bihurtu nahi zituen hilkorren bihotz gaixoak bilatzean zetzan. Jesus, kerubinen gainean eserita dagoen aintzazko Erregea!... Jesus, beronen presentziari zeruek ezin eutsi diotena! *Eroturik* izan behar zuen gure Maiteak, lurrera bekatarien bila etorri eta bere lagun, bere kutun, bere *pareko* egiteko. Jesus, Hirutasuneko beste lagun biek hain zoriontsua zena!... Guk ezin-go dugu sekula hark gugatik egin zuen erokeriak egin" (TG 169).

Jesusegaz "benetako maitasun-trukea"n (A Esk., 46¹) bizitzea posible da Teresarentzat. Hortxe dago kristau santutasuna. Jaungoikoa Jaungoiko bada eta gu bere kultura errukarri batzuk baino ez, zelakoa izan leiteke "egiazko maite-truke" hori? Maitasunaren logikan ez dago ezinezkorik. Gogoko dau Teresak Joan Kurutzekoaren pentsamentu eder hau: "Maitasuna maitasunez bakarrik ordaintzen da" (*Kantu izpirituala*, 9. ahap.) Karmengo Ordenako maisu haundiaren intuizioa bereganaturik, bere armarriko ikurtzat hartuko dau (ik. A Esk., 85¹) lekaimé gazte honek. 18 urte inguru izango ditu momentu honetan Teresak.

"Betiko kantika, atzerrian kantatua" deritxon olerkian datozan berbekin laburbildu geinke Teresaren esperientzia sakona:

"Zure emazte erbestetuak, atzerriko erriberan,
 kanta dezake 'Maitasunaren betiko kantika',
 zuk, ene Jesus Eztia, ontzat baituzu lurrean
 zeruan bezala, maitasun-suaz hura kiskaltzea.
 Nire Maite-maite, Edertasun goren,
 zeure burua didazu niri ematen
 baina horren ordainez
 maite zaitut nik
 eta nire bizitza
 ez da maite ekintza bat baizik" (TO 28).

Pentsamentu bera honela azaltzen dautso hitz lauz bere ahizta Zelinari: "Laister helduko da Jesusek Zelina eskutik oratu eta bere etxetxora zuzenduko duen eguna, ordurako betiereko palazio bilakatua egongo dena... Orduan zera esango du: 'Orain neure tenorea da'. Zuk lurrean, inork uko egin nahi ez dion babesleku bakarra eman zenidan, hau da, zu zeu eskaini zintzaizkidan, eta orain nik betiereko sustantzia damaitzut, hau da, neure burua damaitzut, hona hemen zeure etxea betiereko. Bizitzaren gauzez errari eta bakarrik ibili zinen, orain zure laguna izango duzu, eta lagun hori neu izango naiz, Jesus, zeure Senar, zeure Lagun, zeinagatik den-dena sakrifikatu duzun; nik pozez beteko zaitut, gizaldi eta gizaldietan...!" (TG 157).

3. 4 Jesus maitatu eta maitarazi

18 urtetik aurrera, gure karmeldar lekaimerearen asmorik ederrena eta bakarra: "Jesus maitatu eta maitarazi", "Jesusi maitasuna maitasunagaitik eta bizitza bizitzagaitik eta odola odolagaitik emotea" izango da (ik. TG 201). "Maitasunezko borroka" honetan, Jesusen maitasunaren mailara heltzea nahi leuke. "Benetako maitasun-truke" paretu baten lehiatzeko amesetan dabilgu. "Zure *emazte* izatea, oi Jesus, *karmeldar* izatea, zurekin bat eginik nagoelako arimen *ama* izatea aski izan behar nuke... Ez da horrela" (B Esk., 2¹).

Igarri barik, Teresa bokazio-krisi larrian sartuta daukagu. Ez dau nahiko klausurako moja karmeldar bokazioa. Eleizan izan diran eta izango diran bokazio guztiak nahi ditu Jesusen maitasunari erantzuteko. "Hala ere beste bokazio batzuk somatzen ditut neure baitan: gerrari izateko bokazioa sentitzen dut, Apaiz, Apostolu, Doktore, Martiri izatekoa. Hitz batez, Jesus, zure alde egintzarik heroikoenak zertzeko beharra, irrika somatzen dut.... (...) Oi, Jesus, ene maitasuna, ene bizitza!... Nola bat egin gauza hain desberdin hauek? Nola gauzatu nire *arimatsxo gaixo* honen gurariak?" (B Esk., 2¹⁻³)

Oraindino gehiago. Ez ditu bakarrik bokazio guztien mugak gainditu nahi, baita Kreatzailearen eta kreaturaren diferentzia bera be. Jainkozaleen arriskurik larriena panteismo lotsagarrian jaustea izaten da. Azken baten, horixe izan zan gure arbasoen jatorrizko pekatua be. Hau da, Jaungoikoaren pareko nahi izatea (ik. Has 3, 4). Teresak berak be tentaldi honen arriskua sentidu izan dau. Nahizta asmorik onenagaz, panteismoaren ezten goxoaren bila darabilgu, Jaungoikoaren maitasunaz lehiatzeko. "Maitasunak maitasuna erakartzen du; horregatik, ene Jesus, nire maitasuna zureganantz amiltzen da; erakartzen duen hondalea bete nahi luke, baina ai!, ez da itsasoan galdutako ihintz-tanta bat bera ere... Zuk maitatzen nauzun bezala maitatzeko, zeure maitasuna bera eskatu beharko nizuke maileguz. Orduantxe soilik gelditzen naiz lasai" (C Esk., 35^a).

"Oroi zaitetz lurrean nahi zaitudala zu
poztu, pekatariak abaztu zaituztelako;
ene Maitasun bakar, nire otoitza entzun ezazu:
Ah! emaitzidazu mila bihotz zu maitatzeko.
Baina hori, Jesus, edertasun goren, oraindik gutxi da;
zu maitatzeko emaitzazu zure jainkozko Bihotz Berbera.

Nire gurari gartsuaz,
Jauna, uneoro
 oroi zaitetz" (TO 24).

Baina San Pauloren kartetan aurkituko dau erantzuna. Korintotarrei zuzendutako lehenengo epistolian, hain zuzen be: "Aurkitu nuen azkenez atsedena... Elizaren gorputz mistikoa gogoan nerabilela, San Paulok aipatzen dituenetariko atal batean ere ez nuen neure burua ikusten; edota, hobeki esan, *guztietan* ikusi nahi nuen... Karitateak neure *bokazioaren* giltza eman zidan. Jabetu nintzen Eliza atal ezberdinez osatua bazegoen, guztietarik beharrezkoena, bikainena ez zitziola faltako. Elizak Bihotz bat zuela jabetu nintzen, eta Bihotz hau Maitasunez gartsu zegoela. Jabetu nintzen Maitasunak soilik higiarazten zituela Elizaren atalak; Maitasuna itzaliko balitz, Apostoluek ez luketela gehiago Ebanjelioa iragarriko, Martiriek uko egingo lioketela odola isurtzeari... *Maitasunak* bokazio guztiak hartzen zituela konturatu nintzen, Maitasuna guztia zela, aldi eta toki guztiak hartzen zituela... hitz batez, Betikoa dela!... Orduan, neure poztasun eldarniagarriaren gainezkaldian deiadar egin nuen: Oi, Jesus, ene maitea!... Azkenez aurkitu dut neure bokazioa: Maitasuna da!... Bai, aurkitu dut neure tokia Elizan, eta toki hori, oi ene Jainkoa!, zuk zeuk eman didazu... neure Ama den Elizaren bihotzean, ni Maitasuna izango naiz!... Horrela guztia izango naiz..., horrela nire ametsa bete izango da!" (B Esk., 3¹).

Teresak gairitu ditu "panteismo amesak". Baita harropuzkerian jausteko arriskua be. "Egia esateko, aberastasun izpiritualak dira *bidegabeko bihurtzen* gaituzteua, *zerbait handi* direla pentsatu eta atseginez aberastasun hauetan atsedean hartzen denean..." (TG 197). "Ni, argitako ume hau, jabetu nintzen *guztia izateko* nire gurariak, bokazio guztiak hartzekoak, bidegabeko bihur nintzaketan aberastasuna zirela" (B Esk., 4^a) Paregabeko parabletan kontatuko dausku bere "maitasunaren borroka" ederra.

Teresari ez jako atsegin Israelgo sasi-profeten antzera herrenka jokaterik (ik. 1 Erg 18, 20) Beti izan da helburu haundiko neskea. Oso-osorik oratzen dautso. Bederatzi-hamar urtekin Joana Ark-ekoaren eta Frantziako beste emakume zangarren antzera egin-tza heroikoak betetera deitua sentitzen da. Ta orain "maitasunaren borrokan", Jaungoiko-agaitik inondikoak nahi ditu egin. Baina Teresa konturatzen da Jaungoikoak ez dautsola bere maitasuna besterik eskatzen. Hau idatziko dautso bere ahizta Leonieri: "Ziur diotsut Jainkoa zuk uste baino hobea dela. Begirada batez pozten da, maitasunezko hasperen batez... Niri santutasun-bidea oso erraza iruditzen zait, *Jesus bihotzez irabazi* behar dela uste baitut... Begira iezaiozu bere ama haserrarazi duen umetxoari, ama suminduz edo honen esana ez eginez: bazter batean babestu eta musturrak jarriz, zigortua izateko beldurrez oihu egiten badu, ziur aski amak ez dio barkatuko bere hutsegitea; baina bere besotxoak luzatzen badizkio, irribarre batekin zera esanez: "emaidazu musua, ez dut *berriro egingo*", ez al du amak samurtasunez bere bihotzaren kontra estutuko egin duen guztia ahaztuz?... Hala ere, amak badaki bere umetxo maitea berehala *berriro* lehengora itzuliko dela, baina ez dio axola: umeak *berriro bihotza* irabazten badio, sekula ez da zigortua izango (...). Jakin dezagun, beraz, gure maitasunaren eskale den Jainko hau preso edukitzen. Mirari hau guztia ile bakar batek egin dezakeela esaten digunean, maitasunez egindako *ekintza txikiak* direla bere bihotza liluratzen dutenak adierazten digu... Ai! Gauza

handiak egin behar balira, bai erruki izan beharko litzaugukeela!... Baina zein zoriontsu garen, Jesusek *txikienei* uzten dielako bera harrapatzen!..." (TG 191).

3. 5 Maitasunaren parabolak

Teresak gaudituko ditu "panteismo amesak" eta paregabeko paraboletan kontatuko dausku bere maitasuneko historia ikusgarria Jaunarekin. Badira parabolak eta kontaketak eta narrazioak eta konparazioak Teresak berberak asmatutakoak. Bere bizitza ondo baino hobeto azaltzen dauskue. Hona hemen euron izen batzuk: "Ihintz tantattoo", "txori gaixoa", "lorak jaurtiten dituan umetxoa", "maitasunaren banketxea", "maitasuneko txingarra", "umetxoa bateltxoan galduta", "errege boteretsua ta neskatxa apala", "mediku baten semetxoa", "lorategiko loratxoa", "kaleidoskopia".

Danak ditugu hunkigarriak eta bata baino bestea samurragoak. Guztiak dira antzekoak baina bakotzak badau bere ikututxoa. Batzuk Jaunaren errukia eta gure makaltasuna gogoratzen dauskue. Beste batzuk, ostera, Jaunak daukon gure maitasunaren egarria. Ta orduan kreaturaren duintasuna azpimarratuko dabe. Baina danetan, egiazko maitasunaren dohaintasuna izango da nagusi. Posible da Jaunagaz maitasuneko hartu-emonetan bizitzea. Hauxe bai dala Teresaren bihotz garbia ikaritzen dauan egi zoragarria.

3. 5 *Ihintz tantattoo:*


Zelinari egindako hiru kartetan lantzen dau ihintz tantattooaren parabola (ik. TG 141, 142, 143).

"Neure Zelina maitea: Gaur goizean izan dudan pentsakizuna kontatzera noakizu, edo hobeki esanda, zure arimarentzat Jesusek duen nahia zein den kontatuko dizut..."

Gure arimen lagun bakarrarekin batera zutaz pentsatzen dudanean, xalotasuna da beti zure bihotzaren ezaugarritzat agertzen zaidana... Zelina!... *Zelina*-lore xume eta txikia, ez dezazula lorategietako loreen inbidiarik izan... Jesusek ez zigun esan: "Ni naiz *lorategietako lorea*, landatutako arrosa", beste hau baizik: "Ni zelaietako Lorea eta haranetako Lilia naiz". Hara, bada, gaur goizean sagrarioaren aldamenean, Jesusen loretxoa den nire Zelinak zera izan beharko lukeela pentsatu dut: beti *ihintz tantattoo* izan eta haranetako Lili paregabearen jainkozko lore-hostoan ostenduta gorde beharko litzatekeela.

Ihintz tantattoo, zer gauza xume eta garbiagorik? Ihintza ez dute *hodeiek* eratu, ihintza loreen gainean pausatzen baita zeruaren urdina izarreztatua dagoenean. Ezin da euriarekin konparatu, azken honi edertasun eta hezetasunean irabazten dionez gero. Ihintza gaez baizik ez da izaten; eguzkia bere izpi epelak bidaltzen hasten deneko, zelaiko belarraren ilaun puntetan distiritzen duten perla ponpoxak iragazten ditu, eta ihintza lurrin bilakatzen da. Zelina ez da hodeien bidez eratutako ihintz tantattoo, zerutik jaitsitakoa baizik, huraxe baita bere erreinua. Bizitzaren *gauean*, haren helburua *zelaietako Lorearen* bihotzean ezkutatzea da; giza begiak ezin du aurkitu eta tantattoo duen kalizak ezagutuko du bakarrik haren hezetasuna.

Zorionekoa zu, Jesusek baizik ezagutzen ez zaituen ihintz-tantatxoa!..., ez zaitez gizakien harridura sortzen duten ibai ozonen bidea aztertzen gelditu, eta ez ezazu belardian kizkurtzen den erreka garbia inbiditu. Errekaren marmarra gozoa da benetan, baina gizakiek entzun dezakete eta gainera, zelaietako Lorearen kalizak ezingo luke eduki. Ezin du Jesusena bakarrik izan. Jesusena izateko, txikia izan behar da, ihintz-tantatxoa bezain txikia! Ene, oso arima gutxi daude hain txiki gelditzea baizik itxaroten ez dutenak!... Baina ibaia eta erreka ihintz-tantatxoa baino onuragarriagoak ez al dira, ba? -esango dute beraiek-. Zertarako balio du ihintz-tantatxoak? Ez du balio gaur zelaietan dagoen baina bihar desagertuta egongo den lorea untxo batez hezetzeko baizik.



Zalantzarik gabe pertsona hauek zuzen dabilta, ihintz-tantatxoak ez baitu horretarakoxe baizik balio. Baina beraiek ez dute ezagutzen gure erbesteko lurrian bizi eta bertan bizitako gau motza igarotzea erabaki duen basa Lorea. Ezagutuko balute, Jesusek behin Martari eginiko errieta ulertuko lukete... Gure bihotzeko Maiteak ez du gure pentsamendu handien eta lan paregabeen beharrik; ezta pentsamendu gorenenik ere: ez al ditu horretarako bere aingeruak eta izpiritu zerutiarren taldea, haien zientzia gure lur tristeko genio handiena baino haragokoa delarik?...

Jesus ez zen adimen eta dohain handikoen bila etorri lurrera. Xalotasuna maite duela erakusteko bilakatu zen zelaietako Lore. *Haraneko* Liliak ez du ihintz-tantatxoa besterik nahi... Horrexegatik sortu du *Zelina* izeneko bat...! Bizitzaren gauean giza begiradetatik gordea egon beharko du, baina geriza makurtzen hasten denean, zelaietako Lorea justiazko Eguzki bilakatzen denean eta bere erraldoi-zeregina burutzera datorrenean, ihintz-tantatxoa ahantzi egingo al du?... Ez horixe! Aintzan ager dadinean, erbesteko bere

neska-laguna ere aintzatsu agertuko da. Jainko-Eguzkiak neska-lagunarengan maitasunezko izpi bat geldiaraziko du eta berehala, ihintz-tantatxoa aingeru eta santu txundituen begiraden aurrean agertuko da eta diamante bikain baten antzera egingo du distira; eta justiziazko Eguzkia isladatuz, azken honen pareko egingo da. Hau ez da dena, hala ere. Jainko-Astroak, ihintz-tantatxoari begiratu eta bereganatu egingo du eta ihintza hurren arina bezala igoko da betiko Maitasun sorgabearen altzo sutsuan finkatuz eta hantxe gertuko da Jesusekin bat eginik. Lurrean Jesusen erbesteko eta mesprezuen neska-lagun leiala izan zen bezalaxe, zeruan ere halaxe aginduko du sekula betiko...

Bai harrituko direla ihintz-tantatxoa mundu honetan alferrikotzat jo zutenak! Beren aitzakia zera izango da: *Jainkoaren dohaina ez zaiela agertu, ez zituztela beren bihotzak zelaietako Lorearengana hurbildu eta ez zituztela ezin eutsizko hitz hauek entzun: "Emaidazue edaten".* Jesusek ez die arima guztiei dei egiten ihintz-tantatxoak izan daitezzen. Gizakiek preziatzen dituzten likore bikainak egon daitezzen nahi du, gizakiek dituzten beharizanetan goza ditzaten. Baina beretzat ihintz-tantatxo bat gordetzen du, horixe da bere nahi guztia.

Zein pribilegio handia hain misio handirako deitua izatea!... Misio hori betetzeko, hala ere, *zein xaloa izan behar duzun!*... Jesusek badaki lurrean garbi irautea oso zaila dela eta horrexegatik nahi du bere ihintz-tantatxoek beren burua ahantz dezaten. Berak bakarrik begiratzen ditu eta ihintz-tantatxoek beren balioa ezagutzen ez dutenez gero, gainerako gizakien azpitik estimatzen dute beren burua... Hona hemen haranetako Liliaren nahia" (TG 141).

"Ihintz izatea, zelaietako Lorearen ihintz tantatxoa". Parabola hau osatuko dau hurrengo beste karta bitan. Jesusek daukun maitasuna itsasoa baizen haundia da. Ta gurea, oster, ihintz tantatxoa besterik ez da. Baina maitasun-trukean, Jesusentzat gure ihintz tantatxo hori, itsaso dirudi. "Izan gaitezen betiko Jesusen ihintz-tantatxoa! (...). Jesus gure *itsasoa* da eta izango da... (...). Baina gure poza handia da benetan gu geu ere Jesusen itsasoa garelako, haranetako Liliaren itsasoa...!" (TG 142).

Ta hurrengo kartan, burutuko dau ihintz tantatxoaren parabola. Kartaren amaieran, apal eta umil agertzen jaku Teresa: "Zelina, esan behar ez nuena esan ote dizudan beldur naiz; beharbada, esaten dudan guztia egiten dudala beti usteko duzu. Ez, horixe bai ezetz... ez naiz ni ere beti zintzoa! Baina ez dut sekula adorea galtzen, eta Jesusen besoetara jauzi egiten dut. "Ihintz-tantatxoa" zelaietako Lorearen kalizan hondoratzen da, eta han, galdu zuen guztia eta askoz gehiago aurkitzen du" (TG 143).

"Zelaietako Lorearen ihintz tantatxoaren" parabola irakurri ondoren, itzelezko zirra-ra sentitzen dau Zelinak bihotz barnean. Eta badinotso bere ahizta txikiari: "Ez, sekula ezingo nizuke kontatu gai honi buruz nere baitan gertatzen den guztia. Orain, ez dut ezer behar, eta ezerk ez nau aseko, zelaietako Lorearen kaliza freskatuko duen ihintz tantatxoa izateak baizik. Zure gutuneko hitz bakoitza mundua da nere bihotzarentzako... Baina ixiltzera noa, zeren eta nahiago dut ixilean gogoeta egitea, hitzik ez duenari buruz hitzegitea baino. Ihintz tantatxoa beti, eta gauza guztietan, indargea da, zelaietako Loreari edaten emateko izan ezik... Teresa! Gu biok ez al gara zelaietako Lorearen kalizako bi ihintz tantatxo? Eta zuk badakizu, bi ihintz tantatxo elkarren aldamenean daudenean, bata bestea-

ren antzean, ezin direla elkarrekin nahastu gabe eta ihintz tantatto bakar bat eratu gabe egon. Beraz, 'Teresa-Zeline' ihintz tantatto bakarra du, zelaietako Lorearen kaliza pozik dago, beretzat ozeara bait da!" (LC 152).

3. 5b Lorak botaten dituan umetxoa

Mezu bardina dakar 'lorak botaten dituan umetxoaren' (B Esk., 4^a) kontaketak be. "Urte bat besterik ez naiz, ezindu eta ahula. Hala ere, nire ahultasun haxe da zure maitasunari oparizat neure burua eskaintzeko ausardia ematen didana, oi Jesus! Beste garai batzuetan, ostia garbi eta akats gabeak soilik zituen atsegin Jainko indartsu eta botere-tsuak. Jainko-justiziarri ordaintzeko opari ezin hobeak behar ziren. Baina beldurraren legeari Maitasunaren legeak hartu dio lekua, eta Maitasunak erreoparizat neu hautatu nau, sorkari ahul eta imperfektua naizen hau... Ez al da, izan ere, Maitasunaren betekoa hautatze hau?... Bai, Maitasuna asean izan dadin, beharrezko da ezerezeraino beharrezkoa eta ezerez hau *sugar* bihurtzea...

Oi, Jesus! Nik badakit maitasuna maitasunez baizik ez dela ordaintzen. Horregatik bilatu dut, aurkitu dut neure bihotza asaskatzeko era, Maitasunaren ordain Maitasuna itzuliz zuri. (...).

Oi jainkozko erregeen Errege hori!... Ez dira aberastasunak eta aintza (ezta zeruko aintza ere) haurtxoaren bihotzak eskatzen dituenak... Badaki aintza bere Senide, Aingeru eta Santuena dela eskubidez... Bere aintza bere Amaren aurpegiak dirdiratzen duen errainua izango da. Maitasuna da eskatzen duena... Gauza bat besterik ez daki: zu maitatzen, oi Jesus!... Egintza distiratsuak galaraziak ditu; ezin du Ebanjelioa aldarrikatu, ezin du isuri bere odola... Baina zer axola dio horregatik? Haren anaiek egiten dute lan haren ordean, eta hura, *haur txikia*, Errege eta Erreginaren *tronuaren* ondo-ondoan geratzen da; maitatu egiten du borrokan diharduten bere anaieen ordean... Baina nola frogatuko du hark bere maitasuna, maitasuna egintzabidez frogatzen baita? Hara! haurtxoak *loreak botako ditu*; haien *usain gozoz* lurrindatuko du errege-tronua, bere ahots zoliz Maitasunaren kanta abestuko du...

Oi, ene Maitca, hona hemen nola iraingiko den nire bizitza!... Nik ez dut neure maitasuna erakusteko beste erarik loreak botatzen izan ezik; hau da, sakrifizio txiki bat, begirada bat, hitz bat ere alferrik galtzen utzi gabe, gauzarik txikiak ere aprobetxatuz eta maitasunez eginez... Nik maitasunaren nahi dut sufritu, eta baita gozatu ere maitasunaren; horrela botako ditut loreak zure tronuaurrean. Ez dut bidean lore bat ere aurkituko zuretzat *hostokatu* gabe... Gainera, kantatu egingo dut loreak botatzerakoan (egin ote daiteke negarrik hain egintza pozgarria eginez?), kantatu egingo dut, neure loreak arantza artean bildu beharra balego ere; eta zenbat eta luzeago eta zorrotzagoak izan arantzak, hainbat ezitsua izango da nire kantua.

Zertarako litzaizkizuke, Jesus, nire lore eta kantak?... Ai! Ongi dakit nik, euri lurrindu hau, petalo hauskor eta inolako baliorik ez duten hauek, bihotzik txikiaren maitasun-kanta hauek hiluragarri gertatuko zaizkizula. Bai, huskeria horiek atsegin emango dizue, irribarre eragingo diote zeruko Elizari, berak bilduko ditu *maitasunaren* hostoka-

turiko nire loreak eta zure jainko-eskuetatik pasaraziz, oi Jesus!, zeruko Eliza honek, bere haurtxoarekin *jostatu* nahirik, berak ere bota egingo ditu lore hauek zure jainko-ukituaz neurrigabeko balioa hartu ondoren; hark sufrikariozko Elizaren gainera botako ditu honen sugarrak itzaltzeko; honek lurreko Elizaren gainera botako ditu garaipena lor dezan!...

Oi, ene Jesus, maite zaitut! Maite dut Eliza, neure Ama. Gogoan dut "*maitasun garbizko* zirkinik txikienek balio handiagoa dutela harentzat gainerako egintza guztiak batera baino". Baina ba ote da *maitasun garbirik* nire bihotzean? Nire gurari neurrigabeak ez ote dira amets bat, zorakeria bat?... Ai! Horrela balitz, Jesus, argi iezadazu. Zuk badakizu ni egiaren bila ari naizela... Nire gurariak ausartegiak badira, ezaba itzazu, gurari hauek martiritzarik handiena baitira niretzat... Hala ere, nik sentitzen dut, oi Jesus, maitasunaren goren-gorena irrikatu ondoren, egunen batean hori lortzerik ez banu, *neure martiritzaren, neure zorakeriaren erdian gozotasun* handiagoa izango *nukeela aberriko poztasunen* al-tzoan bertan izango dudana baino, zuk mirari batez lurreko itxaropenen oroitzapena kentzen ez badidazu behintzat. Utz iezadazu, orduan, neure erbeste bitartean maitasunaren atseginak gozaten... Utz iezadazu neure martiritzaren mingostasun gozoak dastatzen...

Jesus, Jesus, *zu maitatzeko irrika* hain atsegina bada, zer izango ote da hura eduki-tzea, Maitasunaz gozatzea?" (B Esk., 3¹⁻⁴).

3. 5c Maitasunaren aurrezki-kutxa

Gure egintza kaskarrenak be maitasunez egiten badira, ikaragarriko balioa dauke. Jaungoikoaren maitasunaz bat eginik ez dauke mugarik, zeru eta lur bazter guztietara heltzeraino. Teresaren asmo bakarra, dan-dana maitasunez egitea izango da. Gero horretaz zer izango dan, arazo hori Jaunaren eskuetan izten dau. Parabola hau osotzeko, ez datorku txarto, karmeldar gaztearen beste parabola bat gogoratzea, hau da, banketxearena. Teresan gurasoak merkataria ziranez, ez da harrizkoa Teresak bere komparaketa batzuk merkataritza mundutik hartzea. Ta egoki adierazten dausku banketxearen parabolak, Teresaren maitasun hutsezko "negozioa".

"Meritua ez datza gauza asko egitean edo asko ematean, jasotzean eta asko maitatzean baizik. Beti esan izan da askoz atseginagoa dela ematea jasotzea baino, eta egia da; Jesusek emaztearen *atsegina beretzat* gorde nahi duela jakinik, ez litzateke bat ere fina horri uko egitea. Utz diezaiozun nahi duen adina hartzen eta ematen, perfekzioa haren borondatea betetzean baita, eta arima Jesusen esku jartzen duenari 'bere Ama, bere Arreba' eta bere familia deitzen dio. Eta beste nonbait zera dio: 'Maite nauenak nire hitza beteko du (hau da, nire borondatea egingo du); nire Aitak maite izango du eta Aitarengana joanik, harengan egingo dugu geure bizilekua'. Ene Zelina, zein erraza den Jesusen nahia bete eta haren bihotza liluratzea! Jesus maitatzea besterik ez duzu, zeure buruari eta hutsegiteei gehiegi begiratu gabe...

Zure Teresa une honetan ez da bere unerik onenean aurkitzen baina Jesusek, 'bere baitan daukan *on eta txar* guztitik zerbait onuragarria ateratzen erakutsi dio'. Maitasunaren banku-jolasean jokatzeko erakutsi dio, edo ez, hobeto esanda, Jesus da Teresaren ordez jolasten duena, nola baliatzen den azaldu gabe, hori Jesusen arazoa baita eta ez Teresare-

na. Teresak egin behar duena utzi eta Jesusen esku jartzea da, beretzat ezer gorde gabe eta bankuak zenbat luzatzen dion jakiteaz ere poztu gabe. Dena dela, Teresa ez da Jesusen ume galdua; ez du, beraz, merezi Jesusek festarik opa diezaion, 'beti bere aldamenen duenez gero'.

Gure Jaunak 'ardi zintzoak basamortuan' utzi nahi ditu. Zenbat esaten didan esaldi honek...! Jesusek *ziurtasun osoa* dauka nire *ardiengan*; ardiok ezin dira desbideratu, maitasunaren menpe daude eta. (...). Esan bezala, zuzendariak bertutezko ekintza asko ezarriz aurrerazten dute perfekzioan, eta hhorretan zuzen daude; baina nire zuzendaria den Jesusek ez dizkit ekintzak kontrazten. *Den-dena* maitasunagatik egiten, ezer ere ez ukatzen, eta maite dudala erakusteko uzten dizkidan aukerengatik pozik egoten erakusten dit; hau guztiau bakean egiten da, *buru-uztean*. Jesus bera da den-dena egiten duena, nik ez dut deus egiten" (TG 142).

Parabola honeekin Teresak erakusten dau bere maitasunaren dohaintasuna. Horixe ikusi dau bere Maitearengan ta horixe izango da bere maitasunaren neurria be. "Jesus bera da den-dena egiten duena, nik ez dut deus egiten". Esaldi hau ezin da "banketxearen parabolaren" testuingurutik kanpora atara behar. Goratxoago datorren beste esaldi honen esangura berbera dauko: "Teresak egin behar duena utzi eta Jesusen esku jartzea da, beretzat ezer gorde gabe eta bankuak zenbat luzatzen dion jakiteaz ere poztu gabe". Banketxera eroan irabazten doguzan diru guztiak eta bertako zuzendariaren eskuetan itzi egin dagian nahi dauana gure diruaz. Ez gara arduratzen gehiago diru horregaz, ezta diru horrek emoten dituan irabaziakin be.

Inportanteena ez da hori, beste hau baino. Ez dogu banketxera diru hori errotan hobeto aseguratzeke edo zerbait gehiago irabazteke. Ez dogu diru hori bankuan ipinten interesak hartzeke edo, bertako zuzendaria asko maite dogulako baino. Zuzendariagaitik sartzen dogu dirua ta ez berak emongo daukun irabaziagaitik. Hauxe da "banketxearen parabolaren" adiera.

3. 5d Maitasunezko txingarra

Hurrengo konparazio honetan be argi agertzen dau Teresak "banketxearen parabolaren" esanahia. Avilako Teresaren esaldi bat kontuan hartuta, dinotso bere ahizteari: "Santa Teresak maitasunari eutsi beharra dagoela dio. *Egurra* ez da gure esku izaten ez ilunpean, ezta lehorraldian gaudenean ere; baina ez al gaude gu ere behartuta, lastotxo batzuk bada ere gehitzera? Jesusek, berak bakarrik sua piztuta mantentzeko adina indar baduen arren, gu sua indartzen ikustea eder zaio, benetan atsegin duen *sentiberatasuna* du, eta orduan, berak botatzen du egurra sutara. Guk ez dugu ikusten, baina maitasunak duen berotasunaren *indarra* somatzen dugu.

Nik neuregan ikusi dut ezer *sentitzen* ez dudanean eta *otoitz egiteko* edo bertuteren bat praktikatzeko GAI EZ naizenean, une horixe da borondate osoz sufritutako martiritzak eta munduko inperio guztiak baino atsegin handiagoa ematen dioten huskeriak bilatzeko aukera. Adibidez, irribarre bat, maitasunezko hitz bat isilik egoteko edota haserre-aurpegia jartzeko gogoia dudanean, eta abar, eta abar...

Nire Zelina maitea, ulertzen al duzu? Ez da nire koroa osatzeko, ezta merituak irabazteko, Jesusi atsegin egiteko baizik... Aukerarik ez dudanean, gutxienez, sarri-sarri maite dudala esatea eder zait; ez da bat ere zaila eta *sua* mantenez du. Maitasunezko txingar hau itzalita dagoela usteko *banu ere*, sutara zerbait jaurtitzea nahiko nuke, horrela, Jesusek berpiztarazi egingo bailuke" (TG 143). "*den-dena* beretzat izango da, *den-dena*, ezer eskaintzeko sentitzen ez dudanean baita,... beraz, gaur arratsean ere nik *ezerez* horixe eskainiko diot..." (TG 76).

Mezu zoragarri hau ze bikain damoskun "Maitasunez bizi" deritxon olerki famatu:

"Maitaunez bizitzea, norik bere burua neurri gabe eskaintzea da, saririk hemen behean eskatu gabe.
Ah! kontatu gabe ematen dut nik, ziur izanik maitatzen denean ez dagoela kontuak egiterik!...
Samurtasunez gainezka den Jainko-Bihotzari
nik dena eman diot... bizkor-bizkor noa ni,
neure aberastasun bakarra dut, besterik ez:
bizitzea Maitasunez" (TO 17, 5).

3. 5e Umetxo bateltxoan bakarrik

Itsasotik hartutako beste konparazio polit batez kontatzen daskuz bere bizitzako kezka eta pozak. Zelinari egindako karta honetan, Teresak ez dau bere maitasunez eta sinismenez beteriko historia baino azaltzen.

"Neure Zelina maitea: Ez nau harritzen ariman gertatzen ari zaizuna ez duzula ulertzen diostazunean. Olatu ekaiztsuen artean galduta dabilen utzian, itsasoan, bakar-bakarrik dagoen *haur TXIKIAK* ba al du jakiterik portutik hurbil ala urruti dabilen? Haurraren begiek itsasoratu ondoren itsasertza ikusten duten bitartean, badaki zenbat bide egin duen; bere burua lurretik urrunduz ikusi abala, are eta ezin eutsizkoagoa da haren poza! Ene bada, dio, oraintxe ez zait asko falta neure bidaiaren azkenera iristeko!... Baina zenbat eta hondartza gehiago urundu, are eta handiagoa dirudi itsasoak ere... Orduan, haurraren ZIENTZIA ezerezera mugatzen da eta jadanik ez daki bere bateltxo norantz doan. Eta lema gidatzen ez daki eta egin dezakeen gauza bakarra haizeak nahi duen erara oiharlari hegan egiten uztea da...

Zelina nirea, Jesusen *alabatxo* ere bateltxoan bakar-bakarrik dago, *hurraren* zantzua begietatik aienatu zaio eta ez daki aurrerantz ala atzerantz doan... Teresaxok *badaki*, ordea, bere Zelina *itsaso erdian* dagoela eta Zelinaren untzitxo oihalak zabaldurik porturantz doala; Zelinak ikusi ere egiten ez duen lema, ez dago gidaririk gabe. Jesus hantxe dago *lotan*, antzina Galileako arrantzaleen itsasontzian egon zen bezala. Jesus lotan dago... eta Zelinak *ez du ikusten*, gauak harrapatu duelako untzitxo... Zelinak ez dantzu Jesusen ahotsa... Haizea dabil... Zelinak haizea *dantzu... Ilunbea* ikusten du... eta Jesusek lo darrai. Dena dela, unetxo batez bakarrik esnatuko balitz, haizeari eta itsasoari agindu

bat ematea luke nahiko, den-dena bare-bare jartzeko; gaua eguna baino argiago egingo litzateke. Zelinak Jesusen *jainko-begirada ikusi ahal izango luke* eta haren arima pozturik geratuko litzateke... Baina horrela Jesussek ez luke lorik egingo eta hain dago NEKATUTA...! Jesusen oinak bekatarien atzetik ibiltzen nekatuta daude eta Zelinaren untzitxoan hain gozo dago lotan...!

Apostoluek *burkoa* eskaini zioten, ebanjelioak dioskunez. Baina gure Jaunak bere *emazte* maitearen untzitxoan burko gozoagoa aurkitu du: Zelinaren *bihotza*. Han den-dena ahazten du, bere etxean aurkitzen baita... Ez da harria haren buruari eusten diona: *alabaren bihotza* da, *emaztearena*. Ai, zein pozik dagoen Jesus! Baina nola egon liteke hain pozik, gozo-gozo lo dagoen bitartean emaztea *esnarik* dagoenean? Ez al da konturatzten Zelinak gaua baizik ez duela ikusten eta Jesusen jainko-aurpegia beretzat ikustezin gertatzen dela... eta sarritan, bihotzean somatzen duen pisua ere astunegi egiten zaiola?

Hau misterioa! Jesus, Mariak 'karga ahultxo baten antzera' zeraman Belengo ume-txoa astun bilakatzen da, hain astun, non san Kristobal ere harritu egiten baita... Kantueta-ko emazteak ere 'bere Maitea mirra xorta bat dela eta bere altzoan atsedean hartzen duela' dio. Mirra *sufrimendua* da, eta horrelaxe dagi lotan Jesussek Zelinaren bihotzean. Hala eta guztiz ere, Jesus pozik dago sufritzen ikustez, zoriontsu da *gazez* Zelinarengandik honek duen guztia hartzeaz... Egunsentia noiz iritsiko zain dago, eta orduan, ene bada orduan,... hura esnaera Jesusena!!!...

Egon zaitez ziur, ene Zelina maitea, zure bateltxoaren itsaso erdian dagoela, beharbada, portutik oso gertu honezkero. Untzitxoaren bultzatzen duen atsekabezko haizea, *maitasunaren haizea* da, eta haize hori tximista bera baino azkarragoa da..." (TG 144).

3. 5f Txoritxo gaixoa

Parabola honetan be, betiko arazo handia dago azpian, hau da, Kreatzailearen eta kreaturaren arteko maitasunezko loturak. Klasikoen arteko eztabaida ulertezina, graziaren eta gizonaren arteko konponketak. Bestetik, parabola honetan, nahiko argi ikusten da, Teresa bihotz banean sufritzen ari dan "gau ilunaren" eztenkada mingarriak. Baina "txori gaixoaren parabola" honetan karmeldar lekaike gazte baten azkartasunak, indarrak, balentriak eta sendotasunak be diz-diz egiten dabe.

"Nola irrika dezake nirea bezalako arima hain inperfektu batek Maitasunaren bete-betea edukitzea?... Oi, Jesus! Nire *lehenengo, nire Adiskide bakar hori!* Nik *maite dudan BAKARRA* zaren horrek, esaidazu, zer misterio da hau? Zergatik ez dituzu gordetzen irrika amaigabe horiek arima handientzat, goi-goietan hegan dabiltzan Arranoentzat?... Nik lumatxa leun batez soilik jantzitako txoritxo ahul baten antzera ikusten dut neure burua. Ez naiz arranoa; *begiak* eta *bihotza* ditut soilik harenak, ezin txikiagoa naizen arren, tinko begiratzen ausartzen naiz Jainko-Eguzkiari, Maitasun-Eguzkiari, eta nire bihotzak Arranoaren gurari guztiak sentitzen ditu bere baitan... Txoritxoak *hegan egin* nahi luke bere begiak liluratzen dituen Eguzki distiratsu horrenganantz; bere anaia arranoak imitatu nahi lituzke, Hirutasun Santuaren jainko-sugareraino igotzen ikusten baititu... Ai! Bere hego *txikiak* astintzea da hark egin dezakeen guztia, baina hegan egitea ez dago haren ahal izate *txikiaren* mende.

Zertan amaituko ote da? Penaz hilko ote da bere burua hain ezindua ikusirik?... Ez horixe! Txoritxoak ez da nahigabetu ere egingo. Buru-uzte ausartaz bere Jainko-Eguzkiari begira gelditu nahi du; ez luke jakingo ezerk ere hura beldurtzen, ez haizeak eta ezta euriak ere. Eta hodei ilunak Maitasun-Astroa estaltzera etorriko balira, txoritxoak ez litzateke lekuz aldatuko; badaki hodeietatik harantz, bere Eguzkiak argi egiten duela beti; haren argitasuna ez litzatekeela unetxo batean ere ilunduko. Batzuetan, egia da, txoritxoak ekaitzak erasotua aurkitzen da; inguratzen duten hodeiak besterik ez dagoela sinistu uste du. Orduantxe da *izaki gaixo* eta ahularentzat *poztasun oso-osoaren* unea. Bai zoriona harentzat hala ere *han* gelditzea, bere fedeari ezkututzen zaión argi ikusezinean begiak finkatzea!!!... Jesus, orain arte, ulertzen dut txoritxoari diozun maitasuna, ez baitu zure ondotik alde egiten...

Baina nik badakit, eta zuk ere badakizu, batzuetan sorkari txiki inperfektua, bere lekuan gelditu arren (hau da, Eguzkiaren izpien mende), bere zeregin bakarretik alendu egiten da pixka bat, garautxo bat hartzen du ezker eta eskuinean, har txiki baten atzetik joaten da... Gero, ur-potxingotxo bat aurkiturik, bertan *bustitzen ditu* bere luma doi-doi eratuak. Gogoko duen lore bat ikusten du, eta haren izpiritu niminoa lorearekin jostatzen da... Hitz batez, *arranoak bezala hegan egin ezinik*, txoritxo gaixoak lurteko *huskerietan* aritzen da oraindik. Hala ere, bere okerkeria guztien ondoren, bere mixeriengatik negar egiteko eta damuz hiltzeko bazter batean ezkutatu beharrean, txoritxoak bere Eguzki maitearengana itzultzen da, bere hegotxo *bustiak* haren izpi ongileetara jarri, eta intziri egiten du enarak bezala. Eta bere kantu gozoan zehatz-mehatz esaten, kontatzen ditu bere desleialtasunak, bere buru-uzte ausartegian pentsatuz, honela eskumen handiagoa bereganatuko zuela, hobeki erakarriko zuela zintzoei ez baina bekatariei dei egitera etorri zen Haren maitasuna... Astro Gurgarriak bere sorkaritxoaren txorrotzio negartiei entzungor eginez jarraitzen badu, *ezkutaturik* jarraitzen badu... ba, orduan sorkaritxoak bustirik gertatzen da, ontzat dauka hotzak harturik egotea, eta areago oraindik, poztu egiten da berak, dena dela, merezia duen sufrimendu honegatik...

Oi, Jesus, bai zorionsu dela zure *txoritxo ahul* eta *txiki* izanik! Zer gertatuko ote litzaioke handia balitz?... Ez luke sekula ere zure aurrean agertzeko, zure aurrean *erdi lo egoteko* ausardiarik izango... Bai, hau ere txoritxoaren ahultasun bat da, Jainko-Eguzkiari tinko begiratu nahi dionean, eta hodeiek izpi bat bera ere ikusten uzten ez diotenean; bere gogoz kontra, itxi egiten dira haren begitxoak, haren burutxoak hegapean gorde, eta gaixoak loak hartzen du, *beti* ere bere Astro maiteari tinko begira dagoelakoan. Esnatzean ez da deskontsolatzen; haren bihoztxoak bakean geratzen da. Bere *maitasun-ofizioari* ekiten dio berriro. Aingeru eta Santuei dei egiten die, arranoak bezala, bere gurarien jomuga den Sugar kiskalgarriarengana hegaldatzen diren haiei. Eta arranoek, euren anaiatxoaz errukiturik, babestu, zaindu egiten dute, eta ihes eragiten diete irentsi nahi luketan saiei. Txoritxoak ez da deabruen irudi diren saien beldur. Ez da haien *harrapakin* izatekoa, Maitasun-Eguzkiaren erdian ikusten duen *Arranoarena* izatekoa baizik.

Oi Jainko-Hitz hori! Zu zara nik maite dudana Arrano gurgarria, ni *erakartzen naue-na!* Zu zara erbesteko lurrera amilduz, sufritu eta hiltzea nahi izan duena, arimak Hirutasun Dohatsuaren betiko Sutearen altzoraino *erakartzeko*. Zu zara, zeure betiko bizileku izango den ezin iritsizko Argirantz igorik, oraindik negarrezko haranean, ostia zuri baten

irudipean gorderik jarraitzen duena... Arrano Betiereko hori, zeure jainko-sustantziak janaritu nahi nauzu ni, izaki gaixo hau, zure jainko-begiradak uneoro bizia emango ez balit, ezerezera itzuliko nintzatekeen hau... Oi, Jesus, utziezadazu esaten neure eskerrorenaren gainezkaldian zure maitasuna zorotasuneraino iristen dela!... Nola nahi duzu, bada, zorotasun hau ikusirik, nire bihotza zureganantz ez abiatzea? Nola ezarri mugak nire konfiantzari?... Ai! Badakit santuek ere zuregatik *zorakeriak* egin zituztela; gauza handiak egin zituzten, *arranoak* ziren-eta...

Jesus, ni txikiegia naiz gauza handirik egiteko..., eta nire *zorakeria* zure maitasunak oparizat har nazan itxarotean datza... Nire *zorakeria* neure anaia arranoei, Maitasun-Eguzkirantz Jainko-Arrano berberaren hegoekin hegan egitea eskatzean datza...

Zeuk nahi duzun arte, oi ene Maitea!, zure txoritxo indarrak eta hegorik gabe geldituko da. Begiak zuregan josirik dituela jarraituko du beti; zure jainko-begiradaz *liluratu* izan nahi luke; zure Maitasunaren *harrapakin* bihurtu nahi luke... Egunen batean, hala itxaroten dut, Arrano Gurgarri hori, etorriko zara zeure txoritxoaren bila; eta harekin Maitasunaren Sugarreraino hegaldatuz, beti-betiko hondoratuko duzu bera opari gisa eskaini den Maitasun horren leize gorian" (B Esk., 4¹-5¹).

3. 5g Mediku baten semetxoa

Teresaren harridura gehitzen doa. Bere hitz, konparazio eta paraboletan barneko ikararen zerbaite baino ez da adierazten. Jaungoikoak beragaz bat egiteko asmoak txundituta, pozaren pozez beteriko malkoz, izten dau gure karneldar gaztea. Txundidura horren azpian, Jaungoikoak gugaz bat egiteko dauan guraria ikusten da. Ta Jaungoikoa horretarako beheratu egiten da. Horra hor maitasunaren adierazgarri sendoenetarikoa eder bat. Teresak ez dau holan pentsetan berak inoiz pekatu astunik egin eta ezagutuko ez daualako. Beste paregabeko konparazio zoragarri bategaz azaltzen dauskuz bere sentimentuak. Holako konparazio bat euki izan balebe Erdi Aroko teologoak, hobeto ulertuko eben Ama Sortzez Garbiaren misterioa.

Maria Madalena pekataria bera baino eskerronekoagoa agertzen jaku Teresa gure lekaipe garden-gardena. "Badakit: 'gutxiago barkatzen zaionak, gutxiago maite du' Baina badakit Jesusek *Santa Madalenari* baino *gehiago barkatu didala* niri, *prebentzioz* barkatu didalako, erortzea eragotziz. Ai, nik bai nahi nukeela somatzen dudana azaldu ahal izatea!... Hona hemen nire pentsamendua pixka bat adierazten duen adibide bat. - Egin dezagun doktore jakintsu baten semeak bidean erorarazten dion harri bat aurkitzen duela, eta erortze honetan gorputz-adar bat hausten duela. Berehala hurbiltzen zaio bere aita, maiteki lurretik jaso, bere jakinduriaren baliabide guztiak hartan erabiliz zauriak sendatzen dizkio; laster haren semeak, guztiz sendaturik, bere eskerrona agertzen dio. Ezbairik gabe seme honek badu motiborik bere aita maitatzeko! Baina oraindik beste hipotesi bat jarriko dut. - Aitak, bere semearen bidean harri bat zegoela jakinik, aurreratu egiten zaio arin-arin eta, inork ikusi gabe, baztertu egiten du. Egiaz, seme honek, bere samurtasunez aurre harturik nolako ezbeharretik babestu duen aitak JAKIN GABE, ez dio honi bere eskerronik agertuko, eta hark sendatu izan balu baino *gutxiago maitatuko du*... Baina zein arriskutatik irten berri den jakingo balu, ez ote du *gehiago maite izango?* Hara

ba, neu naiz alaba hau, *zuzenak* berrerostera harik bekatariak berrerostera bere *Hitza* bidali zuen *Aijak prebentziozko maitasunez* gorde nauena. Nik *maitatzea* nahi du hark, *barkatu* didalako, ez asko, *guztia* baizik. Ez da zain egon santa Madalenak bezain gartsu nik noiz maitatuko; esanezinezko maitasunez aurre harturik maitatu nauela nik jakitea nahi izan du, orain nik *zoramenez* maite izan dezadan!... Entzuna dut ez dela aurkitu izan arima garbirik arima damutuak bezain gartsu maitatzen duenik. Ai, nik bai nahi nukeela hitz hau gezurtatzea!" (A Esk., 38¹-39^a).

3. 5h Errege boteretsua ta neskatxa apala

Bere lehengusinari egindako kartan ze ondo azaltzen dauan Teresak alde batetik Jaungoikoaren maitasunaren dohaintasuna eta bestetik gugaz bat eginda bizitzeko gogo bizia. Ez da biderik egokiena norbe pekatuak dirala-ta, bular-joka ibiltea. Beharrezkoena beste hau da: Jaunak daskun errukia eta Berak gugaz bizitzeko agertzen dauan "debiltasuna" espatiu barik onartzea. Ez bakarrik Teresa, baita Jesus berbera be "maitasunaren gaixotasunaz jota dago".

Hona hemen Teresaren narrazioa: "Eskerrak emaizkiozu Jainkoari eskaintzen dizkizun mesede guztiengatik eta ez zaitez mesede horiek ez aitortzeko bezain *eskertxarrekoa* izan. Errege abaltsu batek ezkontza eskatu dion neskatxa apal baten itxura hartzen dizut. Neskatxa ez da ausartzen baietza ematera, ez dela aberatsa eta gorteko ohiturak ere ez dituela ezagutzen esanez. Neskatxa konturatzen ez dena zera da: bere senargaiak ondo baino hobeto ezagutzen dituela neskatxaren pobretasun eta ahuldadeak, neskatxak berak baino askoz hobeto... Maria, zu deus ez bazara ere, ez ahaztu Jesus *dena* dela; hori dela eta, zure deus izate txiki hori bere *mugagabetasunean* galdu beharko duzu eta bakarrik maitagarria den horretan pentsatu... Ez du zure ahaleginen fruitua ikusi beharrik; Jesusek hainbeste kontsolatzen duten ezerezkeria hauek beretzat bakarrik gordetzea atsegin du... Oker zabilta, ene maitea, zure Teresatxo bertutearen bidetik beti sutsu joan izan dela uste baduzu. Teresa ahula da, oso ahula, egunero izaten du bere ahuldadea frogatzen dion esperientziaren bat; baina Maria, Jesusek san Paulori bezala, gaixotasuna goستن erakusten dizu. Hau grazia oso handia da eta zuri ere erakuts diezazun eskatzen diot Jesusi, hortxe bakarrik aurkitzen baitira bihotzeko bakea eta atsedena. Zeure burua hain ezereza ikusten duzunean, zeure buruaz horrenbeste arduratzeari utzi eta zeure Maiteari bakarrik begiratzen diozu...

Nire Maritxo maitea, nik neuk ez dut ezagutzen perfekziora iristeko beste biderik, "maitasuna" izan ezik!... Maitatzea!... Zein ongi egina dagoen gure bihotza maitasunera-ko!... Batzuetan maitasuna adierazteko hitzen bila aritzen naiz, baina lurreko erbeste honetan hitzak indargabeak dira arimaren dardara guztiak adierazteko. Horregatik, hitz bakar honetara *mugatu* beharra dago: *maitatzea!*...

Baina nor gaineztatuko du maitasunez, maitasun gosez dagoen gure bihotz gaixokak?... Ene! Nor izango ote da hori egiteko gai?... Izaki bizidunek maitasun hori ulertu eta erantzuten jakingo al dute?... Maria, ez dago 'maitatzea' hitzaren sakontasuna ulertzen duen izaki bat besterik... Ez dago Jesusez gain, guk eskaintzen dioguna mugagabe bihurtzen digun beste izakirik...

Maria Sakramentu Santuarena!... zeure izenak diotsu zein den zure eginbeharra: Jesus poztu, arimak *maitaraz* ditzan lortu... Jesus gaixorik dago jota dago eta kontuan izan behar da maitasun-gaixotasuna maitasunez bakarrik sendatzen dela... Maria, emai-zu zeure bihotza Jesusi, Jesus egarri eta gose baita. Zure bihotza, horra hor berak nahi duena; zure bihotza lortzearren, gela ilun eta zikin batean geratzeak ere ez dio axola... Ene! Ez duzu, ba, maitauko premia horretaraino makurtu den laguna? Nola ausartu berri-ro norbere pobretasunaz hitz egitera, Jesus bere emaztegaiaren antzeko egiten denean?... Aberatsa izanik txiro bihurtu zen, bere pobretasuna Maria Sakramentu Santuarenaren pobretasunarekin bat egiteko... Maitasunaren misterioa!..." (TG 109).

3. Si Lorategiko lorak

"Jesussek misterio honetaz niri argi egitea nahi izan du, Izadiaren liburua jarri du nire begien aurrean eta berak egindako lore guztiak ederrak direla ulertu dut, arrosaren distirak, zitorearen zuritasunak ez diotela bere usain gozoa eragotzen bioleta txikiari, ezta bitxiloreari ere bere xumetasun xarmangarria... Ulertu dut lore txiki guztiek arrosa izatea nahi balute, izadiak bere udaberri-apaintasuna galduko lukeela, zelaiak ez lirakeela loretxoz jantziak egongo..."

Gauza bera gertatzen da Jesusen lorategi den arimen munduan. Berak santu handiak sortu nahi izan ditu, zitore eta arrosaren antzekoak lirakeenak; baina txikiagoak ere sortu ditu eta hauek pozik egon behar dute bitxilore edo bioleta izateaz, Jainko onaren begirada alaitzeko hark bere oinetan makurrarazten dituenen. Perfekzioa haren borondatea egitea da, hark gu izatea nahi duena izan gaitzela...

Nik ulertu dut Gure Jaunaren maitasuna arimarik gurenean bezain ongi agertzen dela haren graziari ezertan kontra egiten ez dion arimarik xumeenean. Izan ere, maitasunari dagokiona behar izanik, beren irakatsiaren distiraz Elizari argi egiten dioten Santu Irakasleen antzekoak balira arima guztiak, haien bihotzetaraino datorrenean ez dirudi nahiko behar izan denik Jainko ona. Baina berak sortu du ezer ez dakien eta intziri motel batzuk baizik egiten ez dituen haurtxoa; berak sortu du basati gaixoa, gidaritzat berezko legea besterik ez duena, eta hauen bihotzetaraino nahi izan du jaitea! Hauek dira haren zelaietako loreak, beren xumetasunagatik hain liluragarri zaizkionak... Horrela jaitziz, Jainko Onak bere handitasun azkengabea erakusten du. Eguzkiak era batera zedroak eta lore txikietariko bakoitza, lurrean bera bakarrik bailitz bezala, argitzen dituenen, era berean Gure Jauna ere bakarka arduratzen da arima bakoitzaz, besterik ez balego bezala; eta izadian, urtarok bitxilorerik xumeenari markaturiko egunean irekiarazteko ezarriak daudenez, era berean arima bakoitzaren onari begira dago guztia" (A Esk., 2^{1-3a}).

Parabola eder hau osotzeko, ondo baino hobeto datorku, Teresaren beste konparaketa hau be: "Jesussek izadian, gure oin artean, hain edertasun zoragarriak erneazten baditu, misterioak ulertzen laguntzeko baizik ez duela egiten, Jesussek noizbehinka arimetan sortarazten dituen eta goragoko ordena batean ezkutaturik dauden misterioak ulertzeko... (...). Jesussek, gure ikusmena afaitzeko eta gure arimak argitzeko, milaka bitxilore txiki sortu ditu. Egunak argi egiten duenean, bitxiloreen arrosa-koloreko lore-hostoak egunsentiarri begira, eguzkia noiz irtengo zain daudela dakust. Astro distiratsua bere argi-izpi

epelak lore-hostoetarantz bidaltzen hasi orduko, loretxo lotsatiek kukuluak irekitzen dituzte, eta beren hosto politek koroa bat eratzen dute, beren bihotz horitxoak erakutsiz. Eta lore hauek, berehala, bere argiaz zauritzen dituenaren itxura hartzen dute. Bitxiloreak eguzkiari begira-begira ematen dute egun osoa eta eguzkiaren antzera egiten dute bira, arratsaldea iritsi arte; gero, eguzkia desagertzen denean lore-hostoak ixten dituzte eta zuri izatetik, berriro kolore arroxak hartzen dator... Jesus da jainko-eguzkia eta bitxiloreak haren emazteak, birjinak. Jesusek arima bati begiratzeko dionean, berehala ematen dio bere jainko-itxura; baina ezinbestekoa da arima horrek ere, *Jesusengan bakarrik* ezar dezan bere begirada" (TG 134).

3. 5j Kaleidoskopia

Umetan gogoko jakon kaleidoskopia batez jolastea. Jostailu horretaz be baliatzen da bere mezua eta bidea azaltzeko. Badaki, bai, bere pentsamentuak eta esperientziak argitzeko konparazio egokiak asmatzen. Hara zer dinon berak:

"Tresna honek mirespena sortzen zidan. Zer izan zitekeen fenomeno hain zoragarria sortzen zuen hura galdetzen nion neure buruari, egun batean goitik behera aztertzean, edozelan ebaki eta hor hemen zakabanatutako paper eta artile zatitxo batzuk baino ez zirela ikusi nuen arte. Aztertzen jarraitu nuen eta hiru kristal aurkitu nituen hodi barruan. Esku artean nuen arazoaren azalpena.

Misterio handi baten irudi izan nuen. Gure egintzak, txikiak izan arren, maitasunaren argipetik aldentzen ez diren artean, kristal bateragarriek aditzera ematen duten Hirutasun Santuak, islada eta edertasun izugarriak betetzen ditu. Bai, maitasunak gure bihotzean dirauen artean, bere erdiko gunetik aldentzen ez garen artean, den-dena doa ongi eta Joan Gurutzeko santuak dioenez: maitasunak edonondik, niregan dagoen onetik nahiz txarretik, onura ateratzen daki eta zer guztiak aldatzen ditu bere barruan. Jainkoak, kataloxa txikitik zehar, hau da, bere baitan begiratu, beti eder aurkitzen ditu gure lastotxo baliogabeak eta gure egintzarik txikiak; baina horretarako ez da erdiko gunetik aldendu behar! Hala eginez gero, Hark ez lituzke artile zatitxo batzuk eta paper txikitxo batzuk baino ikusiko" (*Conseils et Souvenirs*, Cerf/DDB, "Foi Vivante", 1973).

3. 5k Lur-azpian

Teresaren abentura ze ederto agertzen jakun bidaiaren ibilbidearen konparaketa honetan be: Irten aurretik, Senargaiak ea zein herrialdera eta zein bide jarraitu nahi ote zuen galdetu ziola zirudien... Andregaitxoak zera erantzun zion, ez zuela Maitasunaren Mendi tontorrera iritea beste nahirik. Mendi tontor hartara iristeko bide asko eskaintzen zitzaizkion, ordea, eta bide haien artean ezin hobekak ziruditenak hainbeste zirana eta ez zekien zein hautatu. Orduan bere jainko-gidariari esan zion: "Berorrek badaki nora iritsi nahi dudan, badaki *norengatik* igo nahi dudan mendi tontorrera, norengatik heldu nahi dudan azkeneraino, badaki nor maite dudan eta nor poztu nahi dudan bakarrik. Beragatik bakarrik noa egitera bidaia hau, gida nazala, beraz, Jesusek ibiltzea gogoko duen bide-zidorretan zehar. Jesus poztean lortzen dudan bitartean, zorionez gainzka izango naiz'.

Orduan Jesusek eskutik heldu eta ez hotzik eta ez berorik egiten ez zuen lurrazpi batera sartu ninduen, eguzkirik egiten ez zuen eta euririk ez haizerik heltzen ez zen tokira. Lurrazpi horretan ez nuen deus ikusten, argitasun erdi estaldu bat baizik, nire senargaiaren aurpegiko begi eroriek isurtzen zuten argitasuna...

Nire Senargaiak ez diosta ezer eta nik ere ez diotsat ezer; *neure burua baino maiteago dudala* bakarrik. Eta nire bihotzaren barrenean hau egia dela somatzen dut, areago bainaz harena, neurea baino!... Ez dakust mendi tontorrera goazenik, gure bidaia lurrazpian egitekoa delako; baina hala ere, mendi tontorrerantz goazela somatzen dut, nola jakin ez arren.

Goazen bidexka ez da batere kontsolagarria niretzat eta hala ere poz guztiak dakarkizkit, Jesus delako bidea hautatu duena eta bera bakarrik kontsolatzea delako nire nahia. Bera bakarrik, bera bakarrik!" (TG 110).

3. 6 Teresaren martiritza

Teresaren bizitza garbia oztopo-arineketa bat dirudi. "Jainko Onak aintzat izan duela nire arima proba mota askotatik pasaraztea; lurrean nagoenez gero asko sufritu dut" (C Esk., 4¹). Bere bizitzako azkenengo 18 hilabetetan bai gorputzean eta bai ariman itzelezko penak sentiduko ditu. Batetik tuberkulosi gaixotasuna eta bestetik fedezko tentazi-noak. Benetako martiritza jasango dau gure lekaima gazteak. Oztopo honeetan be ez dau kale egingo. Ta marka barriak jarriko ditu bere maitasun lehiaketa ederrean.

1896. Eguen-Bariku Santu gauean, izango ditu bere lehenengo odol-botakak. Ta Pazko domekan, fede-ezaren laino baltzak ingurutzen hasiko dira bere arima irentsi nahirik. Baina inoiz baino finago jokatuko dau Teresak maitasunean. Aurreko urteetan baino dohaintsuagoak izango dira bere sinismena eta maitasuna. Teresari begira ikusten da, egoera negargarritan be Jaungoikoa eta lagun hurkoa maitatzea posible dala. Teresak ez dau porrot egingo maitasunean. Inoiz be ez da damutuko dohaintasunean maitatzeaz.

Lau hilabete hil aurretik, bere "Arrosa Hostokatua" olerkian, honelako bertsoan laburbilduko dau bere bizitza guztia:

"Arrosa-petaloen gainean neke gabe ibiltzen da
eta hondokinok
arterik gabe ezarritako apaindura xume bat dira,
nik ulertzen dot.
Jesus, zure maitasunarren neure bizitza, neure geroa
galdua dut;
hilkorren begietarako beti arrosa ihartutakoa,
hil egin behar dut!..
Zugatik hil behar dut, Jesus, Edertasun Gorena,
hau bai zoriona!
hostokatuz nahi dizut erakutsi maite zaitudala,
oi nire ondasuna!...

Zure-haurpausotxoan azpian nahi dut misterioan
 hemen behean bizitzea
 eta oraíndik nahi nituzke nik Kalbarioan
 zure azken pausoak leuntzea!... (TO 51)

3. 6a Ezerezaren gaba

Teresak fedezko tentazinoak gogorrean ezagutuko ditu. Badago bere fede bizitzan zafiketa bat. Fedezko tentazinoak izan aurretik: "Ezin neban sinistu fede bako gizasemeri egon leikenik. Uste neban euren pentsamentuen kontra berba egiten ebela, zerurik ez egoala-ta esaten ebenean, zeru ederraren kontra, Jainkoa bera euren betiko saria izan nahi ebanean" Proba ondoren, ostera, "Bazko aldiko egun pozgarrietan, Jesusek sentiarazi zidan badirela benetan federik ez duten arimak" (C Esk., 5¹) Mingarizko esperientzia izango da Teresantzat.

Urte batzuk lehenago be ezagutuko ebazan fede munduan momentu larriak. Baina eskerrak Aita Pichon josulagunari batean (ik. A Esk., 70^a) edo Ama Genobebari (ik. A Esk., 78^a) eta Alexis Prouri bestetan (ik. A Esk., 80¹) arimako ilunpe horreek garaituko ditu. Guduxka txiki batzuk baino ez dira, oraingo proba gogoraz konparatuz.

Fedebakoen mahaian jezarrita, euron "oinaze-ogia jaten", ikusten dau Teresak bere burua. Ta ez dau itzi nahi "bekatari gaixoek jaten duten samintasan-mahaia" (C Esk., 6^a). Bere komentuko moja bateri autortuko dautso: "Barneko laino baltz zarratuz jota nago. Ez dot sinestuten betiko bizitzan. Hemengo bizitza amaitu ondoren, ez dagola ezer gehiago-ta nago. Niretzako dan-dana galduta dago; maitasuna besterik ez jat gelditzen" (PO, 402 orr.)

Hona hemen, beste zirrargarizko autortza bat be: "Ez dakizu, dinotso bere ahizta Paulinari, zelako pentsamentu txarrak etorten jatazan burura...! Gezur asko sartu nahi daustaz deabruak barruan...! Materialista okerrenen arrazoiak datortaz burura: Jaungoikorik ez dagoala... Jaungoikoak ez dabezala munduko gauza guzti honeek egin... berez sortuak dirala baino... Eta gizonen-arteo jakintzak adieraziko dauskuzala laster, gauzak zelan sortu diran... eta jakintza horrek azalduko dauskula ere, guk gaur misteriotzat jotzen doguzan gauza asko ta asko...! Oioitz egizu, ba, nire alde, horrelako siniskerietan jausi ez naiten" (DE II, 472 orr.).

Bere barneko fede borroka azaltzeko, ez dauko berbarik. Konparazio honen bidez ahalegintzen da egoera gordin eta latz hori adierazten: "Sentitzen dudana adierazi nahi nuke nik, baina ai! ezinezkoa dela uste dut. Tunel itsu honetatik ibili beharra dago horren iluntasunaz jabetzeko. Hala ere irudi baten bidez azaltzen saiatuko naiz.

Gandu trinko batez estalirik dagoen lurralde batean jaio naizela pentsatuko dut. Iza-diaren itxura irrisua, eguzki distiratsuz gainezkatua, eraldatua ikusteko aukerarik ez dut sekula izan. Egia da haur nintzenetik entzuten dudala gauza harrigarri hauetaz hitz egiten. Badakit jakin, orain nagoen lurraldea ez dela nire aberria; beste bat dagoela eta harantz jo behar dudala eten gabe. (...).

Esaten nuen txikitatik eman izan zaidala egunen batean lurralde triste eta ilunbetsutik joateko ziurtasuna. Hala sinesten nuen, ez ni baino jakintsuagoak ziren pertsoneri esaten entzun nielako soilik, neure bihotz barruan eskualde ederrago baterako joera bizia somatzen nielako ere bai. Kristobal Kolon-i bere senak mundu berri bat bazela susmarazizionez, oraindik halakorik inork amesten ez zuenean, horrelaxe niri ere senak eman zidan bazela nire betiko bizileku izango zen beste lurralde bat. Baina bat-batean inguratzen nauten ganduak itsuago bihurtzen dira, nire ariman sartu eta hainbestera biltzen dute, non jadanik ezinezkoa baitzait neure aberriaren irudi hain gozoa han aurkitzea. Guztia aienatu da! Neure bihotzari, inguratzen duten ilunpeek nekaturik, irrikatzen duen herrialde argitsuaren oroipenez atsedena eman nahi diodanean, nire nahigabea areagotu egiten da. Ilunpeek, bekatarien ahotsa hartuz, nire lepotik barreka hau esaten didatela iruditzen zait: 'Argiaz egiten duzu amets, usainik gozoenaz lurrindaturiko aberriaz. Gauza harrigarri hauen guztien Egilea *betiko* zeureganatzeaz egiten duzu amets. Egunen batean inguratzen zaituzten gandu arteak irten ahal izango duzula uste duzu. Aurrera! Aurrera! Goza zaitez heriotzaz, hark emango baitzizu ez zuk itxaroten duzuna, oraindik gaua ilunagoa baizik, ezerezaren gaua'.

Ama maite-maite hori, nire arima iluntzen duten ilunpeaz eman nahi izan dizudan irudia zirriborro bat bezain eskasa da modeloarekin konparatuz. Hala ere ez dut luzeago idatzi nahi; birao egingo dudan beldur nintzateke. Beldur naiz gehiegi esan ote dudan ere...

Ene Ama maite-maitea, neure proba den baino handiago egiten dudala irudituko zaizu, agian. Izan ere, aurten moldatu ditudan olerki txikietan adierazitako sentimenduak gogoan badituzu, kontsolamenduz beteriko arima bat irudituko natzaizu, ia fedearen oihala urratu izan zaiona. Eta hala ere, hau honezkero ez da niretzat oihala, zeruraino altxatzen den eta izarratuz den ortzia estaltzen duen horma bat da... Zeruko zoriona, Jainkoa betiko neureganatzea kantatzen ditudanean, ez dut inolako zorionik somatzen, *neuk sine-tsi nahi dudana* kantatzen baitut soilik. Batzuetan, egia da, eguzki-izpi txiki-txiki bat etorri ohi da nire iluna argitzera; orduan proba eten egiten da *une batez*. Baina gero, argi-izpi honen oroipenak poza eman beharrean, nire ilunpea itsuago bihurtzen du" (C Esk., 5^{1/7}).

3. 6b *Arnak eskuetan*

Fedezko tentazinoak ez dira desagertzen. "Proba honek ez zuen egun batzuetan, aste batzuetan soilik iraun behar, Jainkoak markatutako ordura arte luzatu baizik, eta... ordu hau ez da oraindik iritsi" (C Esk., 5¹). Fede gau illuna geroago eta gogorrago egiten jako. Baina karmeldar gazteak ez dau atzera egiten. Inoiz baino sendoago agertzen dau fede borrokarako gogo bizia. Ta egintzetan erakusten dau bere borondatea. Teresa ez dabil lainotan galduta. Bere bidea da zuzenena. Kristau fedea egintzekin egiaztatzen da. Ta fedea eskatzen dauana egitea izaten da onena. Fede praxiak balio dau beste ezerk baino gehiago. Dohain hutsezko borroka izango da Lisieuxko gure lekaimearena.

Hurrengo antitesi paradoxiko honek erakusten dauku garbi Teresaren bizitza:

"Zurekin bakarrik nago, Jesus, bat eginda
zure besoetan gordetzera noa arin-aringa;

nik maitatu zaitut haurtxo baten antzera,
borroka egin, gerrari ausart baten antzera
Samurtasunez beteriko haurtxo baten eduz,
nahi zaitut, Jauna, gainezkatu ereguz
eta neure apostoluzaren sail bakoitzean
borrokara jotzen dut gerrari baten antzean" (TO 36, 3).

Dardar eragiten dauskue Teresaren berbak: "Jesussek ongi daki fedearen poztasunik ez badut ere, egintzak egiten behintzat saiatzen naizela. Urtebetean neure bizitza osoan baino fede-aitormen gehiago egin dudala uste dut. Borrokaldi berri bakoitzean, neure etsaiak zirikatzen datozkidanean, ausarki portatzen naiz; aurrez aurre borroka egitea koldarkeria dela jakinik, bizkar ematen diet neure etsaiei, aurpegira begiratu ere egin gabe. Baina Jesusengana joan ohi naiz lasterka; gertu nagoela diotsat neure odola azken tantaraino ere isurtzeko Zeru bat dagoela aitortzearren. Zorionsu naizela diotsat Zeru eder honetaz lurrean ez gozatzear, berak betikotasunean fedegabeko errukarriei zabal diezaien. Beraz, *atsegin guztia* kentzen didan proba hau gorabehera, hala ere oihu egin dezaket: - 'Jauna, *pozez* beterik naukazu egiten duzun *guztiagatik*'. (Sal. XCI). Ba al da, izan ere, zure maitasunaren sufritzea baino poz handiagorik?... Zenbat eta barrukoago izan sufrimendua, hainbat gutxiago agertzen da sorkarien begietan, eta hainbat gehiago pozten zaitu zu, oi ene Jainko! Baina, ezinezko batez, zuk zeuk nire sufrimenduaren berri jakingo ez bazenu, orduan ere zorionsu nintzateke ni hura edukitzeaz, horren bidez fedearen aurkako bekatu bat bakarra eragotz ahal baneza" (C Esk., 7^a).

Teresak ez dau atzera egiten. Gertu dago fedearen alde bere odola emoteko. Godofredo Madelainen aholkua kontuan harturik, bere odolaz idatziko dau Kredoa aldean daroian Ebanjelioen liburuxuaren azken orrian. Bere Jehengusinare profesarako egindako poeman bere esperientzia azaltzen dauku:

"Gerrariaren arma indartsuak baditut,
hura imitatu eta ausarki borrokatzen badut,
Ama Birjinak bezala, grazia liluragarri,
borroka eginez nahi diet nik ere kantatu.
Zuk dardar eragiten diezu zeure lira-hairei,
eta lira hau nire bihotza da, oi Jesus!
Orduan kanta ditzaket nik zure ontasuna,
kantatu indarra eta gozotasuna,
irribarrez aurre egingo diot metraillari,
eta oi ene Jainko-Senarra, zure besoetan
borroka-zelaian hilko naiz kantari,
armak eskuetan!..." (TO 48, 5).

Bere poemarik luzeena Andra Mariaren omenez egingo dau. Bere izenburua "Zergaitik maite zaitudan, oi Maria!" Eta bertan Zeruko Amaren fedea honela abestuten dau:

“Zeruko Erregeak gauean, bihotzeko esturetan
bere Ama sartua izatea nahi izan zuen eta,
ona ote da, ba Maria, sufritzea lur honetan?
Bai, maitatuz sufritzea zorionik garbiena da!...
Eman didan guztia, Jesusek berriro har dezake;
esaiozu nigatik nekerik ez hartzeko inoiz ere...
Hura ezkuta daiteke; onartzen dut itxarotea
iluntzerik gabeko egunean fedea itzali arte...” (TO 54, 16).

3. 6c *Maitatuz sinistu*

“Ezerezaren gau” honetan, harrিতa izten gaitu Teresaren maitasunak. Inoiz baino garbiago ta bikainago agertzen da bere maitasuna. Maitasunaren aldeko apustuan ez dau atzera egiten. Maitasun ederragorik amestea ere, ez da erraza izango. “Ezerezaren gau” erdian erronka hau botaten ausartuko da: “Nire bokazioa maitasuna da” (B Esk., 3¹)

Teresaren bizitza guztia hortxe dago laburbilduta. Bere ametsik ederrena, “mugarik bage”, “legerik gabe”, “soldatarik bage”, “saririk gabe” “neurri barik”, “kontatu barik” maitatzea izango da. “Maitatzen denean ez dago kontuak egiterik” (TO 17, 5) esaten dau Teresak. Ta “ezerezaren gau” honetan, amets eder hori muturretik muturreraino biziko dau.

“Ezerezaren gauan”, itzelezko presa dauko maitasun hutsean bizitzeko. Betiko bizitzarik ez badago, ez dau sentitzen beragaitik, Jesusgaitik baino. Teresaren gogorik ederrena Jesus maitatzea da inondiko oztopo barik. Ta horixegaitik nahi dau zerura joatea:

“Zuk ongi dakizu, nire martiritza bakarra,
Jesusen Bihotz Sakratu, zure maitasuna da.
Nire arimak biziki nahi du zure Zeru ederra,
zu maitatzeko, zu gero eta gehiago maitatzeko da!...
Zeruan, beti-beti samurtasunez orditurik,
neurri eta lege gabe maitatuko zaitut nik
eta lehenengo aldian bezain berri
egingo zait nire zoriontasuna beti!!!...” (TO 33, 4).

Badau Teresak intuizio sakon bat betiko bizitzari buruz. Zerua ez da berarentzat “betiko zorionez beteriko atsedena” edo halako “nirvana” bedeinkatua. Zerua “neurri eta lege gabe Jesus maitatzeko” egoera besterik ez da.

Hara zer dinotson bere hain adiskide dan Bellière abadegai gazteari: “Zeruan lurrean dudan gogo bera izango bait dut; Jesus maitatzea eta maitaraztea. Apaizgai jauna, bitxi samarra irudituko zatzaizkit, eta agian damuturik zaude, dirudienez, zu lanean bakarrik utzirik betiko atsedena hartu nahi duen arreba izateaz... Baina lasaitu; nahi dudau gauza bakarra Jainkoaren nahia betetzea da, eta aitortzen dizut zeruan ezin izango banu bere aintzaren alde lanean jarraitu, nahiago nukeela erbestea erreinua baino. Ez dut etorkizuna

ezagutzen, baina Jesusek nire susmoak betetzen baditu, goialde hartan ere zure arreba izaten jarraituko dudala diotsut. Gure batasuna hautsi beharrean, are eta barrukoago bihurtuko da; han ez da klausuratik, ez burdinsaririk izango, eta nire arimak urrutiko misioetara hegán egin ahal izango du... Gure egitekoak berdinak izango dira: zuretzat apostoluarinak, eta niretzat, otoitza eta maitasuna" (TG 220).

Eta Roulland misiolari kutunari idazten dautso: "Ai! ene neba, lurrean baino zeruan onuragariago izango natzaizula susmatzen dut, horrexegatik iragartzen dizut neure zorioneko hirian egin behar dudán sarrera. Ziur nago nire atseginean bat egingo duzula eta Jaunari eskertuko diozula zure lan apostolikoetan egoki lagun diezazudan bitartekoak eman dizkidalako. Ez dut uste Zeruan ezer egin gabe egongo naizenik. Nire nahia Elizaren eta arimen alde lan egiten jarraitzea da; Jainkoari eskatzen diot eta ziur nago entzungo didala (...). Ene neba, ikusten duzunez, gudu-zelaia uzten badut ere, ez da atsedén hartzeko asmo norberekoiaz (...). Zeruko erreinura erakartzen nauena Jaunaren deia da, behin betikoz betidanik nahi izan dudán bezala maitatzeko itxaropena, eta beti bedeinkatuko duten milaka arimaren orde z maitaraziko dudala pentsatzea" (TG 254).

Pentsamentu eder eta sakon bat agertzen da Teresaren "ezerezaren gauan". Ezin leitekela zerua somatu lurreko arazoekin batera lotu barik. Hau da, ez dagola benetako betiko zorionik, mundu honetan negarrak, oinazeak, sufrimentuak ta minak irauten dabén bitartean. Holantxe ikusten dau Jesus bera be. Nahizta berbiztuta, oraindino ez da aurkitzen bere zorientasun bete-beteán. Jesus berbiztuak berak be ez dau, Teresaren arabera, garaipen osoa lortu. Teresak ezin dau ulertu zeruko zorientasun beterik hemengo malkoak xukatu barik. "Ez dut jai alaitzurik egin nahi, ez dut atsedénik hartu nahi arimarik salbatzeko den artean..." (KH, 17.7) oihukatzen dau Teresak.

Blas Pascalek antzeko esperientzia dauko: "Jesukristok agonian jarraitzen dau munduaren azken era arte" (*Pensées* 553). Bere aberkidearen pentsamentu sonatu honegaz ez leukez karmeldar gazteak bere eskuak burura jasoko. Nahizta Teresak esperientzia hori beste modu batera azaldu. "Maitasun-eskale" (ik. TO 36, 5) eta "maitasunaren katibu" (ik. TO 17, 2) bezela agertzen jaku Teresaren Jesus. Bai lurrean eta bai zeruan, "Jesus maitatzea eta maitaraztea". Ez dau beste ezer amesten Lisieuxko lekai me gazteak.

Inoiz baino begi garbiagoekin ikusiko dau, aldi honetan, Jesus lagun hurkoarengan. "Ezerezaren gauan" biziko dau bete-beteán lagun hurkoarenganako maitasun garbia. Teresaren maitasunak ez dau onartzen tranparik. "Maitatzea guztia ematea da eta nork bere burua ematea" (TO 54, 22). Horixe besterik ez dau Teresak bizi bere komunitateán. Moja bakotxagan Jesus berbera aurkitzen dau. Lekai meak maitatuz, Jesus bera maitatzen dau. Esperientzia hau itzel biziko dau bere bizitzako azken urteán.

Honela dino berak: "Aurten, ene Ama maitea, maitasuna zer den ulertzeko grazia eman dit Jainko Onak. Egia esan, lehen ere ulertzen nuen, baina ez hain ongi. Ez nituen sakonki aztertu Jesusen hitz hauek: 'Bigarren agindua lehenengoaren antzekoa da: Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala'. Bereziki Jainkoa maitatzeari emana nengoén. Eta hura maitatuz ulertu dut ez duela nire maitasunak hitzetan soilik agertu behar: 'ez baitira izango Jauna, Jauna esan dezatenak Zeruetako erreinuan sartuko direnak, Jainkoaren nahia egin dezatenak baizik'. Nahi hau Jesusek hainbat aldiz eman du ezagutzera; ia bere

Ebanjelioko orrialde bakoitzean esan beharko nuke. Baina azken afarian, bere Eukaristia-ko misterio esanezinean haiei eman berri zela, bere ikasleen bihotza beraganako maitasunez gar biziagoz zegoela dakienean, Salbatzaile samur honek agindu berri bat eman nahi die. Samurtasun adierazgaitz batez diotse: Agindu berri bat ematen dizuet: elkar maite dezazuela. eta *nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar*. Mundu guztiak nire ikasle zaretela ezagutuko duen seinalea, zuek elkar maite izatea da.

Nola maite ditu Jesusek bere ikasleak eta zergatik maite ditu? Ai, ez ziren ez haien berezko alde onak hari erakargarri gerta dakizkionak! Haien eta beraren artean mugagabeko alde zegoen. Hura Zientzia, betiko Jakinduria zen; haiek arrantzale gaixo batzuk, ezjakinak eta pentsamendu lurtarrez beteak. Hala ere Jesusek bere adiskide, bere anaia deitzen die. Errege izaten ikusi nahi ditu berarekin batera bere Aitarenean; eta erreinu hori haiei zabaltzeko, gurutze batean hil nahi du, berberak esan baitzuen: Ez dago maitasun handiagorik nork bere bizia maite dituen haien alde ematea baino!...

Ama maite-maitea, Jesusen hitz hauetaz gogoeta eginez, ulertu dut zein inperfektua den neure ahizpei diadan maitasuna. Jainkoak maite dituen bezala ez ditudala maite ikusi dut. Ai! Orain ulertzen dut maitasun osoa besteen hutsak onez eramatean datzala, haien argalkeriaz gaizpiderik ez hartzean, haiek egiten ikusten diren bertutezko egintza txikienetik ere on ateratzean. Baina honetaz ohartu naiz batez ere, maitasunak ez duela bihotz-hondoan gorderik gelditu behar" (C Esk., 11¹-12^a).

Egiaz beteriko testu zoragarria. Antologikoa, benetan! Jauna bizi dauanak, maitasunaren bidea hautatzen dau. Horixe da Teresaren esperientzia. "Zenbat eta elkartuago harekin, hainbat gehiago maite ditut neure ahizpa guztiak. Maitasun hau neuregan aragotu nahi dudanean, batez ere deabruak hain begiko ez zaidan ahizpa honen nahiz haren akatsak nire arimaren begien aurrean jarri nahi dizkidanean, haren bertuteen, haren asmo onen bila lehiatzen naiz. Nik pentsatzen dut behin erortzen ikusi badut, balitekeela garai-pen ugari lortu izatea, berak apaltasunagatik ezkutuan dituenak; eta niri hutssegitea iruditzen zaidana bera ere izan daitekeela bertutezko egintza, izan duen asmoa dela-eta" (C Esk., 12¹-13^a)

Maitatzeko orduan, Teresa ez dabil lainotan dantzan. Maitasunean oso konkretua da. Eguneroko egite arruntetan egiaztatuko dau bere paregabeko maitasuna. Hainbat bere etsenplu zirraragarri daukaguz begien aurrean. Akotan aldatz gora egiten jako goi-maitasuna praktikatzea. Jakin badaki "Ai, bai elkarren aurka daudela naturaren sentimenduak eta Jesusen irakatsiak!" (C Esk., 18¹).

Esfortzu sendoak egingo ditu Teresak maitasun bide garbitik aurrera egiteko. Lehendabizi, "maitasun-pentsamenduak izan nahi ditut beti" bere komentuko moja buruz (C Esk., 13¹). Badira moja batzuk oso iguingarri jausten jakozanak. Esaterako, Teresa San Agustinena. Haren "jokamoldea, haren hitzak, haren izaera *oso desatsegin* egiten zitzaizkidan" (ik. C Esk., 13¹). Ta zer egin beragaz? Maitasunez jokatu: "sentitzen nuen berezko antipatiari leku eman nahi ez eta, maitasunak ez duela sentimendu-kontua izan behar esan nuen neure baitan, egintzena baizik. Orduan, maiteen nuen pertsonagatik egingo nukeena, ahizpa horren alde egiteari ekin nion. Hura aurkitzen nuen guztian haren alde eskatzen nion Jainkoari, haren bertute guztiak eta merezimenduak eskainiz. Hau Jesusi

atsegin zitzaioala sentitzen nuen, ez baita bere obregatik goretsia izatea gogoko ez duen artistarik; eta Jesus, arimen Artista, pozik dago azalekoan gelditu gabe, hark bere bizilekutzat hautatu duen barneko santutegiraino sartuz, haren edertasuna miresten denean. Nik ez nuen nahikoa hainbat borroka eragiten zizkidan ahizparen alde asko erregutzeaz, eta ahal nituen zerbitzu guztiak hari eskaintzen saiatzen nintzen; eta zakarki erantzuteko tentaldia nuenean, neure irribarrerik liluragarriena zuzentzeaz kontentatzen nintzen, eta elkarriketa-gaia aldatzen saiatzen nintzen” (C Esk., 13¹-14^a).

Behin moja honek, errekreo denporan, komunitate osoaren aurrean, pregunta hau egiten dautso Teresari: “Esango zenidake, ahizpa Teresa Jesus Haurrarena, zer den niregan hainbeste erakartzen zaituena?” Teresak esango dautso “bera ikustea pozgarri jakolako” Baina egi santua beste au da: “Ai! Erakartzen ninduena Jesus zen, haren arima barnean ezkutaturik zegoena..., denik eta mingotsena gozo bihurtzen duen Jesus” (C Esk., 14^a).

Gure karmeldar gaztearen jokabidea honelako printzipiotan oinarritzen da: “ez da aski maitatzea; erakutsi egin behar da hori” (C Esk., 15¹); “Soingainekoa uztea azken eskubideei uko egitea dela deritzot, bere burua besteen zerbitzaritzat, mirabetzat hartzea.” (C Esk., 16¹); ‘Ezer itxaron gabe eman’ (ik. C Esk., 18^a); “Pentsamendurik ederrenak ez dira ezer egiterik gabe” (C Esk., 19¹); “Bai dela egia Jainko onak soilik ezagutzen duela bihotzen barua” (C Esk., 19^a); “Maitasuna sakrifizioz janaritzen da” (C Esk., 21¹); “Pozez ikusten dut Jauna maitatzean bihotza zabaldu egiten dela” (C Esk., 22^a); “ikusten da Jainko onaren laguntza gabe on egitea, eguzkiari gauean distiraraztea bezain ezinezkoa dela” (C Esk., 22¹); “Askoz ere alde handiagoa dago arimen artean aurpegiaren artean baino” (C Esk., 23¹); “nik jolasaldian, baimendutako solasaldian gutxien atsegin zaizkidan ahizpekin ibiltzea bilatu behar dut, samaritar onarena egin arima mindu horiekin” (C Esk., 28^a); “guztiekin izan nahi dut maitagarria (eta batez ere hain maitagarri ez diren ahizpekin)” (C Esk., 28¹); “uste baitut ezin daitekeela inolako onik egin nork bere burua bilatzen duenean” (C Esk., 32¹).



Teresa hilik

Bide honi jarraituz, Jesusen agindu barria barneraino biziko dau lekaima gazte honek. Holako bizitza bat ezin leiteke bertan behera galdu. "Ezerezaren gauan", Teresan bihotzetik honelako oihu zirrargarriak erteten dabe: "Den-dena desagertu da niretzat, maitasuna besterik ez zait geratzen"; "maitasuna besterik ez diot Jaunari eman" (KH 27.7.1); "Jainko onak nire nahiak entzuten baditu, neure Zerua lurtean emango dut munduaren azken egunerarte. Bai, nire Zerua, lurtean on egiten iragan nahi dut. (...). Ez dut jai alaitsurik egin nahi, ez dut atsedetik hartu nahi arimarik salbatzeko den artean..." (KH 17.7). "Ez dut neure burua Maitasunari eman izatearen damurik" (KH 30.9) Gorputza tuberkulosi gaixotasunaz ondatuta eta arimean "fedearen poztasunik gabe" (C Esk., 7^a), Teresa eskuetan dardaraz oratuta daukan kurutzeari begira-begira, "Maite zaitut, Jauna... Maite zaitut, ene Jaungoikoa...!" xuxurlatuz emongo dau azken amasa.

1897ko irailaren 30 zan, arratsaldeko zazpiak eta hogei. Teresak ez ditu 24 urte baino...

4

Laugarren zatia (Ohorezko haize-bolada, 1897-1997)

"Zeruan ezer egin gabe ez naiz egongo" (TG 254). Teresak ez dau nahi zeruan atsedetik hartu. Hobeto esanda, kristauok ez dautsagu atsedena hartzen izten. Hil da gero, bere fama behingoan zabaltzen da munduan zehar. Maitasuneko haize-bolada gozo eta barri batek jotzen dau Eleizaren barnea.

Zeri edo nori zor dautso Teresak hain aparteko arrakasta itzel hori? Duda barik, berak idatzitako "Arima baten Istorioa" liburu sonatuari. Teresa hil eta handik urte betera justu urtengo dau kalera. Isidoro Guerinek ordainduta urtengo dau lehenengo argitalpenak. 2000 ale izango ditu. Sekulako harrera ona izango dau klase guztietako eleiztarrengan. Gotzainak, abadeak, erlijiosoak, mojak, laikoak, danak irunsi egiten dabe. Hurrengo urtean, 1899., bigarren argitalpena. Teresa hil eta hamazazpi urte barru Frantzia bertan 400.000 ale baino gehiago saldu izango dira. "Best seller" bihurtuko da. 1901eko urtea geroztik hainbat eta hainbat itzulpen egingo dira. Gaur egunean, hirurogei bat hizkuntzetara itzulita daukagu. Baita euskerara be, Aita Santi Onaindiak itzulita 1991.ean argitaratuta.

Berehalaxe hasiko dira erromesaldiak bere hilobira. Mesedeak eta mirariak non-nahi. Lisieuxen bertan jasoten da mirari harrigarri bat. Lau urteko umetxo bat, jaiotzez itsua, bere amak Teresaren hilobira daroa. Ta bertan fortzen dau ikusmena. Neskatxoaren izena Reine Fauquet.

Lisieuxko mojak harrituta dagoz. Eguneroko hiltzen jakez zakutaka kartak. Eskerrak emoten edo Teresaren bitartez lortutako mesedeak eta mirariak kontatzen. Asko dira Teresa altaretara jasoteko eskabideak be. Mudu guztitik datoz, batez be Ingalaterratik eta Ipar Ameriketatik. "The little Flower of Jesus" ezagutzen ez dauan ingeles dakian katolikorik ia ez dago.

Herriak aurrea hartzen dautso Erromari, Teresa altaretara jasoteko orduan. 1910.eko urtean hasiko da santu egiteko prozesua eta 1925ean amaituko da. Prozesu honetan zer ikusi haundia izango dabe urte horreetako Aita Santuak: Pio X.a, Benedikto XV.a eta Pio XI.ak.

Pio X Aita Santuak Florenziako lekaike karmeldarrak itzuli eta bialdutako Teresaren "Arima baten Istoria" irakurtzen dau. Liluratuta geratzen da. "Teresa dala orain-aldiko santurik haundiena" esango dau. Hor ikusten da santuen sena. Berehalaxe bultzatzen dau Teresaren santu egiteko prozesua. "Bisogna far presto questo Processo" ("Prozesu hau lehenbailehen egin behar da") aginduko dau. Bere entzulegoari sarritan eskatuko dautsee Lisieuxko Teresari otoitz egiteko. Ta beronen mezua gogoratzen askotan ahaleginduko da.

Benedikto XV.ak, 1921.eko urtean, "Beneragarri" autortuko dau. Egun horretan hitzaldi eder bat egingo dau. Ta bertan erabili ta azalduko dau gero hain sonatua izango dan "Haurtasun espirituala" deritxon esaera. Geroztik Teresaren bizitza eta mezua azaltzeko, beste esaera eder askoren artean, gehien erabiliko dan esaera, horixe izango da, nahitza Teresak berak inoiz ere erabili ez.

Baina Teresaren Aita Santua Pio XI.a dogu. Beronen aitasantutzako "Izarra" Teresa besterik ez dau izango. Pio XI.a dogu Teresaren alde gehien egin dauan Aita Santua. Esaterako, beronek haundikiro autortuko dau santu Teresa 1925.eko maiatzaren 17an. Ez da nekatuko bere hitzaldietan Teresaren mezu zoragarria iragarten. Bere apostolutzako ekimen nagusienak Teresaren babespean jarten ditu. Batez be, Akzio Katolikoa eta Misioiak. Bi urte geroago, 1927.ko abenduaren 14an, mundu guztiko misino eta misiolari guztien zaindari izentatuko dau Xabierko Franzizkorekin batera. Bere lan-mahai gainean ez da faltako, gau ta egun, Lisieuxko karmeldar gaztearen irudia be. "Teresa zala mundu guztiak gehienbat maite eban nexkatxa" gustatzen jakon irribarretsu esatea. Gogo bizia agertuko dau Lisieux bertara joateko, Teresaren omenez jasotako Basilika bedeinkatu nahirik. Ta ordezkari bezeta Pacelli kardinala bialduko dau.

Eugenio Pacelli Aita Santu izatera hiltzen danean, Frantziako zaindari egingo dau. Izendatze hau 1944.eko maiatzaren 3an izango da, hau da, munduko bigarren gerran Normandiako lehorreratze famatua baino hilabete lehenago. Gizaldi honetako beste Aita Santuak be oso maite izan dabe Teresa. Aipatzekoa da, Juan Pablo II.ak Frantziara egindako bere ibilaldi apostolikoa Lisieuxen amaituko dau hitzaldi eder bategaz, 1980.ko ekainaren 2an.

Teresak dirdai dirhardu gaur be. 1971-1992 bitartean argitaratuko dira bere idazlan guztiak. Edizio kritikoa oso bikaina. Baditugu baita bere argazkien argitalpena be. Eskerrak erretratu honek, Teresaren egiazko irudi bat daukagu gaur, eta ez lehengo irudi txepel



eskasak. Baita eskuetan ditugu altaretara jasotako egindako prozesuak be. Gaur, bere bizitza eta mezua ezagutzeko, inoiz baino aukera hobekoak ditugu.

Ez bakarrik Frantziako gotzainak, baita beste hainbat naziotako gotzainak be eskatu dautse Aita Santuari Eleizaren Doktoregoa karmeldar lekaike gaztearentzat. Miloika erromes doaz urtero Lisieuxera. Han eta hemen Teresaren omenez jasotako eleizak ugaritzen doaz. Mila eta zazpirehun baino gehiago dira mundu zabalean. Euron artean bost katedral eta bost basilika. Aipatzekoa Kairoko basilika "Allahren santa txikiagandik" lortutako mesedeak eskertzeko mahometarren laguntzaz jasoa. Zenbat eskola eta Seminario bere babespean jarriak! Ezagunena, Frantziako "De la Mission" deritxon Seminarioa. Suhard kardinalak, Frantziako lurraldeak barriro Ebanjelizatzeke, Lisieuxen bertan eraikiko dau Seminario famatu hori Teresaren babespean. Berrogeita hamar kongregazio barri inguru izango dira, gaur egunean, Eleizan Teresaren bizitzan eta mezuan oinarrituak.

4.1 Zergaitik maite dogu Teresa Lisieuxkoa?

Zergaitik maite dau hainbat jendek Teresa? Gertatzen dana horixe da. Bai adinekoen eta gazteen artean, bai eleiztar zintzoen eta praktikatzen ez dabenen artean. Halan da guztiz be, galdera horri zehatz-mehatz erantzutea ez da gauza erraza. Baina badago hor zerbait Teresagan aurkitzen doguna: bizitzaren sekretua maitasunean dagoala. Teresaren bizitzak eta mezuak, maitasuna besterik ez dabe distirutzen. Sekretua ez dago gauza miragarriak egitean, egiten doguna maitasun garbiaz, dohainik, egitean baino. Gogoko dau, Joan Gurutzekoaren pentsamentu eder hau: "Maitasun garbi pitin bat Jainkoarentzat eta



pertsonarentzat baliotsuagoa da eta Eleizarentzat onuragarriago, bestelako ekintza guztiak batera baino” (*Kantu izpirituala*, 29, 2).

Ez dago borrokarik ekintza haundien eta txikien artean, maitasun garbieren eta kutsatuaren artean baino. Ekin-tzen neurria maitasunean datza. Zelako maitasuna, halako baliotasuna izango dabe gure ekintzak eta hartu-emonak. Maitasun barik egindako gauzak ez dabe ezer merezi. Hortxe dago Teresaren bizitzaren koska. Ez dau maitasunean porrotik egingo. Ezta momentu larrietan be. Maitasun bizitzak ez dau nahi esan larrosazko biderik. Begien aurrean dauko Jesusen esperientzia harrigarria: “Ez zaitzete atsekabetu, ene ahizpatxoak, min handiak izan eta, esan dizuedan bezala, heriotzako unean niregan zorientasunaren izpirik ikusten ez baduzue. Gure Jauna Maitasun-Opari eginda hil zen eta, badakizue nolakoa izan zen haren heriotzaldia” (KH 4.6.1).

Teresaren arrakasta maitasunean dagoala, deritxat. Bere ondoan maitasunaren freskotasuna eta zirrara sentitzen dira. Jaungoikoaganako eta pertsonenganako maitasun haundia. Baita unibertso osoarenganako sentiberatasun fina ere. Horixe da Teresangan gehien bat somatzen doguna. Maitasuna “neurri eta lege barik” dariola agertzen jaku karmeldar lekaima gazte hau. Maitasuna izango da bere bizitzako ezaugarriarik hunkigarriena. Horigaitik, behar bada, hain erraz maitemindutzen gaitu bere bizitzak eta bere mezuak.

Maitasuna izango da Teresaren ezaugarriarik apartekoena. Ez da inoiz ere damutuko maitasunezko bidetik jardunaz. “Maitasunezko zibilizazioan” oso-osorik murgilduta daukagu bere mezu zoragarria.

Andoni Olea ocd